


TXOSTENA IXUSTILENA

40

**EAE-KO ARAUGINTZAN
GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINA AURRETIAZ
EBALUATZEKO PROZESUEN
EBALUAZIOA**

2015



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**EAE-KO ARAUGINTZAN
GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINA AURRETIAZ
EBALUATZEKO PROZESUEN
EBALUAZIOA**

2015

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2017

IZENBURUA:	“EAEko araugintzan generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko prozesuen ebaluazioa. 2015”
EDITOREA ETA EGILEA:	EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakunde. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
IKERTZAILE-TALDEA:	Eva Alfama, Alba Alonso, María de la Fuente eta Silvia Llorente Erakundea: ALIA Ikerketarako eta ekintzarako Elkarte
MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:	ARRIN. Comunicación y Diseño
DISEINU GRAFIKOA:	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón
DATA:	2017ko abendua
DESKRIBATZAILEAK:	Aukera-berdintasuna, generoaren araberako eragina, genero ikuspegia, administrazio autonomikoa, foru administrazioa, autonomia erkidegoetako araudia, ikerketa-txostenak, ebaluazioa
ALE KOPURUA:	500
INPRIMATZAILEA:	Sacal
ISBN (lan osoa):	84-89630-50-X 978-84-89630-50-5
ISBN (4. tomoa):	84-89630-54-2 978-84-89630-54-3
L.G.:	VI 1021-2017

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
LABURPEN EXEKUTIBOA	11
1. SARRERA	25
1.1. Gaiaren egoera: generoaren arabera eraginaren ebaluazioan izandako aurrerapenak eta mugak	27
1.2. Ebaluazioaren diseinua eta metodologia	31
2. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA EUSKO JAURLARITZAN	35
2.1. Ikuspegia eta garapena 2005-2015	37
2.2. GEEaren ezarpen-maila ebaluatzea	43
2.2.1. Ezarpena inplikaturako eragilearen ikuspegitik	44
Nor da eraginari buruzko txostenaren egilea?	44
Zein da berdintasun-unitateen zeregina?	45
Noiz egin behar da txostena?	47
Zer eskaintzen dute generoaren arabera eraginari buruzko txostenek?	48
Zer eskaintzen dute egiaztapen-txostenek?	49
Zein dira detektaturako eragozpen nagusiak?	50
2.2.2. Eragina ebaluatzeko tresnak	52
Generoaren arabera Eraginari buruzko Txostena	52
Emakunderen Egiaztapen Txostena	56
2.3. Emaizten ebaluazioa eta GEEaren eraginak	64
2.3.1. Genero-ikuspegiak eta berdintasun-neurriekin onartutako arauetan duten presentzia	64
2.3.2. Araudien berdintasuna sartzei dagokionez GEEari esker izandako hobekuntza	70
GEEa eta aldaketak araudian	71
Bilakaera, neurri mota espezifikoaren arabera	78
2.4. Eusko Jaurlaritzarentzako ondorioak	83
2.4.1. Ezarpenari eta prozedurei dagokienez	83
Ezarpen-eredua	83
Ezarpen-prozesuaren erronka eta tentsio nagusiak	84
2.4.2. Txostenen ondorio eta eraginei buruz	86
Araudien sartutako berdintasun-neurrietan duten eragina	86
Inplikaturako eragileengan eragitea	87
GEEaren eraginari buruzko erronka eta tentsio nagusiak	87

3. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA	
FORU-ALDUNDIETAN ETA TOKI-EREMUAN	89
3.1. Arabako Foru Aldundia	91
3.1.1. Ikuspegia eta garapena	91
3.1.2. Ezarpena, emaitzak eta eraginak	92
3.1.3. Balantzea	93
3.2. Bizkaiko Foru Aldundia	94
3.2.1. Ikuspegia eta garapena	94
3.2.2. Ezarpena	97
3.2.3. Emaitzak eta eraginak	98
3.2.4. Balantzea	99
3.3. Gipuzkoako Foru Aldundia	100
3.3.1. Ikuspegia eta garapena	100
3.3.2. Ezarpena	103
3.3.3. Emaitzak eta eraginak	104
3.3.4. Balantzea	105
3.4. Foru-eremurako ondorioak	106
3.5. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa toki-eremuan	107
4. ONDORIO OROKORRAK	109
5. GOMENDIOAK	113
5.1. Ezarpen-prozesuari buruz	115
5.2. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioari buruz	116
5.3. GEEaren emaitzei eta ondorioei buruz	121
6. BIBLIOGRAFIA	127
ERANSKINAK	131
1.E. METODOLOGIA	133
1.1.E. Diseinu metodologiko zehaztua	133
1.2.E. Adierazleak eraginkor bihurtzea	139
1.3.E. Elkarrikeratutako pertsonen zerrenda	142
1.4.E. Aztertutako espedienteen zerrenda	143
1.5.E. Eusko Jaurlaritzako espedienteen informazioa husteko eta haiei buruzko ikerketa egiteko tresna	154
2.E. EUSKO JAURLARITZAN 2007. URTETIK 2012.	
URTERA BITARTE GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN	
AURRETIKO EBALUAZIOA EGITEKO GIDALERROEN ARTEKO	
ALDERAKETA	159
TAULEN AURKIBIDEA	165
IRUDIEN AURKIBIDEA	167
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	167



AURKEZPENA




Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea ebaluatzeko proiektua dugu eskuartean, legearen lehen xedapen gehigarriko aginduari erantzunez. izan ere, xedapen horretan ezarrita dagoenez, legearen aplikazioko lehen hamar urteak igaro ondoren, Emakundeko Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeari dagokio hura nola bete, garatu eta aplikatu den ebaluatzea.

Baterako argitalpen honetan, ebaluazio bat aurkezten dugu, lau txosten osagarriekin osatuta dagoena: legearen ebaluazio generiko bi –ebaluazio kualitatiboa bata; kuantitatiboa, bestea– eta ebaluazio espezifiko bi.

Ebaluazioa kualitatiboa Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren printzipioekin bat etorritik egin da, zeinak kultura partizipatiboa bultzatzen baitu, administrazioen eta herritarren arteko elkarlanean oinarrituta. Legea garatzearen eta ezartzearen ardura duten administrazio publikoek egindako balorazioen osagarri, legearen aplikazioaren eraginpean dauden pertsonen, kolektiboek eta erakunde publiko zein pribatuek egindakoak gehitu dira. Ildo espezifiko bat ere ezarri da EAEko emakume-elkartekin eta elkarte feministekin lan egiteko, horiek agente giltzarriak baitira eremu horretan eta haien ikuspegi estrategikoa ezinbestekoa baita lege honen ebaluazioan. Prozesu hau garrantzerakoan laguntza-iturri ditugu DACIMA (Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza), Innobasque, Aholku Batzordea, herritarrentzako komunikazio-kanalak –Irekian zabaldutakoak– eta Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako Euskal Sozio-metroaren emaitzak.

Ebaluazio kuantitatiboaren bidez, segimendua egin da 2010etik 2015era bitartean legea zenbateraino bete den jakiteko, eta horri esker, jarraipena eman zaie urte horietan egindako ebaluazioei eta horietan lortutako datuekin konparatu ahal izan dira oraingoak. Ebaluazio espezifikoaren bidez, berriz, aztertu da batetik, EAEko administrazio publikoek berdintasunaren aldeko klausulak nola aplikatzen dituzten kontratuetan eta diru-laguntzetan, eta, bestetik, nola egin diren EAEko araudigintzan generoaren arabera eragina aldez aurretik ebaluatzeko prozesuak.

Ebaluazioek agerian utzi dute emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko EAEko Legea tresna erabilgarria eta eraginkorra dela eta oraindik ere esparru juridiko baliotsua dela, eta baduela aukerarik aurrera egiten eta berdintasun-politikak sendotzen jarraitzeko. Halaber erakutsi dute herritarrak oso sentsibilizatuta eta kontzientziazatuta daudela berdintasunarekin, eta espiritu kritikoa dutela desberdintasunarekiko. Horrek guztiorrek, beraz, konpromiso politikoa eskatzen du: berdintasuna herri-estrategiatzat hartzearen aldeko konpromisoa.



Izaskun Landaia Larizgoitia
EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria



**LABURPEN
EXEKUTIBOA**

Generoaren arabera eraginaren ebaluazioaren aurretik EAEn egindako Ebaluazio-prozesuaren ebaluazioaren edukiak eta emaitzak aurkeztuko dira, laburki, laburpen exekutibo honetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazio-esparruan, lege hori onartu eta handik 10 urtera.

SARRERA

Generoaren arabera Eraginaren aurretiko Ebaluazioa (GEE) prozedura bat da, eta prozedura horrek, genero-desberdintasunaren egiturazko izaerako ideiatik abiatuta, ahalbidetzen du politika publikoko jardun guztiak –legeria, planak, aurrekontuak, eta abar– modu sistematikoan eta estandarizatuan *ex-ante* aztertzea, jardun horiek emakumeen eta gizonen egoeran izango dituzten ondorioak prebenitzeko, eta, era horretan, beharrezkotzat hartzen diren alderdietan aldaketak sar daitezzen bultzatzeko. EAEko testuinguruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak estrategia integral bat ezarri zuen genero-ikuspegia euskal botere publikoetan sartzeko. Estrategia horren arabera, baliabide hori funtsezko tresnetako bat zen politika publikoak egitean genero-ikuspegia sartzeko.

Dagoen literaturak hainbat erronka eta muga identifikatu ditu, tresna horrek onartutako arauetan duen eragina ahaltzen dutenak. Genero-ikuspegia ezartzeko sistematikotasunean, kalitatean eta eraginean (lotesleak ez direlako) dauden gabeziak dira, berandu egiteagatik eragindakoak, eta, azkenik, tresnaren ikuskera legalistatik eratorritakoak. Hori guztia generoaren *mainstreamingak* berak –zailtasunak biltzen dituen estrategiak– aplikatzeko dituen zailtasunen esparruan, askotan aztertu diren zailtasunak, gainera. EAEko kasuan, azken 10 urte hauetan aurrerapen garrantzitsuak egin dira GEErako xedapenak euskal administrazioetan ezartzeko. Eusko Jaurlaritzarako nahiz Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundietarako ebaluazio-prozesuak eta ebaluazio-ereduak zehazten dituzten Xedapen espezifikoak onartu dira. Hortaz, hamarkada hori igaro ostean, 2015. urteari dagokion legearen ebaluazio-prozesuaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Generoaren arabera eraginaren aurretiko ebaluazio-prozesuaren ebaluazioari buruzko txosten hau egin da.

Txosten honetan balioesten da Generoaren aurretiko Ebaluazioa Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan aplikatu behar ote den; horretarako, toki-eremuan egindako aurrerapenen aipamen labur bat ere egiten da.

Zehazki, honako alderdi hauek aztertzen dira: nola ezarri den, zer emaitza lortu dituen eta zer ondorio izan dituen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna araudian sartzeko garaian.

Metodologiari dagokionez, ebaluazioa, alde batetik, honako honetan oinarritu da: 19 elkarrizketa egin zaizkie aztertutako administrazioetan GEEaren prozesuan sartuta dauden pertsonen. Bestetik, araudia egiteko espediente-lagin bat aztertu da, hala nola arauaren zirriborroa, generoaren arabera eraginari buruzko txostena, berdintasun-organoak egindako egiaztapen-txostena, balego, eta azkenean onartutako araua. Eusko Jaurlaritzarako 150 espediente aztertu dira: espediente horietatik 50 2005. urtekoak dira (onartutako arauak soilik osatzen dituzte, GEEa ezarri aurreko aldia delako), eta beste 100 espedienteak 2010. eta 2015. urtekoak dira. Foru aldundien kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren 8 espediente aztertu dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 17.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA EUSKO JAURLARITZAN

Berdintasunerako Legea ezarri eta handik 10 urtera, Eusko Jaurlaritzak Generoaren arabera Eraginaren Ebaluazioaren bere eredu garatu du. Atal honetan, lehenik eta behin, eredu hori aurkeztuko da eta eredu horren diseinua eta aplikazioa balioetsiko dira. Bigarrenik, eredu hori administrazio horretan ezartzea balioetsiko da, hura benetan praktikan jartzea deskribatuko da eta Emakundek eta egungo araudiak ezarritako ildo nagusiei buruz dauden desadostasun eta aldakortasun nagusiak identifikatuko dira. Azkenik, GEEaren emaitzei eta eraginei buruzko ebaluazioa landuko dugu.

IKUSPEGIA ETA GARAPENA 2005-2015

Eusko Jaurlaritzaren GEEaren ereduak hiru ezaugarri nagusi ditu: zehaztasun-maila handia du, sakona da eta ikuspegi deszentralizatua du.

- Zehaztasuna: zehatza eta benetan aplikagarria izan nahi duen eredu bat proposatzen du. Horretarako, generoaren arabera eraginaren azterketa eta identifikazioa arlo tematiko jakin batetik gidatzen duten gidalerro zehatz batzuk formalizatu dira. Era berean, laguntzeko material batzuk egin dira, hainbat sektore-arlotara aplikatutako tresnak eskaintzen dituztenak.
- Sakontasuna: GEEaren gidalerroek –gaur egun indarrean daudenek– aurreikusten dute arau-xedapenen proiektu orokorrak, hau da, lege-maila edo erregelamendu-maila duten arau juridikoek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan egiten diren administrazio-egintzek generoaren arabera eragina ebaluatzeko prozesu bat izan behar dutela. Hortaz, salbuespen garrantzitsuak proposatzen badira ere, oro har erabaki da ahalik eta arau-xedapen gehienek izatea GEEa.
- Deszentralizazioa: generoaren *mainstreaming* estrategia EAEn bultzatzeko erabili den ikuspegi orokorrarekin bat etorriz, Emakundek bultzatzeko, laguntzeko eta ebaluatzeko zeregina beteko du; aitzitik, eragileek eta administrazioek berdintasun-eremuan proposatutako ildo estrategikoak zehaztu behar dituzte beren terminoetan. Horregatik, araua sustatzeko ardura duten zerbitzuek egin behar dute GEEa; hori dela medio, praktikan lehentasun handiagoa ematen zaio GEEaren kalitateari eragileak ebaluazio hori egiteko gai izateari eta eragile horiek generoari buruz duten ezagutza pixkanaka hobetzeari eta abilezia hori politikak egiteko garaian sartzeari baino.

Deskribatutako ebaluazio-eredu horrek inplikazio argiak ditu GEEa zehazten duten **txostenen** nolakotasunari dagokionez.

- Generoaren arabera Eraginari buruzko Txostenak (GET) Sailak berak egindako dokumentuak dira eta berdintasuna eraginpeko arauetan sar dadin ahalbidetzea dute helburutzat; horretarako, arauaren aplikazio-eremuan berdintasunak duen egoerari buruzko diagnostiko bat eta generoaren arabera eraginari buruzko arauaren ebaluazio bat biltzen dute, eta desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurkeztzen dituzte. Araua egiten duena eta txostena egiten duena eragile bera direla eta eraginari buruzko txostenak arauaren zirriborroan eragina izatea nahi dugula kontuan hartuta, ez dauka zentzu handirik azterketa kritiko hau proposatzeak, ezta neurri berriak proposatzeak ere. Hortaz, txosten honetan arauaren zirriborroan dagoeneko bilduta dauden neurriak nabarmentzen dira batez ere. Horregatik, Emakundek txosten espezifiko baten bitartez egin duen egiaztapena sartu da euskal GEEaren barnean.

- Emakunderen Egiaztapen Txostenen helburua zera da, araua sustatu duen eta GETa idatzi duen organoak GEEa zuzen aplikatu ote duen egiaztatzea eta hobekuntzak proposatzea prozesuan, baita berdintasun-neurri gehigarriak proposatzea ere. Dokumentu horietan, alde batetik, araua aldatzeko proposamen gehigarriak biltzen dira, eta, beste alde batetik, edukiak edo generoaren araberrako eraginari buruzko txostena egiteko prozesua hobetzeko iradokizunak egiten dituzte. Emakunderen Egiaztapen Txostena GETaren jarraipena indartzera eta berdintasun-edukiak sartzen direla bermatzera bideratutako tresna gisa proposatzen da, generoaren alorreko abileziatik abiatuta ikuspegi osagarria emanez sektore-eremuetatik identifikatu denari.

Generoaren araberrako eraginaren ebaluazioa pixkanaka ezarri da aldi berean gauzatu diren **laguntzako mekanismoen** laguntzarekin. Alde batetik, saileko berdintasun-unitateak ezarri dira, unitate horien eginkizunetako bat eraginari buruzko txostenak egiteko garaian aholkuak ematea izanik hain zuzen ere (213/2007 Dekretua). Era berean, prestakuntza-ikastaroak egin dira urtero, laguntza emateko hainbat material sektorial egin dira eta informazioa emateko eta generoari buruzko txostenak artxibatzeko lineako sistema bat jarri da abian.

Ereduaren **bilakaerari** dagokionez, aipatu behar da 4/2005 Legea hedatzeko 2007an gidalerro batzuk onartu zirela; gidalerro horiek aldatu egin ziren 2012an, 2010ean hasi zen eta prozesua sinplifikatzea helburu zuen gogoeta-prozesu baten ondoren. Aldaketa hori azterketa errazago betetzera eta zirkuitua arintzera bideratuta zegoen, baina haren atal estrategiko eta funtsezkoenak alde batera utzi gabe. Alabaina, gidalerro berriek kontuan hartu behar diren bi ondorio eragin dituzte: alde batetik, GETak arau-proposamenean azaltzen diren berdintasun-neurriak erregistratzera bideratzen dituen ikuspegia sendotu dute eta ez dute proposamen berriak egin. Bestetik, egokitasunaren eta generoaren araberrako eraginaren azterketa aurretik definitutako itemen zerrenda batera bideratu dute gehiago; horrek prozesua erraztu dezake, baina, era berean, aukera sorta murriztu dezake eta egon litezkeen beste aukera batzuk kanpo utzi ditzake. Oro har, esan daiteke, 2007az geroztik, GEEa egiteko eredu hori hedatzen eta finkatzen joan dela pixkanaka Eusko Jaurlaritzan, eta egokitzapen batzuk egin direla ezartzeko prozesuak erronka eta zailtasun berriak ekartzen zituen heinean.

GEE-AREN EZARPEN-MAILA EBALUATZEA

Generoaren araberrako Eraginaren Ebaluazio-prozesuan inplikaturako eragileei egindako elkarrizketetatik honako ondorio hauek aterata daitezke ebaluazioa ezartzeko moduari dagokionez:

Nor da eraginari buruzko txostenaren egilea?

- Egun dagoen araudiak argi eta garbi ezartzen du eraginari buruzko txostena egiteko ardura duen eragileak dagokion araua sustatu edo idazten duena izan behar duela. Azterketan agertzen denez, agindu hori Jaurlaritzako oso sail gutxitan bete da sistematikoki, soil-soilik zuzendaritza edo dagokion zerbitzua bi testuak egiteaz arduratzen den sailetan, hain zuzen ere. Ildo horretan, aldakortasun handia dago prozesuan inplikaturako eragileei dagokienez eta eragile horiek betetzen dituzten eginkizunei dagokienez, eta, kasu batzuetan nolabaiteko zehaztugabetasuna dago gai horren inguruan.
- Berdintasun-unitateak betetzen duten zereginari dagokionez, generoaren araberrako eraginari buruzko txostenak egiteko prozesuan zuzendaritzari eta zerbitzuei aholkuak ematea edo laguntzea dago unitate horien eginkizunen artean. Araua edo txostena bera egiten duen organoak eskatuta, berdintasun-unitateak sail gehienetan betetzen ditu aholkularitza-eginkizun horiek, baina, era berean, ikus dezakegu gobernu-zeregin batzuetan, generoaren araberrako eraginari buruzko txostena berdintasun-eragileak egiten duela osorik.

Noiz egin behar da txostena?

Berdintasun-neurriak txertatzeko beharrezkoa da generoaren arabera eraginari buruzko txostena erreferentziako arau-testuarekin batera egitea, txostenaren lehenengo zirriborroak idazten direnean egin behar da.

- Nolanahi ere, egiaztatu da arauaren zirriborro-fase aurreratuan edo behin betiko fasean ekiten zaiola txosten horri gehienetan.
- Txostena egiteko erabiltzen den denbora izugarri aldatzen da dagokion arauaren arabera, baina behin eta berriz nabarmentzen da epeak mugatuak izaten direla eta txostenaren kalitatea denborara eta eskuragarri dauden baliabideetara egokitu behar dela.

Zer eskaintzen dute generoaren arabera eraginari buruzko txostenek?

Berdintasun-neurriak araudian sartzen laguntzeaz gain, GETek bi helburu nagusi dituzte: administrazioaren ohiturak aldatzea eta ikaskuntza eta sentsibilizazioa sortzea.

- Lehenengo helburuari dagokionez, azterketan berresten da txostenak derrigorrezkoak izateak ekarri duela txosten horiek araua egiteko prozesuan nahitaez sartu behar izatea eta, beraz, langile guztien (teknikariak eta politikoak) lan-ohituren zati bihurtu dira.
- Aipatzen da sentsibilizatzeko eta ikasteko helburuak ere lortu direla. Ikusten da eraginari buruzko txostenen tresna hamar urtean praktikan jarri izanaren ondorioz berdintasunaren sustapenean eragile kopuru handia (gero eta gehiago) inplikatzeko lortu dela, eta berdintasunaren alorreko prestakuntzari buruzko eskaera nabarmen handitu dela; horregatik, gero eta gehiago uste da ezinbesteko abileziako alorra dela edozein sektore-eremutarako.

Alabaina, hainbat muga ere detektatu dira:

- Txostenaren aplikazio mekanikoa egiten da, eta, horrenbestez, esku-hartze publiko buri buruzko gogoeta-ahalmena galdu egiten da.
- Txostenaren testua txostena egiten inplikaturik dauden eragileetatik haratago zabaltzen ez denez, ikaskuntza sortzeko duen gaitasuna ez da araugintzan inplikaturik dauden langile guztiengana iristen.
- Txostenen edukiari ez zaio sartutako neurriei dagokienez edo diagnostikoari dagokienez egindako hobekuntzei buruzko argazki orokorra izatea ahalbidetuko duen jarraipenik egiten.
- Gobernuak hainbat arlotan araugintza-maila oso mugatua da, eta, hortaz, eraginari buruzko txostenen tresnak ezin du berdintasunaren alorreko abileziarik edo sentsibilizaziorik sortzen lagundu.

Zer eskaintzen dute egiaztapen-txostenek?

Egiaztapen-txostenak funtsezko tresna izan beharko luke eraginari buruzko txostenen kalitatea bermatzeko eta txostenaren sartutako gomendioen bitartez nolabaiteko ikaskuntza sortzeko. Dena den, praktikan, egiaztapen-txostenen erabilera izugarri aldakorra da: kasuen erdietan baino gehiagotan edo izapide hutsa den egintza dira edo ez dakite zein diren txosten horien eginkizunak eta zer ekarpen egiten duten. Hortaz, araudia hobetzeko

egiten duten ekarpena zalantzazkoa da gutxienez. Dena den, nabarmendu behar da hiru sailek emandako adibideek adierazten dutela epe luzerako ikaskuntza sortzeko nolabaiteko ahalmena duela.

Zein dira detektatutako eragozpen nagusiak?

Mainstreamingeko beste tresna batzuekin gertatzen den bezala, generoaren arabera eraginari buruzko txostenak ezartzeko prozesuak, baita txosten horien eraginak ere, eragozpen orokorrei eta espezifikoiei egin behar die aurre.

- Eragozpen orokorrei dagokienez, nabarmendu behar da sail batzuk hain handiak direnez, zaila dela berdintasun-eragileak *mainstreaminga* bultzatzeko betetzen duen zeregina eraginkorra izatea. Gainera, langileak txandakatzeak zaildu egiten du genero-ikuspegia lan-eremu bakoitzean sartzeko moduari buruzko ezagutza ez ezik, tresna jakin batzuei buruzko ezagutza ere (eraginari buruzko txostenena, adibidez) metatzea. Azkenik, erabakigarria da sail guztietako arduradunek berdintasunarekin konpromiso politikoa hartzea helburu hori legitimatzeko eta zeharkasari dadin sustatzeko.
- Eragozpen espezifikoiei dagokienez, honako hauek aipatzen dira: txostenak idazten dituztenek ez daukate behar adinako *abileziarik*; gidalerroetan aurreikusitako *plantillaren konplexutasunaren* ikuskera; *diagnostikoa* egiteko, sexuaren arabera banakatutako datuak edo generoari buruzko informazioa lortzeko muga esanguratsuak izatea; araua egiteko prozesuan txostena berandu egitea, eta horrek eragiten du arauan aldaketa txiki batzuk soilik sartzeko aukera izatea. Azkenik, guztiek ez dute beti argi izaten eraginari buruzko txostenen azken *helburua* zein den, eta hori txostena ezartzeko erresistentziak sortzen laguntzen duen elementu bat izan daiteke.

Maila politikoago batean eragozpen gisa azaltzen da azterketaren *xedeak* ez duela ematen behar bezain zabala denik, ez baititu funtsezko tresnak hartzen, esate baterako, jardun-plana. Era berean, nahiz eta arau-esparruaren babesa izan, ematen du generoaren arabera eraginari buruzko txostenek ez dutela legegintza-prozesua osatzen duten beste txosten batzuek duten legezkotasun-maila bera eta ez direla lotesleak.

Azkenik, arestian adierazi dugunez, mugak daude ikaskuntzan: eraginari buruzko txostenek antolaketa-ikaskuntza mugatua sortzen dute. Lehenik eta behin, txostena egiten esku hartzen duten eragileen kopurua txikia delako –batzuetan berdintasun-eragileak soilik, besteetan arauaren ardura duten zuzendaritzetako langile jakin batzuk, eta beste batzuetan zerbitzu juridikoak, eta abar–. Bigarrenik, ez delako txostenaren edukiari edo eraginari buruzko etengabeko jarraipenik egiten txosten berriak aurreko esperientzietatik abiatzeko edo hobetzeko irizpideak edo estrategiak ezartzeko.

Eragina ebaluatzeko tresnak aztertutako espedienteak oinarri hartuta aztertzeari dagokionez, txosten honek errealitate desberdinak ditu ezarpenari dagokionez, nahiz eta bi kasuetan argi eta garbi identifikatzen den ikasteko eta genero-edukiak araudian sartzeko gaitasuna hobetzeko prozesua dagoela:

Generoaren arabera eraginari buruzko txostenak

- Nabarmen aldatu dira aztertutako aldian. Hori gertatu da, lehenik, txostena betetzeko Gidalerroak aldatu direlako, baina baita aurreko ataletan aipatutako erakunde-ikaskuntzarengatik ere.

- GETen barnean diagnostiko bat dago, kasu gehienetan ez du araurako informazio garrantzitsurik ematen, baina horrek erakusten du aztertutako aldian hobekuntza izan dela.
- Halaber, generoaren araberako eraginari buruzko balioespen bat ere sartzen dute; GEEaren metodologian eragindako ikaskuntza erakusten duen funtsezko elementua da, IX. legegintzaldian txosten gehienetan ez baitzen beren arauari buruzko generoaren araberako eraginik identifikatzen, baina X. legegintzaldian, ordea, egoera hori oso kasu gutxitan gertatzen da. Bestalde, eragin bat identifikatzen duten txosten gehienetan ustez positiboa da, okertasun bat erakusten dute kontzeptu-arrazoiengatik edo txosten horiek egiteko prozedurarekin eta zirkuituarekin lotuta egon daitezkeen arrazoiengatik izan daitekeena. Askotan nahasi egiten da berdintasun-neurriak izatea arauak bere osotasunean berdintasunerako eragin positiboa izatearekin.

Emakunderen Egiaztapen Txostenak

Egiaztapen-txostenen azterketak erakusten du txosten horiek ederreki betetzen dituztela beren bi helburu nagusiak: araua aldatzeko proposamenak egitea eta generoaren araberako eraginari buruzko txostenak hobetzeko iradokizunak egitea. Ia EET gehienek gomendatzen dute hobekuntzak egitea GETan eta egiaztapen-txosten gehienetan proposatzen dute araua aldatzea.

- EETak GETari egiten dizkion gomendio gehienak edukiei buruzko funtsezko gaietan daude oinarrituta gai formalean edo prozedurazkoetan baino gehiago; horrenbestez, horri buruzko irakurketa positiboa egin daiteke ezarritako prozedura sendotzeko adierazletzat har daitekeelako.
- Arauari buruzko proposamenei dagokionez, ikusi dugu gidalerroek ezarritako proposamen motei jarraikiz, Emakunderen egiaztapen-txosten gehienek genero-ikuspegia arauan sartzeari buruzko neurriak –araua aplikatzerakoan eta hari jarraipena egiterakoan berdintasuna indartzeko neurri osagarriak– proposatzen dituztela, eta kasu gutxiagotan proposatzen dituztela testuan sartzeko berdintasun-neurri zehatzak. Araua hobetzeko proposamenak aztertutako bi aldietan egiten dira, nahiz eta (neurri osagarriak izan ezik) gehiago egiten diren 2010ean 2015ean baino; horrek berriro ere erakusten digu tartean sartutako eragilearen ikaskuntza-prozesu bat behar dela araua eta generoaren araberako eraginari buruzko txostena idazteko garaian.

EMAITZEN EBALUAZIOA ETA GEE-AREN ERAGINAK

Onartutako araudiaren berdintasun-edukietan GEEak duen eraginari dagokionez, azterketak emaitza positiboak ematen ditu.

- Egiaztatu da berdintasunaren alorrean jardunak txertatu direla orokorrean, eta txertatze horrek edozein arau motari eragiten diola, garrantzi handiena eta eragin potentzial handiena dutenak barne.
- Gainera, azterketa longitudinalari esker ikus dezakegu denboran zehar hobekuntza izan dela; izan ere, berriro ikus daiteke erakunde-ikaskuntza dagoela eta genero-ikuspegia gero eta gehiago sartu dela, baina oraindik ere bide luzea dugu egiteko txertatze sistematikoa lortzeko eta genero-desberdintasunaren funtsezko elementuak eta egiturazko elementuak lantzeko.

Sartu diren neurrien garrantzi eraldatzailea, ordea, oso mugatua da oraindik, oso arau gutxi egin baitituzte anbizio nabarmena edo esanguratsua duten proposamenak. Horrek esan nahi du inplikaturako eragileen azterketa-gaitasunak indartzen jarraitu behar dela, baita garrantzi handiagoa duten proposamenak egin eta sar daitezen indartu behar dela ere.

Neurri mota espezifikoki dagokionez, ikusten da ohikoena zera dela, Berdintasunerako Legean aurreikusitako neurriak sartzea araugintzan, baina oso kasu gutxitan sartzen dira berdintasunari buruzko erreferentzia esplizituak edo berdintasunarekin lotutako helburuei buruzkoak; era berean, hain estandarizatuta ez dauden beste modu batzuk eta modu berritzaileago batzuk edo genero-ikuspegia arauan sartzeko kasu jakin batzuetara egokitzen diren beste modu batzuk ere badaude.

Azkenik, adierazi behar da egiaztatu ahal izan dela GEEaren prozesu beraren eragin zehatzak garrantzia galdu duela denboran zehar. Ildo horretan, ikusten da IX. legegintzaldian onartutako arauak iragazkorragoak zirela izapidetze-prozesuan, aldaketa gehiago pairatzen zituztelako, eta, beraz, GEEaren eragin handiagoa zuten; izan ere, denboran zehar, arauaren zirriborroak berak berdintasunari buruzko eduki gehiago biltzen zituen hasieratik. Horregatik, txostenean proposatzen da ezinbestekoa dela urrats bat aurreago egitea eta GEEa neurri eraldatzaileak sar daitezen bideratzea, Berdintasunerako Legean aintzat hartzen diren neurriak gainditzen dituzten eta onartutako araudiaren edukia eta helburuak zalantzan jartzea ekarriko duten neurriak, alegia. Horri esker, saihestu ahal izango litzateke GEEaren ezarpena ohiko bihurtzea eta ebaluazio horrek aldatzeko duen gaitasuna mugatzea.

Inplikaturako eragileengan duen eraginari dagokionez, GEEaren prozesuak erakutsi du gaitasun nabarmena duela administrazio-ohiturak aldatzeko. Halaber, ikusi da gobernu-arloetako langileen artean ikaskuntza eta sentsibilizazioa sortzeko gaitasuna duela. Izan ere, ahalbidetu du berdintasun-politikak ezartzeko prozesuan lehen politika horietatik kanpo zeuden eragileak sartzea. GEEa garrantzitsua da, halaber, berdintasun-eragileek zeharkakotasuna lortzeko lanetan betetzen duten zereginari dagokionez.

Dena den, emaitzei eta eraginei dagokienez, bi erronka garrantzitsu identifikatu dira: alde batetik, legearen aplikazio teknikoarekin batera nolabaiteko berrikuntza-maila izan behar da politikak generoaren ikuspegitik berrikusteko garaian. Ez da aurkitu GEEa, sistematikoki, garatutako araudiaren edukia erabat zalantzan jartzen duen eta hasieratik berriz pentsatzea ekarriko duen adierazle sendotik eratortzen dela erakusten duen adierazle sendorik. Horrenbestez, legean aurreikusitako berdintasun-neurri berriak sartzeak arrakasta handia izan du, baina emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko agenda politikoari lehentasuna ematea oraindik finkatzeko dagoen helburu bat dela esan behar da. Muga mota hori bat dator aurreko azterlanetan detektatu diren *mainstreaming* estrategiaren ahulezia orokorrekin; izan ere, arestian adierazi dugunez, azterlan horietan aipatzen da estrategiak zailtasunak dituela politika sektorialetan oinarritzko aldaketak sortzeko edo agenda politikoa modu zabalean birbideratzeko.

Bestalde, generoaren arabera eraginari buruzko txostenak araudia egiteko prozesuaren barneko beste tresna bat balira bezala finkatu dira. Horren ondorioz, osagai juridiko handia du prozesuari eta egiturari dagokionez. Horrek txostenen sistematikotasunari laguntzen dio, baina araudian eragiteko gaitasunari dagokionez mugak sortzen ditu. Gauzak horrela, ikus dezakegu tresna eraginkorra dela Berdintasunerako Legea ezartzen laguntzeko, baina zailtasun gehiago ditu sektore-arlo bakoitzean genero-desberdintasunei buruzko eztabaida zabala sortzeko eta helburuak nahiz jarduteko ikuspegiak aldatzeko premia du. Horrek teknokratizazioarako duen betiko joera erakusten du, aztertu diren beste kasuetan ere aipatu den joera, alegia.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA FORU-ALDUNDIETAN ETA TOKI-EREMUAN

Araugintzaren generoaren araberako eraginari buruzko ebaluazio bat egiteko betebeharrak foru-erakundeetara eta toki-erakundeetara hedatzen da; izan ere, Berdintasunerako Legean aipatzen denez, erakunde horiek beren eskumenak betetzeko, beren antolamendu- eta funtzio-premietara eta haien arauen ezaugarri diren berezitasun formal eta materialetara egokitu beharko dute prozedura. Hortaz, ezarritako esparruaren barruan, foru aldundi guztiak genero-zeharkakotasuna ezartzeko eta berdintasunerako era askotako gobernantza-tresnak –hainbat modutan eta hainbat erritmotan garatu direnak aldundi bakoitzaren lehentasunen eta ezaugarrien arabera– abian jartzeko beren ibilbidea garatu dute. Eusko Jaurlaritzak zehaztasunari, sakontasunari eta deszentralizazioari buruz duen ikuspegia hartu dute Aldundi guztiek gaingiroki; hau da, araudia sustatzen duten unitateen aldeko apustua egin dute, esate baterako, GEEa egiten duten eragileen aldeko apustua, berdintasuneko zuzendaritzen eta zerbitzuen aholkularitzarekin eta laguntzarekin, eta azterketen kalitatea eta eragina pixkanaka hobetzeko nahiaren aldekoa. Lurraldeen arteko aldeak sortzen dira aholkularitza hori zehazteari dagokionez eta Eusko Jaurlaritzan ezarritako ereduaren garapen-mailari dagokionez. Aldundi guztiek eredu analitikoa sinplifikatzea aukeratu dute, eta hori oso estrategia baliagarria izan daiteke ezagutzak eta barne-trebakuntza sortzeko, baina Generoaren araberako eraginaren ebaluazio-prozesuari legezkotasun eta ikasteko gaitasun txikiagoa emateko arriskua du. Jarraian, foru aldundi bakoitzak egindako azterketaren emaitzak azalduko ditugu laburbilduta.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

GEEaren erregulazio formalik ez dagoenez, erakunde horrek hurbileko eta eguneroko aholkularitzan oinarritutako prozesu baten aldeko apustua egin du eta prozesu horrek erakutsi du oso baliagarria dela; izan ere, prozesuan parte hartu duten pertsonak gaur egun arauaren alde egotea eta mota horretako klausulak sartzeko premia ekarri du. Indar gisa aipatu behar da egindako prozesuak oinarriak jarri dituela erakunde-arloko kultura aldatzeko administrazio-prozedurei dagokienez, eta hiru prozedurei eusten dieten dokumentu askotan berdintasun-klausulak benetan txertatzea lortu da. Era berean, behar adinako trebakuntza duten funtzionario talde bat dago eta bi prozesu horiei laguntzeko bi oinarritzko tresna garatu dira. Azkenik, elementu positibo gisa garrantzitsua da aipatzea Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasuna Zerbitzua Aldundiaren egituraren kokatuta dagoela gaur egun.

Alabaina, aurkitu diren zailtasunen artean honako hauek nabarmendu behar dira: inertzia nagusitzen da eta berdintasun-printzipioa administrazio-prozeduretan sartzeari ohi-tura bihurtu da. Gainera, jarraipena egiteko sistemarik ez dagoenez, ezin da behar den informazioa lortu klausulak sartzearen eta egokitzapenak egitearen bilakaera zein den jakiteko. Eta, ereduari dagokionez, esan dezakegu esparru juridikorik ez izateak mugatu egin duela GEEa ezartzea. Gainera, ez dago behar adinako baliabiderik eta egiturarik *mainstreaming* estrategia osorik foru-erakundean zabaltzeko. Horren ondorioz, GEEaren garapenak beste foru aldundi batzuetan baino erritmo geldoagoak izan ditu.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Esan behar da GEEa Bizkaiko Foru Aldundian ezarri den lehenengo bi urteak positiboak izan direla. Txostenen idazkuntza normalizatu da eta tresna hori arauak sortzeko errutinan txertatu denez, pertsona askoren lan-ohituretan izan du eragina, nahiz eta tresnaren kalitatea hobetu behar den. Horretarako, etorkizuneko garapenaren helburu nagusia sailak tresnaren jabe egitea da, eta, ondoren, azterketa nahiz gogoeten sakontasuna sendotzea eta hobetzea. Aurrerapen horiek desberdinak izan dira eskumen-arloaren arabera. Gainera, oraingoz, langileek ez dute behar adina ikusten tresna horren baliagarritasuna araudiari buruzko azterketa, gogoeta eta hobekuntza egiteari dagokionez, nahiz eta aholkularitza-prozesuan helarazten zaien GEEak zentzu horretan eduki dezakeen eragina.

Tartean sartutako pertsonen borondatea –eta bereziki zerbitzuko zuzendariena eta buruena– alderdi garrantzitsua da GEEaren kalitateari eta hobekuntzari dagokionez. Azken urte hauetan egindako ibilbidea aintzat hartzen badugu, esan dezakegu teknikiariak –eta politikariak ere bai– hasi direla tresnaren ahalmena identifikatzen; horregatik, tresna hori prozesuan inplika dadin bultzatzen jarraitu behar da. Nolanahi ere, GEEaren prozesua sendotu behar da; horretarako, jarraipena egiteko sistema indartu behar da eta modu zehatzagoan egituratu behar da. Ildo horretan, aurreikusten da gobernantza-egitura handiagoa daukan foru-arau bat onartzen bada eta sail bakoitzean berdintasunaz arduratuko diren giza baliabideak eta mekanismoak argitzen badira, GEEaren eragina indartu egingo dela.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Administrazio horrek, gure ustez, hiru alderdi sendo garrantzitsu dituen metodologia bat garatu du: GETa itzultzeko aukera, egokitasunari buruzko atal bat izatea eta generoaren araberako eraginari buruzko balioespen global argudiatu bat egiteko atal bat izatea. Dena den, generoaren egokitasuna identifikatzea zalantzak sortzen dituen eta sail batzuetan oraindik behar bezala onartu ez den gaitzat hartzen da. Era berean, aipatu da teknikariek zailtasunak dituztela beren departamentuak sustatutako araudietan generoaren araberako eragin negatiboa identifikatzeko. Gainera, bi ahulgune potentzial daude, eta ahulgune horiek sakondu beharko lirateke. Alde batetik, egiaztatu da Generoaren araberako Eraginari buruzko Txostenetan eta Egiaztapen Txostenetan ez dela artikuluei buruzko azterketa sakonik egiten, eta, bestalde, ez dela artikuluetan aldaketak egiteko proposamen zehatzik egiten.

Nolanahi ere, esan daiteke GEEaren prozesua pixkanaka finkatu dela Gipuzkoako Foru Aldundian. Hasiera batean eragin-txostenak egiten ziren, departamentuek eskatzen zutenaren arabera ematen zen aholkularitza eta proposamenak egiten ziren sistematikoki ez bazen ere. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arau berriak egiaztapen-prozesu arautua ezartzen duenez, GEEak legezkotasun handiagoa hartu du. Egoera berri horretan ibilbidea laburra den arren, lan-ildoak lineala eta argia izan da. Identifikatu da berdintasun-erakundeak erakunde-arloan pisu handiagoa izateak eta araudia egiteko prozesuan parte hartzeko aukera izateak ekarri duela onarpen eta aginpide gehiago izatea, eta departamentuen jarrera proaktiboa sortu du.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA TOKI-EREMUAN

Toki-eremuan, oro har, generoaren araberako eraginaren ebaluazioa garatzeko dago oraindik, Bilboko Udalean bakarrik egin baita GEEak egiteko adierazleen gida sakon bat. Orokorrean esaten da GEEa berdintasun-politiken toki-eremuko zeharkakotasuna lortzeko ahalmen handia duen tresna dela, baina egun dauden baliabideek zaildu egiten dute GEEa praktikan jartzea.

Gaur egun, Emakunde eta Erakundearteko Batzordea prozesu espezifiko bat egiten ari dira hiriburuen eta udal txiki eta ertainen partaidetzarekin GEEa toki-eremuan modu sinplifikatuan nola ezar litekeen eta hura ezartzeko tresna egokiak zein izango liratekeen balioesteko.

ONDORIO OROKORRAK

Hiru gobernu-maila desberdinen ondorioak alderatzeko zailtasunak badaude ere, garrantzitsua da guztientzat garrantzitsuak izan daitezkeen ondorio orokor batzuk proposatzea:

- EAEn generoaren araberako Eraginaren aurretiko Ebaluazioa ezartzeko eta finkatzeko prozesuan dago. Bere potentzialtasun osoan garatu ez bada ere, araugintza-prozesuan modu sistematikoan txertatzea lortu da. Berdintasunerako Legea ezar dadin bultzatzeko potentzialtasun handia duen tresna da.
- GEEaren prozesua politikaren edukiei buruzko azterketa eta gogoeta egiteko tresna garrantzitsu bat da. Nolanahi ere, generoaren araberako eraginaren diagnostikoa eta ebaluazioa lantzeko konplikatuena den prozesuaren zatiak dira, eta trebatzeko eta laguntzeko prozesu jarraitu bat behar du bere ahalmena erakusteko eta eraldatzeko gaitasunik ez duen izapide ez bihurtzeko eta ondorio gisa politiken edukien berrikuspen integrala eman ahal izateko.
- GETek arauaren zirriborroan sartuta dagoena erregistratzen dutenez, ez dago garbi zenbateraino den berrikuspen kritiko bat; hau da, arau baten diseinuaren *ex ante* ebaluazio bat. Hortaz, nolabaiteko adostasunik eza dago eraginaren ebaluazioaren logikaren eta euskal ereduaren artean. Beraz, egokia izango litzateke eraginaren ebaluazioaren hasierako une hori argitzea eta ikasteko eta berrikuspen kritikoa egiteko elementuak indartzea.
- Kontuan hartu diren kasuetan, Egiaptapen Txostenek arauaren *ex ante* ebaluazio kritikoa egiteko eginkizuna indartzen dute, eta, gainera, GETen edukiak egiaztatzen dituzte. Baina arau-prozesuaren beranduko une batean izaten direnez, arauan proposatutako aldaketak sartzea zaildu egiten du.
- Gehien sartzen diren berdintasun-neurriak dagoeneko araudian jasota daude-nak dira. Desberdintasunaren alderdi egiturazkoenak lantzen dituzten jardun berriak sektore-eremu bakoitzean sartzea oraindik indartu behar den eta generoari buruzko azterketa egoki bat behar duen zeregin bat da.
- Ikusten da departamentuen eta sektore-eremuen artean desberdintasunak dau-dela inplikazio-mailari, sentsibilitateari edo ezartzeko erakunde-egiturei dagokie-nez, besteak beste.

- GEEan detektatu den erronka nagusietako bat prozesuaren finkatzea bere teknokratizazioaren eta errutinizazioaren bitartez gauza dadin saihestea da: ez da izapide huts bat balitz bezala egin behar, baizik eta politiketako edukiak eraldatzeko eta eduki horien kalitatea hobetzeko modu gisa. Prozesu horretan, funtsezkoa da GEEaren tresnak zertarako balio duen ulertzea.

GOMENDIOAK

EZARPEN-PROZESUARI BURUZ

- Inplikaturako eragileek **informazioa eskuratzeko aukera hobetzea** prozedura hobetzeko, erakunde-ikaskuntza indartzeko eta generoaren arabera eraginaren ebaluazioaren kalitatea eta eragina areagotzeko.*
- Eusko Jaurlaritzaren kasu espezifikoan, **saileko berdintasun-unitateen zeregin proaktiboa indartzea** bere sailetako langileen aholkularitzari dagokionez, GETen kalitatea hobetzeari dagokionez eta inplikaturako eragileen ikaskuntzari dagokionez.*
- Ezartzen lagunduko duten mekanismo**ei jarraipena ematea, eta mekanismo horiek dibertsifikatzea eta finkatzea.*

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOARI BURUZ

- Generoari buruzko azterketaren kalitatea eta sakontasuna ez ezik**, diagnostikoaren, eraginari buruzko ebaluazioaren eta proposaturako neurrien arteko **trinkotasuna ere indartzea**.*
- Generoaren arabera eraginaren ebaluazioan sakontzea**, arauaren ebaluazio globala eta berdintasun-neurriak sartzei buruzko balioespina bereiziz.*
- Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eragina ebaluatzeko gaur egun indarrean dagoen galde-sorta edo **txantiloia sinplifikatzea eta egokitzea**.*

GEE-AREN EMAITZEI ETA ONDORIOEI BURUZ

- Proposatutako eta sartutako **berdintasun-neurrien aniztasuna, espezifikotasuna eta zehaztasuna hobetzea**, baita neurri horien eraldatze-maila indartzea ere.*
- Eusko Jaurlaritzaren kasuan, berdintasun-neurriak identifikatzeko gaur egun indarrean dagoen galde-sorta edo **txantiloia sinplifikatzea eta egokitzea**.*
- GEEko prozesuari buruzko **gogoeta egiteko, ikasteko eta hobetzeko mekanismo sistematikoak** ezartzea txosten berriak aurreko esperientzietan gehiago oinarri daitezen eta hobetzeko irizpideak edo estrategiak ezar daitezen sustatzeko.*
- GEEaren prozesua hedatzea eta finkatzea** egoera aniztasunari eta dauden konplexutasun-maila desberdinei erantzuteko gaur egun formalki ezarrita dauden prozeduretatik haratago.*

1

SARRERA

Genero-*mainstreaming*a asmo handikoa eta eraldatzailea denez, estrategia hori betetzeko, prozesu politikoan eragina izatera bideratuta dauden tresna espezifikoek garapena hartzen du oinarritzat. Araudiaren Generoaren arabera Eraginaren Ebaluazioa (aurrerantzean GEE) da ebaluaziorik ohikoena. Ebaluazio horren jatorria ingurumen-politiketan dago, baina 90eko hamarkadaren erdialdean genero-politiketara egokitu zen, bereziki Connie Roggebandek eta Mieke Verlook Holandako politika publikoak aztertzeke diseinututako metodologiatik aurrera (2006). Genero-harremanak egiturazkoak direla oinarritzat hartuta, egile horiek politikak *ex-ante* ebaluatzeke metodologia bat diseinatu zuten. Metodologia horren bitartez esku-hartze publiko jakin batek emakumeen eta gizonen egoeran zer ondorio izan zitzakeen aurreikus zitekeen. Helburua zera zen, politika publikoko jardun guztiak –legeria, planak, aurrekontuak eta abar– generoaren ikuspegitik aztertzea ahalbidetuko zuen prozedura sistematiko eta estandarizatu bat ezartzea eta beharrezkotzat jotzen zen hartan aldaketak egitea.

GEEa asko hedatu da Espainiako testuinguruan; izan ere gobernu zentralak eta hamalau autonomia-erkidegok sartu dute GEEa –Generoaren arabera Eraginari buruzko Txostenak (aurrerantzean GET) egitean gauzatu da– legegintza-prozesuan edo politikak egiteko prozesuan (Alonso, 2015). Tresna horren hedapena handia izan bada ere, hainbat desadostasun daude bere erregulazioari buruz eta hura gauzatzeko moduari buruz. Honako arlo hauetan ikus daitezke desadostasunak, besteak beste: zer erakunde arduratuko den txostenak egiteaz (berdintasuneko erakundea, araua proposatzen duen saila, edo biak), zenbaterainoko zehaztasunez arautu den txostena egiteko prozesua, zenbat arau eta zer arau mota aurkeztu behar diren eraginari buruzko txostenarekin batera eta derrigortasun hori zenbateraino betetzen den benetan.


Oraindik oso azterlan gutxi heldu diote zehatz-mehatz GEEa abian jartzeari. Hala eta guztiz ere, Gobernu zentralari (Pujol, 2005; Gil, 2012), Kataluniari (Alonso, 2013), Galiziar (Alonso et al., 2010) eta Euskadiri (Silvestre et al., 2014) buruz egindako azterketei esker, joera orokor batzuk identifikatu ahal izan dira, ebaluazio mota hori Espainiako testuinguruan txertatzeari dagokionez zer lorpen eta erronka izan diren adierazten dituztenak.

Aurrerapenei dagokionez, egiaztatu da eraginari buruzko txostenen ezarpen-maila arrazoi-zkoa dela, txosten horiek egitea sistematizatuta baitago araudiaren zati garrantzitsu batean. Era berean, ezarpen-ereduari dagokionez, nabarmen zehaztuta dagoenez, funtsezko elementuak ezarri dira, hala nola txostenak egiteko ardura duen erakundea, eraginpean hartzen diren arauak, txostenaren ereduak, eta abar, eta horrek guztiak haiek finkatzea ahalbidetzen du. GETak berdintasuneko erakundeak egiten dituen kasuetan ikusten da indize horiek derrigorrezkoak ez diren jardunei ere (gobernu-planak, -txostenak, -akordioak eta abar) egiten zaiela *ex-ante* berrikuspen mota hori (Alonso, 2013; Alonso et al., 2010).

Alabaina, egindako azterlanetan ikus daiteke GEEa ezartzea eragozten duten eta onartutako arauetan izatea ahultzen duten erronka batzuk daudela:

- a) *Sistematikotasuna*: GEEa egiteari dagokionez araudia betetzen ez dela erakusten duten adibide batzuk daude, bereziki gobernu zentralaren kasuan, praktikan zalan-zan jarri baita tresna ezartzeko derrigortasuna betetzea.
- b) *GEEaren kalitatea*: txostenen kalitatea eta eraginari buruzko azterlanaren sakontasuna erronka garrantzitsuak dira oraindik ere, baita ebaluazio horiek berdintasuneko erakundeak egiten dituenean ere. Diagnostiko inklusiboak eta aztertutako araudira egokitutako diagnostikoak sartzeari hainbat kasutan ikusten den ahulezia gisa agertzen da.
- c) *Txostenen eragina*: txostenen edukia loteslea ez denez, ikerketen funtsezko ardatzetako bat ebaluatutako politiketan duten eragin-maila zein den zehaztea izan da. Egiaztatu ahal izan da erresistentziak daudela gobernuko arlo jakin batzuen aldetik, arlo horiek beren araudian aldaketak egitea onartzen ez dutelako, baita proposamen mota jakin bati dagokionez ere (derrigortasun-mailaren arabera, lantzen duten eremuaren arabera, eta abar), azkenean onartutako arauetan sartzeari uko egin behar izan zaio neurri handi batean. Hortaz, badirudi onarpen-maila handiena duen neurria hizkuntza sexista berrikusteari buruzkoa dela, eta garrantzi handiagoa edo itxura eraldatzaile handiagoa duten beste neurri batzuk, aldiz, gehiagotan baztertu dira.
- d) *Egiteko unea*: egiaztatu da GETak legegintza-prozesuko beranduko une batean egiten direla, araua aldaketa esanguratsuak egitearekin lotuta ez dagoenean; bezaraz, eraldatzeko gaitasun oso txikia dute.
- e) *Ikuskera legalista*: GETak hertsiki lotuta daude araudia egiteko prozesuarekin. Emaizta gisa, tresnak hainbat joera ezarri dituen eredu legalista batera egokitu behar izan du. Joera horiek honako hauek dira: dagoeneko arau-esparruaren zati diren neurriak azpimarratzea –askotan biltzen dira berdintasun-legeetan– edo txosten juridikoen antzeko txosten-ereduak erabiltzea. Era berean, GEEaren eredu horren orientazioak funtsezko zeregina ematen die zerbitzu juridikoei; izan ere, kasu askotan zerbitzu horiek txostena jasotzen dute, txosteneko proposamenen eta arau-esparruaren arteko bateragarritasuna ebaluatzen dute eta txostena onartzeko erabakian eragiten dute; litekeena da horrek guztiak ez erraztea politiketako funtsezko edukiak eraldatzeko aukera.

1. IRUDIA. GEEa Espainiako testuinguruan ezartzeko erronka espezifikoak laburpena



Identifikatutako erronkak bat datoz Holandako kasuari buruz aurkitutakoekin; litekeena da kasu horrek izatea literatura espezifiko gehien. Kasu honetan aipatzen da GEEa

arau-prozesuaren beranduko fase batean aplikatzen dela, araudia ez du sakonki zalantzan jartzen –erresistentzia handiagoak sortzen dituzten gaiak daude– eta, azkenik, teknikariek duten zeregina oso garrantzitsua denez, funtsezkoa da teknikariak trebatzea eta berdintasunarekiko konpromisoa hartzea (Roggeband eta Verloo, 2006; Verloo, 2001).

GEEa ezartzeko dauden muga espezifikoetatik haratago, garrantzitsua da adieraztea estrategia horrek aurre egin behar diela genero *mainstreaminga* gauzatzeko literatura espezializatuak detektatutako erronka orokorreire¹. Besteak beste, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- a) *Eragina*: muga nagusietako bat ez gauzatzeari buruzkoa da; izan ere, *mainstreaminga* modu erretorikoan hartzen da, baina eragin txikia du erakundearen errutinetan nahiz emaitzetan (oinarrizko aldaketak politikan, arauetan eta abar).
- b) *Teknokratizazioa*: estrategiaren aplikazioa, askotan, ‘espedientea betetzeko’ egiten den beste administrazio-prozedura bat gehiago da. Ondorio gisa, desberdintasunei eta desberdintasunek politika sektorialetan duten eraginari buruzko eztabaia sortu ordez politika sektorial horiei buruzko gutxieneko berrikuspen bat egiten da, baina berrikuspen horrek oso gaitasun txikia du genero-desberdintasunen elementu nagusiak eraldatzeko.
- c) *Eraldaketa*: eraldatzeko duen gaitasuna ere mugatua da. Alde batetik, *mainstreamingak*, askotan, zailtasunak ditu aldaketa sakonak egiteko –adibidez, aldaketak agenda politikoan– eta estrategia horren eragina lehendik dauden politikan aldaketa txiki batzuk egitera mugatzen da, baina aldaketa horiek ez dituzte haren helburuak edo diseinua berriz bideratzen. Bestalde, genero-ikuspegiaren politikak berrikusteak ez dakar, nahitaez, genero-estereotipoak zalantzan jartzea edo berdintasun-kontzeptu eraldatzailea hartzea. Aitzitik, oso ikuspegi desberdinak daude berdintasuna zer den eta berdintasuna nola lortu behar den dagokionez; horregatik, ezinbestekoa da aztertzea zer ulertzen den genero-ikuspegia arlo edo administrazio jakin batean sartzeari esaten denean erronka horri erantzun ahal izateko.
- d) *Erresistentziak*: *mainstreaminga* gauzatzen oso eragile desberdinek parte hartzeak eragiten du estrategia hori ezartzeko erresistentziak izatea. Erresistentzia horiek erakunde-arlokoak nahiz indibidualak izan daitezke, eta izaera esplizitua edo inplizitua dute. Ezinbestekoa da erresistentzia horiek identifikatu eta arintzea, estrategia benetan gauzatzeko.

2. IRUDIA. Genero-mainstreaminga ezartzeko erronka nagusien laburpena



¹ Ikus Bacchi eta Eveline, 2003, Daly, 2005, Squires, 2005, Stratigaki, 2005, Verloo, 2005, edo Walby, 2005, Lombardo eta Mergaert, 2013, adibidez.

EAEko testuinguruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak estrategia integral bat ezarri zuen genero-ikuspegia euskal botere publikoetan sartzeko. Estrategia horren arabera, alderdi nagusia generoaren araberrako eragina araudian ebaluatzeko premia da, eta, bereziki, eraginaren ebaluazioa funtsezko tresnetako bat zen politika publikoak egitean genero-ikuspegia sartzeko.

Lege horrek honako hau ezartzen du (18. artikulutik 22. artikulura): “*Arauek garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteeek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua*”. (18.1 artikulua), eta, zehazki, honako hau adierazten du: “*Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organismoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatze eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean*” (19.1 artikulua), eta balioespen horren arabera, izan dezaketen eragin negatiboa neutralizatzeko edo, hala badagokio, eragin positiboa indartzeko arau-proiektuan jaso behar diren neurri zuzentzaileak eta aldaketak proposatu behar dira.

Azken 10 urte hauetan aurrerapen garrantzitsuak egin dira xedapen horiek euskal administrazioetan ezartzeko. Eusko Jaurlaritzarako (2007an, eta 2012an aldatu dira) nahiz Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundietarako ebaluazio-prozesuak eta ebaluazio-ereduak zehazten dituzten Xedapen espezifikoak onartu dira². Prestakuntza espezifikoak egin da, laguntzeko materialak eginez eta, gainera, informatzeko sistemak eta eraginari buruzko txostenak artxibatze sistemak jarri dira abian. Horrela, generoaren araberrako eraginaren ebaluazioari buruzko txosten kopuruak gora egin du etengabe, ondorengo taulan ikus daitekeenez.

1. TAULA. 2008, 2010 eta 2015 urteetan egindako GEEen kopurua, eragile motaren arabera

	2008	2010	2015	GUZTIRA
Eusko Jaurlaritza	151	108	112	371
Foru-aldundiak	Daturik gabe (dg)	13	233 ³	246
Udalak - Mankomunitateak	Dg	2	Dg	2
Erakunde autonomoak - Erakunde Publikoak	Dg	1	Dg	1
Beste batzuk	Dg	22	Dg	22
GEE, GUZTIRA	151	146	345	642

Iturriak: Legearen tarteko ebaluazioa (2008ko datuak), V. Planaren ebaluazioa (2010eko datuak), gure datuak⁴ (2015).

² Xehetasun gehiago lortzeko, ikus txosten honetako 3. atala.

³ 214 Bizkaiko Foru Aldundian eta 19 Gipuzkoako Foru Aldundian.

⁴ Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Emakunderen jarraipenerako aplikazioaren esparruan, 2015ean 112 espediente ireki ziren sailei emandako egiaztapen-txostenei buruz; txosten horietatik 59 egiaztapen-txostenak izan dira, 48 salbuesitako xedapenak, 1 erantzun ez den errekerimendua, 1 informatu gabe argitaratutako xedapena, eta txosten hau idazten ari ginenaren egiteko prozesuan zeuden 3 txosten. Bestalde, kontuan izan behar da 2014. urteko 5 txosten daudela, eta txosten horien berri 2015ean eman zela (4 egiaztapen-txosten eta salbuesitako txosten 1). Foru aldundietako datuak aldundiek eman dituzte.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu zenetik 10 urte igaro ondoren, esan daiteke EAEn izandako aurrerapenak oso garrantzitsuak direla. Aurrerapen horiek monitorizatu dira legea bera ezartzeari buruz (2005., 2008. eta 2010. urteak) nahiz emakumeen eta gizonen berdintasunerako Planak abian jartzeari buruz egindako ebaluazioei esker. Orain arte egindako ebaluazioek GEEen ezarpenari, eraginari eta edukiei buruzko nolabaiteko informazioa ematen zuten arren, datu orokorrak eta gutxi gorabeherakoak ematen zituzten neurri handi batean. Balioespena batez ere modu kualitatiboan egin zen, eta Emakundek egiaztatutako espedienteak aztertuz; horregatik, ez dago egindako aurrerapenei eta izandako lorpenei buruzko argazki garbi eta sakonik ematen duen datu sistematikorik.

Horrenbestez, 2015eko legea ebaluatzeko prozesuan sartuta dagoen ebaluazio honek gai honi buruzko ikuspegi espezifiko bat ematea proposatu du, datu fidagarriagoak eta sistematikoagoak ematea ahalbidetzez gain eragileek tresna hau praktikan nola ezarri duten eta zer emaitza eta eragin lortu dituzten ulertzea ahalbidetuko duen ikuspegia, hain zuzen ere.

Ildo horretan, eraginaren ebaluazioa euskal administrazioetan nola ezarri den aztertuko da sakonki, eta lortutako aurrerapenak sistematizatuko dira, ebaluazio honen edukiak eta kalitatea ez ezik, ezarpen-prozesua ere aztertuz. Era horretan, emaitza horiek ulertzen eta mugak, eragozpenak eta ahalmenak identifikatu ahal izaten lagunduko da, eta horrek etorkizunean hobetzeko ildoak ezartzea ahalbidetuko du.

EBALUAZIOAREN DISEINUA ETA METODOLOGIA

1.2

Ebaluazio honen **helburu nagusia** EAEko araugintzan generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazio-prozesuen ezarpena, emaitzak eta eragina balioestea da, Emakundek egindako aurretiko ebaluazioetan emandako ezagutza osatzeko.

Zehazki, honako hauek dira **helburu espezifikoak**:

- a) Berdintasun-neurriak euskal araudian sartzeari buruzko eta generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazio-tresnari buruzko informazio sistematikoa, ebolutiboa eta erkatua lortzea, bai benetako ezarpenari dagokionez, bai araudia aldatzeko duen gaitasunari dagokionez emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz. Horretarako, abiapuntuko egoerari eta legea aplikatzen hasi eta bost urte eta hamar urte (2010. eta 2015. urteak) igaro ondoren egindako aurrerapenei buruzko informazioa bilduko da.
- b) Ebaluazioa aplikatzean sortu diren zailtasunak identifikatzea inplikaturako eragile guztien erakunde-ikaskuntzako prozesua gauzatzen laguntzeko.
- c) Berdintasunaren helburua euskal politika publiko guztietan sartzeari dagokionez, onartutako araudiaren kalitatea hobetzeko GEEek duten eragina areagotzea sustatzen duten tresnak ematea.

Esparru horretan, **ebaluazioari buruzko honako galdera hauek** egin dira:

GEEen *ezarpen-mailari* dagokionez:

1. Nola ezarri dira GEEak euskal administrazioetan? Zer eragilek hartu dute parte, zer ebaluazio-tresna dituzte eta zer prozesu zehatz gauzatu dira?
2. Zer bilakaera izan du denboran GEEak egiteak, bai maila kuantitatiboan, bai ebaluazioaren kalitateari dagokionez eta egin diren proposamenen sakontasunari dagokionez?
3. Zer eragozpen detektatu dira? Zer estrategia garatu dira eragozpen horiei aurre egiteko?

GEEek araudian izan dituzten *emaitzei* dagokienez:

4. Zer ezaugarri dituzte GEEek? Zer diagnostiko proposatzen dituzte eta zer proposamen biltzen dituzte, berdintasunari buruzko zer dimentsio mota eta zer helburu hartu dira kontuan?
5. Zer desberdintasun ikus daitezke eragileek proposatutako neurrien eta Emakundek egindako egiaztapen-txostenean edo foru aldundietan dauden beste egiaztapen-erakunde batzuek egindako egiaztapen-txostenean proposatutako neurrien artean? Zergatik daude desberdintasun horiek, zer eragozpen sortu dira? Zer estrategia garatu dira eragozpen horiei aurre egiteko?

GEEek araudian izan dituzten *eraginei* dagokienez⁵:

6. GEEetan egiten diren proposamenak zenbateraino sartu dira azken araudian? Denboran zer bilakaera izan du berdintasuna araudian sartzeak, maila kuantitatiboan eta neurrien ezaugarriei dagokienez?
7. Zer eragin izan dute generoaren araberako eraginaren ebaluazio-prozesuek inplikaturako eragileengan? (generoari buruzko erakunde-kulturan edo sentimenduetan eta abilezian, beste gai batzuen artean).

Ebaluazioaren helburuei eta ebaluazioari buruzko galderei erantzuteko, hainbat estrategia metodologiko garatu dira euskal administrazio guztientzat.

5 Azalpena koherenteagoa eta argiagoa izateko, ondorengo kapituluetan emaitzei eta eraginei buruzko azterketa elkarrekin aurkeztuko da.

2. TAULA. Ebaluazioaren diseinuaren laburpena

EBALUAZIO MOTAK	EBALUAZIOARI BURUZ DAUDEN GALDERAK	ERABILITAKO TEKNIKAK
1. GEEa ezartzeari eta politika publikoak egiterakoan GEEa sartzeari buruzko ebaluazioa	1, 2, 3, 5, 7	Eduki-azterketa Elkarriketa sakonak
2. GEEaren emaitzei buruzko ebaluazioa	2, 4, 5, 6	GEEaren espedienteen edukia-ri buruzko azterketa kuantitati-boa eta kualitatiboa
3. Berdintasuna araudian sartzeari buruzko ebaluazioa	6	GEEaren espedienteen edukia-ri buruzko azterketa kuantitati-boa eta kualitatiboa

Estrategia horiek guztiak zehatz-mehatz deskribatuta daude 1.E eranskin metodologi-koan. Puntu honetan, hala ere, garrantzitsua da esatea 19 pertsona elkarriketatu direla eta GEEaren espedienteen lagin bat aztertu dela aztertutako administrazio bakoitzerako. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, VII. legegintzaldiari dagozkion 50 araudi hautatu ziren (2005, Berdintasunerako Legearen ondorioz GEEa benetan garatu aurretik). Araudi horiek auke-
ratu ziren beren ezaugarriak direla medio eraginari buruzko ebaluazioaren xede izan-
go zirelako une horretan Gidalerroak indarrean egon izan balira. IX. Legegintzaldirako
(2009/2010) eta X. Legegintzaldirako (2014/2015)⁶ 50 espediente oso aztertu ziren. Espe-
diente horietan honako elementu hauek sartu ziren: Araudiaren zirriborroa, Generoaren
araberako eraginari buruzko txostena, Emakunderen egiaztapen-txostena eta azkenean
onartu zen Araudia. Aldi bakoitzeko laginak ez ziren modu orientagarrian definitu, baizik
eta denbora-tartearen arabera, Berdintasunerako Legearen aurretik egindako ebaluazioe-
kin ahalik eta koherentzia handiena izatea lortu nahi zelako.

Bizkaiko Foru Aldundirako 8 espediente hautatu ziren. Espediente horien barnean gene-
roaren arabera eraginari buruzko txostenak eta azkenean onartutako araudia bildu ziren.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, 17 espediente aztertu ziren: 8 GTEk eta Egiaztapen
Txostenek osatzen zituzten, eta beste 9k GTEa soilik zuten. 8 espediente osoen kasuan,
2 espediente aurretik aztertu diren eta egiaztapen-txosten negatiboa izan dutelako berriz
errepikatu behar izan diren arauak buruzkoak dira. Bi aldundietan berdintasuneko zerbi-
tzuek hautatu zituzten espedienteak, ikertzaile taldeak espedienteen lagin askotarikoa eta
garrantzitsua emateko egindako eskaerari erantzunez.

Hasierako sarrera honen ondoren, txosten honetako 2. kapituluari Eusko Jaurlaritzarako
egindako azterketaren emaitzak aurkezten dira zabal-zabal. Hurrengo kapituluari hiru foru
aldundien eta toki-eremuaren egoera azaltzen da; 4. kapituluari, aldiz, administrazio guz-
tiei aplikatu dakizkiekeen ondorio orokor batzuk azaltzen dira. Bukatzeko, hobetzeko go-
mendioak biltzen dituen kapituluari dago.

⁶ Espedienteak 2004/2005, 2009/2010 eta 2014/2015 aldikoak badira ere, emaitzen aurkezpenean, sinplifikatzeko, es-
ango dugu laginak 2005., 2010. eta 2015. urtekoak direla. Hautatzeko irizpideak eta aztertutako araudiaren zerrenda
zehatz-mehatz zehaztu dira eranskinean.

2

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA EUSKO JAURLARITZAN

Eusko Jaurlaritzaren esparruan egin den GEEaren ebaluazioaren emaitzak hiru atal nagusitan aurkeztuko ditugu.

- Lehenik eta behin, euskal ereduaren osagai eta helburu nagusiak azalduko ditugu, ebaluazioak izandako garapena ebaluazioko terminoen arabera balioesteko aurretiko ezinbesteko urrats gisa. Hortaz, atal honetan GEEaren diseinuari buruzko ebaluazioa aurkeztuko dugu, eta, gainera, azterketaren ondorioak azaltzeko eta gomendio baliagarriak eta Euskadiko kasuan aplika daitezkeenak emateko beharrezkoak diren interpretazio-gako batzuk emango dira.
- Bigarrenik, GEEaren ezarpena balioetsiko da, hura benetan praktikan jartzea deskribatuko da eta Emakundek eta egungo araudiak ezarritako ildo nagusiei buruz dauden desadostasun eta aldakortasun nagusiak identifikatuko dira. Puntu honetan inplikaturako eragileen zereginak, ezarritako mekanismoak eta zirkuituak hartuko dira kontuan, baita erabilitako tresnen aplikazio praktikoa ere. Hori guztia espedienteen azterketa eta elkarrizketen bitartez bildutako informazioa oinarritzat hartuta aztertuko da.
- Hirugarrenik, GEEaren emaitzen eta eraginaren ebaluazioa egingo dugu; kasu honetan ere espedienteak eta elkarrizketak oinarritzat hartuta. Alde batetik, zortzigarren legegintzalditik hamargarren legegintzaldira bitarte berdintasun-helburuak eta -neurriak araudian sartzeari dagokionez izan den bilakaera azalduko da, eta, bestetik, GEEak araudiaren edukietan izan duen eragina.
- Bukatzeko, ondorio batzuk aterako ditugu hobetzeko eta gogoeta egiteko detektatu ditugun elementu nagusiak zein diren adierazteko.

IKUSPEGIA ETA GARAPENA 2005-2015

2.1

4/2005 Legearen arabera, generoaren arabera eraginaren aurretiko ebaluazioa funtsezko elementua da EAEko genero-zeharkakotasuna garatzeko estrategian. Tresna horren azken helburua berdintasun-irizpidea araugintzan pixkanaka sartzea da. Dena den, praktikan, eraginaren ebaluazioaren ezarpena hainbat modutara zehaztu da hainbat testuinguruan, tresna hori erakunde bakoitzaren genero-zeharkakotasuneko estrategia zabalenean nola antolatu den kontuan hartuta. Gauzak horrela, eragina ebaluatzeke erabiltzen den metodologia eta inplikaturako eragileek duten zeregina funtsezko elementuak dira eta kasu bakoitzean zer elementuri eman zaien lehentasuna erantzuten dute.

Ebaluazio honi begira, hortaz, funtsezkoa da EAEk zer aukera garatu duen identifikatu ahal izatea, eta, ondorioz, aurrerapenak testuinguruan kokatuta ebaluatu ahal izateko. Ildo horretan, esan dezakegu Eusko Jaurlaritzaren GEEaren ereduak hiru ezaugarri nagusi dituela: zehaztasun-maila handia du, sakona da eta ikuspegi deszentralizatua du.

a) Zehaztasunari dagokionez, eraginari buruzko azterketa egiteko eta neurriak proposatzeko eredu zehatz bat, benetan aplikatzeko modukoa dena eta politika publikoen genero-egokitasunari eta generoaren arabera eraginari buruzko azterketa egingo duena proposatu ahal izatea izan da helburua. Ildo horretan, Generoaren arabera eraginaren ebaluazio-prozesuetatik –estatukoa bezalakotik– ihes egin nahi zen; izan ere, prozesu

horiek azterketa-prozesurik eta azterketa-eredurik zehazten ez dutenez, beste izapide bat gehiago izateko arriskua dute, aztertzen ari diren arauetan generoaren egokitasuna eta generoaren arabera eragina balioesteko gai ez direla, eta, beraz, arauetako edukiak aldatzeko gaitasun txikia dutela. Helburua, beraz, zera izango litzateke, generoaren arabera eraginari buruzko txostenak politika publikoari buruzko gogoeta bideratzen duen tresna izatea, ez, ordea, izapide huts bat.

Horregatik, EAEko berdintasun-politiken ibilbideari erantzungo zion azterketa-eredu espezifiko baten garapenean jarri zen arreta. Eredu hori adibide praktikoak eta beste esperientzia batzuen azterketa oinarritzat hartuta egin zen. Eta Emakunde buruzagi zela, baina hainbat eragileren partaidetzarekin. Beraz, Eusko Jaurlaritzako sailarteko batzordearen eta sailarteko teknikari taldearen esparruan egin zen, eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren parte-hartzearekin.

GEEa egiteko prozesua arautzen duten eta azterketa gidatzen duten gidalerro espezifikoaren garapena ere ildo horretatik doa, hots, ahalik eta zehaztasun handiena bilatzen du eragileei ebaluazio hau egiten laguntzeko; izan ere, badakigu ebaluazioa egitea oso konplexua dela, bereziki generoaren alorreko abileziarik ez dagoenean. Horrenbestez, gidalerro batzuk formalizatu dira eta gidalerro horiek gida bat izan nahi dute generoaren arabera eraginaren azterketa eta generoaren arabera eragina arlo tematiko jakin batean identifikatzea bideratzeko. Era berean, laguntzeko material batzuk egin dira, hainbat sektore-arlotara aplikatutako tresnak eskaintzen dituztenak.

b) Sakontasunari dagokionez, gidalerroek –gaur egun indarrean daudenek–⁷ aurreikusten dute arau-xedapenen proiektu orokorrak, hau da, lege-maila edo erregelamendu-maila duten arau juridikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan egiten diren⁸ administrazio-egintza jakin batzuek⁹ araua sustatzen duen organoak egindako eragin-txosten bat izan behar dutela eta txosten horren berri eman beharko duela Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak. Hortaz, salbuespen garrantzitsuak proposatzen badira ere, oro har erabaki da ahalik eta arau-xedapen gehienek izatea GEEa, gai hori aragintza-prozesuan sistematikoki sartzeko asmoz. Sakontasun hori araudira mugatzen da; izan ere, ez da proposatzen GEEa politika publikoko funtsezko beste tresna mota bati aplikatzea, esate baterako plan sektorialeko aplikatzea, gidalerroek ezartzen duten derrigortasunetik kanpo geratzen baitira plan horiek.

c) Deszentralizazioari dagokionez, esan behar da genero *mainstreaming* estrategia bat datorrela EAEn bultzatzeko erabili den ikuspegi orokorrarekin: berdintasuneko gobernantza bat garatzea, non Emakundek bultzatzeko, laguntzeko eta ebaluatzeko zeregina beteko duen, eta eragileak eta administrazioak izango diren Emakundek proposatutako ildo estrategikoak zehaztuko dituztenak beren terminoetan.

Hortaz, eragile guztiek berdintasuna pixkanaka sartzeko eta –Emakunderen, berdintasun-eragileen, eta koordinazio-guneen laguntzarekin– gobernantza-tresna guztiak bereak izango balira bezala hartzea nahi dugu, baina lehentasuna da araua sustatzen duen organoa izatea GEEa egingo duena.

7 Gidalerroak 2007an onartu ziren eta 2012an aldatu ziren.

8 Herritarren benetako eskubide eta interesei eragiten ez dietelako generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duten gidalerroak eta batez ere antolamenduzkoak diren gidalerroak (egitura-dekretuak, langile publikoek osatzen dituzten kontsulta-organok, aholku-organok, ikerketa-organok eta koordinazio-organok edo administrazio-erregistroak sortzeko edo antolatzeko proiektuak), edo indarreko arauak eraberritzen edo aldatzen dituzten gidalerroak izan ezik, –baldin eta aldatuta funtsezkoa bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez–.

9 Enplegu publikoko eskaintza publikoen eta lekualdatze-lehiaketaren deialdiei buruzkoak, honako hauek kanpo utzita, beraz: politika publikoak egiteko planak edo programak, laguntza publikoko deialdiak (diru-laguntzak, bekak, sariak...), zerbitzu-eginkizunak eta lanpostuen balioespenak eta kontratu publikoak.

Arestian esandakoa oso desberdina da eraginaren beste ebaluazio-eredu batzuekin alderatzen badugu, eredu horiek ez baitute arreta jartzen eragina *nork* ebaluatzen duen, arauaren ebaluazioan bertan baizik¹⁰. Ikuspegi horrek inplikazio garrantzitsuak ditu ebaluazio hau egiteko garaian. Eredu ororen helburu nagusia normalean politika publikoez arduratzen diren eragileak pixkanaka inplika daitezten eta ikas dezaten lortzea denez, ebaluazio-irizpideak ere kontuan izan beharko du helburu hori. Hasteko ez da hain garrantzitsua GEEaren kalitatea, garrantzitsuena da eragileak ebaluazio hori egiteko gai izatea eta pixkanaka hobetzea generoari buruz duten ezagutza eta abilezia hori politikak egiteko jardunean sartzea. Ezinbestekoa izango da, hortaz, bi alderdietan izandako hobekuntza ebaluatzea.

Eredu horrek inplikazio argiak ditu sailek egindako generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren txostenak (GET) nolakoak diren dagokionez ere. Beste eredu batzuetan GETa araudi-proposamen baten azterketa kritikotzat hartzen da –arau baten diseinuaren *ex ante* ebaluazioa da, alegia–, baina kasu honetan txostenak erdibidean geratzen dira. Eragileak pixkanaka inplika daitezten sustatzeko helburua oso garrantzitsua denez, bigarren tokian geratzen da arau-proiektuaren eraginaren ebaluazioa sakona eta kalitate handikoa izateko helburua –nahiz eta sakontasun eta kalitate hori desiragarriak diren eta monitorizatu behar diren, jakina–. Araua egiten duena eta txostena egiten duena eragile bera direnez, eta eraginari buruzko txostenak arauaren zirriborroan eragina izatea nahi dugunez, ez dauka zentzu handirik azterketa kritiko hau proposatzeak, ezta neurri berriak proposatzeak ere. Hortaz, txosten honetan arauaren zirriborroan dagoeneko bilduta dauden neurriak nabarmentzen dira batez ere. Aurrerago landuko dugu sakonago gai hau.

Ilido horretan, koherentea da, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, egiaztapena Emakundek egitea txosten espezifiko baten bitartez (EET, Emakunderen Egiaztapen Txostena). Egiaztapen-txostenak Emakundek egindako dokumentuak dira. Dokumentu horietan, alde batetik, araua aldatzeko proposamen gehigarriak biltzen dira, eta, beste alde batetik, edukiak edo generoaren araberako eraginari buruzko txostena egiteko prozesua hobetzeko iradokizunak egiten dituzte. Emakunderen Egiaztapen Txostena GETaren jarraipena indartzera eta berdintasun-edukiak sartzen direla bermatzera bideratutako tresna gisa proposatzen da, generoaren alorreko abileziatik abiatuta ikuspegi osagarria emanez sektore-eremuetatik identifikatu denari. Horrela, gaitasunen garapena sustatu nahi da eragile sektorialek genero-egokitasuna identifikatu ahal izateko, eta, aldi berean, berdintasun-proposamenen kalitatea bermatzen da eta Berdintasunerako Legea eta indarrean dagoen berdintasun-plana betetzen direla monitorizatzen da. EETak hainbat gomendio proposatzen dizkie sailek egindako txostenari eta arauaren edukiari.

10 Hori izango litzateke, adibidez, berdintasuneko erakundea bera (edo kanpoko aholkularitza tekniko bat) txostenak egiteaz arduratzen den ereduaren kasua.

3. TAULA. GEEa Eusko Jaurlaritzan ezartzeko ereduaren laburpena

Nork?	Generoaren arabera Eraginaren Txostena araua bultzatzen / gauzatzen duen egileak gauzatzen du. Emakundek Egiaztapen Txosten bat egiten du.
Zenbat?	Lehentasuna ematen zaio arau askorentzako txosten laburrak egiteari txosten gutxi baina luzeak egitearen aurretik.
Noiz?	Txostena eta araua aldi berean egin behar dira.
Nola?	Azterketa zehatz baten eredu zehazten duten gidalerro batzuk ezarri dira.
Helburu nagusia	Errutinak aldatzea, sentsibilizazioa eta ikaskuntza sortzea egile kopuru handi batengan, Berdintasunerako Legearen ezarpena indartzea, eta berdintasun-edukiak araudian sartzea.
Saileko berdintasun-unitateen zeregina	Aholkuak eta laguntza ematea.
Tresna osagarriak	Berdintasunaren alorreko prestakuntza eta laguntzarako materialak.

EAEko GEEaren hiru ezaugarri bereizgarri horien arabera –zehaztasuna, sakontasuna deszentralizazioa–, Generoaren arabera eraginaren Ebaluazioaren prozesua Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabaki bidez onartutako **gidalerro** multzo batek arautzen du. Gidalerro horiek ebaluatu behar diren dokumentuak eta ebaluazio-zirkuitua definitzen dituzte, baita inplikaturako txostenek izan behar dituzten atalak ere. Era berean, dokumentu-txantiloak ere barne hartzen dituzte, haiek betetzeko moduari buruzko adibide eta argibide zehatzak emanez.

Gaur egun, abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpen bidez onartu ziren gidalerroak daude indarrean. Dokumentu horrek tresna hori ezartzen hasi zenetik indarrean zeuden gidalerroak, hots, 2007an ezarri zirenak, aldatu zituen. Aldaketa horren helburua prozesu osoa sinplifikatzea eta arintzea nahiz prozesuaren kalitatea hobetzea zen, prozesuan inplikaturako eragile batzuen pertzepzioari erantzuteko.

Horregatik, ezarritako prozesuari buruzko eta derrigorrezko txostenei buruzko gogoe-ta-prozesu bati ekin zion Gobernu Kontseiluak 2010ean¹¹. GEEari dagokionez, adierazi da konplikatuegia izan daitekeela eta egiteko prozesua gehiegi moteldu dezakeela; hori pentsatzen zen tresna abian jartzeko garaian desadostasun batzuk izan zirelako eta desadostasun horiek gelditasuna sortu zutelako GEEaren zirkuitu osoa osatzeko garaian. Horrenbestez, 2010ean aditu talde bat eratu zen gai hori sakon aztertzeke. Aditu talde horrek honako hau proposatu zuen, besteak beste: EET bidezko kanpoko egiaztapena kentzea; era horretan, araudia ebaluatzeke prozesua araudiaren beste *ex-ante* ebaluazio-prozesu batekin parekatzen zen (ingurumen-eraginari buruzkoa, adibidez), ebaluazio horiek egiaztapen bakarra baitute. Azkenean ez zen onartu aldaketa hori, baina prozesua gehiago sinplifikatu zen azterketa errazago betetzeko eta zirkuitua arintzeko, nahiz eta atal estrategikoenak eta oinarrikoenak ez ziren baztertu.

11 2010eko otsailaren 9ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia xedapen orokorrak egitean eragina duen arau-esparruari buruz.

Gogoeta hori generoaren arabera eraginaren aurretiko ebaluazioa egiteko gidalerro berrietan agertu zen. Gidalerro horiek 2012an onartu ziren eta honako aldaketa nagusi hauek proposatzen dituzte:

- GEEa egiteko salbuetsita geratzen diren administrazio-arauak eta administrazio-egintzak zein diren zabaldu eta argitzen dute eta generoak eragin txikia duten arauak eta egintzak prozesutik kanpo uzten dituzte eta GEEa aplikatzerakoan sortutako zalantzak argitzen dituzte¹². Ildo horretan, arau-proiektuetako generoaren egokitasunik eza justifikatzeko aukera ere barne hartzen dute, baina egokitasunik ez izate hori argudiatu egin behar da eta Emakundek egiaztatu egin behar du.
- Prozesua sinplifikatu da, prozedura laburtua eta behin-behineko eta behin betiko GET bikoiztasuna kendu dira, oso eraginkorrak ez direla ikusi delako.¹³
- GETaren egitura eta edukia sinplifikatu dira, eredu analitikoak berrikusi da, eta berdintasun-neurrien zatian hain irekia ez den eta *checklist* baten antz handiagoa duen eta generoaren arabera eraginaren ebaluaziora bideratuago dagoen formatu bat gehitu da. Horrela lortu da indarreko galde-sorta zehatzagoa, mugatua eta argiagoa izatea neurriak sartzei dagokionez. Era berean, sinplifikazio hori prozesua murriztearekin lotuta dago. 2007ko gidalerroetan aipatu zen GETan erregistratuta zeuden neurriak sartu behar ziren neurriak zirela (bigarren GETaren bitartez egiaztatu daitezke hori), baina 2012. urtetik aurrera, arauak lehendik dituen neurriak erregistratzea aipatzen da.

Oro har, aldaketa horiek errazten dute GEEa egitea, baina, aipatu behar diren ondorio batzuk ere badituzte:

- Ikuspegi bat finkatzen dute, GEEak arau-proposamenean dauden berdintasun-neurriak erregistratzera bideratzen dituen ikuspegia hain zuzen ere, baina ez dute proposamen berririk egiten. IX. legegintzaldian hainbat txostenek (zehazki 17) neurriei buruzko proposamen berriak sartu zituzten, baina 2015ean ez da hori gertatzen, urte horretan genero-ikuspegia arauan erregistratzera mugatu baitziren, edo modu are murriztaileagoan, Berdintasunerako Legean sartutako neurriak erregistratzera mugatu baitziren. Era berean, behin-behineko eta behin betiko GET bikoiztasuna kentzen den neurrian, EETaren zeregin potentziala ere mugatzen da GEEaren prozesu bakoitzaren esparruan eskasak diren GETak hobetu daitezkeen "behartzeko" duen gaitasunari dagokionez. Egiaztapen Txostenak GETarako egindako gomendioak hurrengo espedienteetan aplikatu daitezke, baina zailagoa da aipatzen diren GETetan zehaztea.
- Egokitasunari eta generoaren arabera eraginari buruzko azterketa alde aurretik definitutako item zerrenda batera bideratzen dute gehiago. Horrek izugarri laguntzen dio GETaren ardura duten pertsonen espediente bakoitzean egiten duten ebaluazio-lanari; izan ere, pertsona horiek ez dute generoaren alorreko abilezia handia derrigorrez. Dena den, aldaketa horrek berekin dakar prozesua mekaniza-

12 2007ko gidalerroetan honako hauek salbuesten dira orokorrean: "herritarren eskubide eta interesei eragiten ez dieten proiektuak eta antolaketa izaera bakarrik dutenak, bereziki, administrazioaren xedapen organikoak edo haren menpekoak diren edo hari atxikita dauden erakundeak, ez badira herritarrek administrazio funtzioetan izan dezaketenen parte hartzei dagozkienak"; 2012koetan, aldiz, salbuespen horiek gehiago zehazten dira kasu jakin batzuk aipatuz. Era berean, honako proiektu hauek gehitzen dira: "generoaren arabera garrantzirik ez duten proiektuak, emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina hutsala edo txikia delako"; baita "Administrazioak eta hari lotutako organo gaituek kulturaren edo artearen alorreko funtsak eskuratzeko edozein motatako sari edo diru-laguntza emateko sortutako epaimahaien osara arautzen duten administrazio-egintzak ere". 3. eranskinean bi gidalerroak erkatze taula bat egin dugu.

13 Izan ere, gure azterketan ez dugu ikusi EETa oinarritzat hartuta zuzendu den eta Emakundera eta berdintasun-unitatera bideratu den generoaren arabera eraginari buruzko txostenen kasurik

tzeko arriskua eta nolabaiteko potentziala galtzea generoaren ikuspegitik aztertearen alorrean. Aldaketa horrek ahalbidetuko luke legean biltzen diren neurri zehatzetatik haratago joatea eta balioespen sakon bat garatzea arauen genero-egokitasunari buruz eta emakumeen eta gizonen desberdintasunetan duten eraginari buruz. Berririo helduko diogu gai honi gomendioetan.

Nolanahi ere, generoaren araberako eraginaren ebaluazioa pixkanaka ezarri da aldi berean gauzatu diren laguntzako mekanismoen laguntzarekin. Izan ere, GETaren ezarpena ezin da berdintasunerako gobernantza-estrategia osotik isolatuta ulertu.

Generoaren araberako eraginaren txostenak egiteaz arduratzen diren sailtako teknikariek prestakuntzaren, aholkularitzaren eta kontsultaren arloko hainbat baliabide izan dituzte. Baliabide horiek sentsibilizatza eta zeregin hori egiteko orientatza bideratuta daude.

Lehenik eta behin, esan behar da Eusko Jaurlaritzan GEEa eta **saileko berdintasun-unitateak** aldi berean ezarri zirela, unitate horien eginkizunetako bat eraginari buruzko txostenak egiteko aholkuak ematea izanik (213/2007 Dekretua). Hori guztia honako honetan zehazten da: GEEaren prozedurari eta helburuei buruzko informazioan, eraginari buruzko txostena betetzeko moduari buruzko orientazioan, baita emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterketa bereizia egitea eta arauaren generoaren araberako eragina hobetuko duten neurriak proposatzea ahalbidetuko duten datuak eta informazioa bilatzen laguntzean ere.

Era berean, laguntzeko beste mekanismo batzuk ere ezarri ziren. Orain arte, esate baterako, generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko 20 orduko **prestakuntza-ikastaroak** egin dira urtero. Ikastaro horiek Eusko Jaurlaritzako eta bere erakunde autonomoetako teknikarientzat ziren, generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren bat egiten duten edo egin dezaketen teknikarientzat, alegia. Berdintasunean Prestatzeko Planaren barruan sartuta (2008-2018), egin diren 7 edizioetan 94 pertsona bertaratu dira (horietatik % 80 emakumeak ziren). Profil profesionalen arabera, berdintasuneko emakume teknikariez gain, sailtako teknikariek eta aholkularitza juridikoak izan duten garrantzia nabarmendu behar da. Ikasleen % 7 soilik dira programen edo zerbitzuen arduradunak.

4. TAULA. GEEari buruzko prestakuntza-ikastaroak

IKASLEEN PROFILA	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	GUZTIRA
Berdintasuneko unitatea edo eragilea	8	3	0	0	1	1	2	15
Arduraduna	0	0	5	1	1	0	0	7
Aholkularitza juridikoa	0	5	4	3	3	4	3	22
Teknikariak	0	4	2	4	4	6	7	27
Laguntzaileak edo administrazioko langileak	0	0	0	2	2	0	2	6
Daturik gabe	14	0	0	0	1	0	2	17
GUZTIRA	22	12	11	10	12	11	16	94

Iturria: Emakunde.

Bestalde, Emakundek sailetakoko berdintasuneko administrazio-unitateen laguntzarekin, **laguntzeko material sektorial** batzuk egin ditu. Material horietan hainbat jardun-eremutan sakontzen da eta emakumeen eta gizonen egoera desberdinaren azterketa testuinguruan kokatzen da. Oraingoz 14 material daude eskuragarri: Kirolak, Landa Garapena eta Nekazaritza, Hiritarren Segurtasuna, Ekintzailatza eta ETEak, Garraioa eta Mugikortasuna, Ikerketa, Garapen Teknologikoa eta Berrikuntza, Informazioaren Gizartea, Enplegua, Ingurumena, Ekonomia, Komunikazioa, Osasuna, Industria eta Hezkuntza. Material horiek aldizka eguneratu nahi dira eta sektore guztiak hartu nahi dituzte.

Era berean, generoaren arabera eraginaren ebaluazioari buruzko atal bat sortu da Emakunderen intranetean eta webgunean, eta atal horretan gidan eta material sektorialetan zuzenean sartzeko aukera dago, baita berdintasunari buruzko agindu juridikoei buruzko informazio guztia, eraginari buruzko txantiloak, adibide praktikoak, glosario bat eta galdera ohikoenak eskuratzeko aukera ere.

Azkenik, eraginari buruzko txostenen gaineko **informazioa emateko eta txostenak artxibatzeko lineako sistema** bat jarri da abian, eta sistema horrek barrutik ahalbidetzen du Emakundek egindako egiaztapen-txostenen jarraipena egitea eta kontsultatzea, baita 2007. urtean gidalerroak indarrean jarri zirenez geroztik sailek eraginari buruz egindako txostenena ere. Txosten horiek legegintzaldiaren, urtearen, sailaren eta mailaren arabera sailkatuta daude, beste hainbat aldagairen artean. Halaber, Eusko Legebiltzarraren webgunean igortzen diren lege-proposamenen izapidetze-espedienteak kontsulta daitezke, GETak eta EETak barne. Gaur egun, aplikazio informatiko bat garatzen ari gara, GEEak araudiaren kalitatearen hobekuntzan duen eragina ebaluatzeko aukera emango duena; horretarako, araudiaren zirriborroetan eta azkenean onartzen den araudian sartzen diren berdintasunerako neurrien kopurua eta tipologia zenbatuko da.

Beraz, 2007az geroztik, GEEa egiteko eredu hori hedatzen eta finkatzen joan da pixkanaka Eusko Jaurlaritzan, eta egokitzapen batzuk egin dira ezartzeko prozesuak erronka eta zailtasun berriak ekartzen zituen heinean.

GEE-AREN EZARPEN-MAILA EBALUATZEA

2.2

Atal honetan txostenak sailetan nola gauzatzen diren deskribatuko dugu eta Emakundek eta egungo araudiak ezartzen dituzten ildo nagusiekin alderatuta ikusten ditugun aldakortasun eta desadostasun nagusiak aipatuko ditugu. Horri esker, hobetzeko elementuak identifikatu ahal izango dira.

Hasteko, egindako azterketa kualitatiboaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Azterketa horrek eredu hori gaur egun dauden gobernu-arlo guztietan praktikan nola zehazten den azalduko digu, baita inplikaturako eragileek prozesu hori nola ikusten duten eta balioesten duten ere¹⁴.

14 Eranskin metodologikoan adierazten denaren arabera, Eusko Jaurlaritzako sail guztietako pertsonen 12 elkarriketa egin zaizkien arren (horietatik 10 berdintasun-eragileak dira), garrantzitsua da aipatzea elkarriketa horiek ez dutela uzten sail guztietako egoerari buruzko azterketa sakona egiten. Lehendabizi berdintasuneko unitate guztiak elkarriketatze eta ondoren eta, kontraste gisa, berdintasunaren alorrean espezializatuta ez dauden eta GETa egiteko ardura duten teknikariak elkarriketatze aukerak sail guztietan dagoen egoerari buruzko gutxieneko mapa egitea ahalbidetzen du, baina muga batzuk ditu. Hainbat alderdik eragiten dute lortzen dugun argazkia erabat sakona ez izatea. Aipatu

Ondoren, GEEari buruzko espedienteen dokumentu-azterketa egin da sailek egiten dituzten generoaren arabera eraginaren ebaluazioaren txostenen eta Emakunderen egiaztapen-txostenen ezaugarriak azaltzeko.

EZARPENA INPLIKATUTAKO ERAGILEEN IKUSPEGITIK

2.2.1

NOR DA ERAGINARI BURUZKO TXOSTENAREN EGILEA?

Egun dagoen araudiak argi eta garbi ezartzen du eraginari buruzko txostena egiteko arduraren duen eragileak dagokion araua sustatu edo idazten duena izan behar duela. Azterketa kualitatiboaren arabera, agindu hori gobernuko hiru sailetan bete da sistematikoki, dagokion zuzendaritza edo zerbitzua bi testuak egiteaz arduratzen den sailetan, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi talde berak edo pertsona berak idatzi dituenik bi dokumentuak; izan ere, gerta liteke zirriborroa idazteko aurreko prozesuan zuzenean inplikaturik ez zegoen zuzendaritzako teknikariak arduratzea GETaz. Batzuetan, gainera, araudia administrazioetik kanpoko eragileek egiten dute –nahiz eta egoera hori gero eta gutxiagotan gertatzen dela ematen duen–, eta txostena, aldiz, araudia sustatzen duen saileko teknikariek egiten dute.

Bestalde, ematen du hiru adibidetan berdintasun-eragilea dela txostena osorik egiteaz arduratzen dena, beste adibide batean aholkularitza juridikoko langileek dute erantzukizun hori, eta bi kasutan ez da eragile zehatz bat izendatu, eta zeregin hori inplikaturik arloaren edo arauaren arabera betetzen da.

Illo horretan, aldakortasun handia dago prozesuan inplikaturik dauden eragileei dagokienez eta eragile horiek betetzen dituzten eginkizunei dagokienez, eta, kasu batzuetan nolabaiteko zehaztugabetasuna dago gai horren inguruan, eta hori ez dator bat egun dagoen araudiak proposaturikotako eredu deszentralizatuarekin.

tutako alderdiak honako hauek dira: berdintasuneko langileen txandakatzea –horren ondorioz, GEEaren garapenaren ikuspegi historikoa galtzen da–, sail batzuen tamaina eta antolamendu-arloko konplexutasuna, GETa egiteko zirkuituetan eta inplikaturikotako eragileen artean dagoen aldakortasuna, berdintasun-unitateen kokapen organiko desberdina, egindako GET kopurua handia izatea, eta unitate horiek prozesu horri buruzko funtsezko informazioari jarraipena ez egitea eta informazio hori ez eskuratzea. Tamalez, sail guztietako barne-dinamikei buruzko azterketa xehatuago batek ebaluazio honen irismena eta ikuspegia gainditu egiten zuen argi eta garbi.

5. TAULA. Eraginari buruzko txostena egiten duen eragilea sailaren arabera

SAILA	BERDINTASUN-ERAGILEA	ARAUARI HASIERA EMAN DION ZERBITZUA/ ZUZENDARITZA	ZERBITZU JURIDIKOAK	ALDAGAIA
I				X
II			X	
III	X			
IV		X		
V	X			
VI	X			
VII				X
VIII		X		
IX		X		
GUZTIRA	3	3	1	2

Ezin izan da eskuratu eragile horiek sailtako bakoitzean berdintasunaren alorrean duten prestakuntzari buruzko informazio sakonik. Soilik txostenak egiteko ardura duten berdintasun-eragileen kasuan bermatzen da nolabaiteko abilezia dagoela. Beste kasu batzuetan, ordea, edo ez dakite esku hartzen duten pertsonen prestakuntza-maila zein den edo pertsona horietako batzuek soilik izan dute prestakuntza espezifikoak. Hala eta guztiz ere, ikusten da GEEaren alorreko prestakuntza duten pertsonen kopurua hobetu egin dela orokorrean urteetan zehar, eta hori bat dator 2.1 atalean azaldu den prestakuntza-ahaleginarekin.

ZEIN DA BERDINTASUN-UNITATEEN ZEREGINA?

Berdintasun-unitatearen zereginen artean, generoaren araberrako eraginari buruzko txostenak egiteko prozesuan zuzendaritzari eta zerbitzuei aholkuak ematea edo laguntzea dago. Ikusi dugunez, zeregin hori ez da gobernuko hainbat arlotan betetzen, arlo batzuetan dokumentu osoa berdintasun-eragileak egiten baitu. Hala eta guztiz ere, kasu gehienetan, berdintasun-unitateak **aholkularitza-eginkizunak** betetzen ditu araua edo txostena bera egiten duen erakundeak eskatuta. Gehien betetzen den eginkizuna txostena idazten laguntzea da, baina hainbat adibidetan ikus daiteke unitateek diagnostikoa egiteko edo batez ere eraginari buruzko txostena behar duten arau motari buruzko aholkuak emateko esku hartzen dutela. Kasu askotan GETak egiten dira berdintasun-eragileak horren berri izan gabe edo parte hartu gabe¹⁵.

¹⁵ Gidallerroetan ez da adierazten ezinbestekoa dela aholkularitza hori jasotzea kasu guztietan. 2007ko gidallerroetan adierazten da organo sustatzaileak "araua nahiz txostena egiteko emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean espezializatuta dauden unitateen aholkularitza behar duela", baina 2012an ezartzen da "organo sustatzaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitatearen laguntza izango duela, eta unitate horrek aholkuak emango dizkiola araua edo egintza egiteko ez ezik, Generoaren araberrako Eraginari buruzko Txostena egiteko ere."

6. TAULA. Berdintasun-unitatearen zeregina generoaren arabera eraginari buruzko txostena egiteko garaian

SAILA	BETI HARTZEN DU PARTE	PARTE HARTZEN DU TXOSTENA EDO ARAUA EGITEN DUEN ZERBITZUAK ESKATZEN BADU
I		X
II		X
III	X	
IV		X
V	X	
VI	X	
VII		X
VIII		X
IX		X
GUZTIRA	3	6

Beren sailaren errekerimenduei erantzuteaz gain, berdintasun-eragileek araudian berdintasun-neurriak sartzera eta, era horretan, eraginari buruzko txostenen zeregina osatzera bideratuta dagoen **lan proaktiboa** egiten dute askotan.

Estrategia ohikoena sailean garrantzia duen araugintza detektatzea izaten da, eragileak hasierako faseetatik lagundu ahal izateko araugintza horretan. Horri esker lortzen da eragin-maila handiagoa izatea, zailagoa baita eragin-maila hori eragin-txostenen bitartez lortzea, txosten horiek oso aurreratuta dauden zirriborroak oinarritzat hartuta egiten direlako. Zeregin proaktibo hori bera betetzen da sektoreko edo saileko planetan ere, plan horiek erabakigarriak baitira berdintasun-helburua politika jakin batean sartzeko.

Aztertutako sailetako batean, zeregin proaktibo hori, gainera, honako honetan zehazten da: garrantzi bereziko araudia bada, berdintasunaren alorreko proposamenak –arauan sartu beharko direnak– egiten dituen txostena egiten da. Horrek ahalbidetzen du neurri horiek arau-prozesuaren hasierako fasean, hots, neurri horiek sartzeko aukera handiagoa dagoenean proposatzea.

Nolanahi ere, generoaren arabera eraginari buruzko txostenen tresna oso baliagarria da berdintasun-eragileentzat. Aukera ematen die sailean zer araudi egiten ari diren jakiteko eta inplikaturako eragileekin harremanetan egiteko bidea ezartzeko, berdintasunarekin zeharka jokatzeko. Eragileen ustez, gertakari hori oso positiboa da; izan ere, eragile horiek uste dute ezarritako zirkuituari esker –GETa derrigorrezkoa izateak ezartzen duen zirkuituari esker, alegia–, beren zeregina eragozpenez hartu ordez zerbait positibotzat hartzen dela.

Hala eta guztiz ere, badirudi jardun proaktibo horren eragin-maila aldatu egiten dela hainbat elementuren arabera. Saileko antolamenduaren konplexutasuna eta tamaina edo berdintasun-unitateak organigraman duen kokapena dira aipaturako aldagaietako batzuk. Ematen du zerbitzu juridikoen zuzendaritza berean kokatuta dauden unitateek aukera handiagoa dutela izapidetu diren arauari buruzko informazioa edo eraginari buruzko txostenak egiteari berari buruzko informazioa eskuratzeko. Bestalde, badirudi hierarkia-maila handiei atxikitzen zaizkien unitateek, oro har, babes politiko handiagoa dutela, eta horrek errazten

du abian jarritako araudian eragiteko gaitasuna. Aitzitik, bi metodo horietako bakar bati ere erantzuten ez dioten unitateek dituzte zailtasun handienak zeharka jokatzeko zereginetan eraginkorrak izateko orokorrean, eta eraginari buruzko txostenak egiten ari direla jakiteko, bereziki.

NOIZ EGIN BEHAR DA TXOSTENA?

Berdintasun-neurriak txertatzeko beharrezkoa da generoaren arabera eraginari buruzko txostena erreferentziako arau-testuarekin batera egitea. Hortaz, hasierako zirriborroekin batera egin behar da. Nolanahi ere, egiaztatu da arauaren zirriborro-fase aurreratuan edo behin betiko fasean ekiten zaiola txosten horri gehienetan. Ildo honetan, askotan Trami-tagune aplikazioak agintzen duenean hasten da, eta zerbitzu juridikoak izaten dira kasu gehienetan txostena eskatzen duten eragileak edo hasten duten eragileak.

Salbuespen gisa, garrantzi handiko arauak egiteko, berdintasun-eragileak hasierako faseetan parte hartzen du sail batzuetan, eta kasu horietan, agente hori izaten denez eraginari buruzko txostena lantzeko arduraduna, txostena ia arauarekin batera egiten da.

7. TAULA. Generoaren arabera eraginari buruzko txostena egiten den legeingiza-prozesuaren unea, sailaren arabera

SAILA	ARAU DISEINATZEN DENEAN	ARAUAREN ZIRRIBORROA AURRERATUTA DAGOENEAN	ARAUAREN ZIRRIBORROA BUKATUTA DAGOENEAN
I		X	
II			X
III		X	
IV		X	
V	Salbuespenez	X	
VI	Salbuespenez	X	
VII			X
VIII		X	
IX		X	
GUZTIRA	2	7	2

Txostena egiteko erabiltzen den denbora izugarri aldatzen da dagokion arauaren arabera. Hala eta guztiz ere, behin eta berriz nabarmentzen da epeak mugatuak izaten direla eta txostenaren kalitatea denborara eta eskuragarri dauden baliabideetara egokitu behar dela.

ZER ESKAINTZEN DUTE GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKOTXOSTENEK?

Eusko Jaurlaritzan txostenak egiteko proposatutako ereduak ezartzen du berdintasun-neurriak araudian sartzen laguntzeaz gain, eredu horrek bi helburu nagusi dituela: administrazioaren ohiturak aldatzea eta ikaskuntza eta sentsibilizazioa sortzea.

Ohiturak aldatzeari dagokionez, azterketa kualitatiboan berresten da txostenak derrigorrezkoak izateak ekarri duela txosten horiek derrigorrez sartu behar izatea araugintza-prozesuan, eta, hortaz, eragile mota askoren lan-ohituren zati bihurtu direla, teknikari eta langile juridikoetatik hasita politikarietaraino, eta hori oso modu positiboan balioesten da, zalantzarik gabe. Tramitaguneren zeregina nabarmendu da bereziki, eragin hori legegintza-prozesuan sistematizatzen lagundu duen tresna baita. Alabaina, kontsulta egin zaien pertsonen nabarmendu dute, halaber, tresna horrek txostena egitea arau-prozesuaren fase aurreratu batean kokatzen duela, eta eragiteko gaitasuna eta inplikaturako eragileen kopurua mugatuak direla prozesu horretan.

Aipatzen da **sentsibilizatzeko eta ikasteko** helburuak ere lortu direla. Ikusten da eraginari buruzko txostenen tresna hamar urtez praktikan jarri izanaren ondorioz berdintasunaren sustapenean eragile kopuru handia (gero eta gehiago) inplikatzea lortu dela, eta inplikazio horren ondorioz gero eta kontzientziario eta sentsibilitate handiagoa lortu dela sektore-arlo desberdinetan genero-desberdintasunak izateari dagokionez. Era berean, desberdintasunei heltzeko moduari buruzko abilezia lortu da eta, bereziki, txostenen tresnari berari buruzkoa. Zehazki, ikusten da berdintasunaren alorreko prestakuntzari buruzko eskaera nabarmen igo dela; horregatik, edozein sektore-eremutarako ezinbesteko abilezia-arlotzat hartzen da gero eta gehiago.

Dena den, ikusi da tresnak eduki dezakeen ondorio positiboaren hainbat muga ere badaudela ikaskuntzari dagokionez:

- Txostena antzeko araudietan mekanikoki aplikatzeak araudi horietako edukia ez berrikustea eta hainbat kasutan testu bera erabiltzea ekartzen du, eta horren ondorioz, galdu egiten da esku-hartze publikoei buruzko gogoeta egiteko gaitasuna.
- Txostenaren testua txostena egiten inplikatuta dauden eragileetatik haratago zabaltzen ez denez, ikaskuntza sortzeko duen gaitasuna ez da arloko edo zerbitzuko beste langileengana iristen. Zehazki, araua egiten duten eragileak txostena egiten duten berak ez direnean, tresna horren ondorioak, ikaskuntzari dagokionez, asko mugatzen dira.
- Era berean, txostenen edukari ez zaio berrikusitako arauari, sartutako neurriei edo diagnostikoaren alorrean egindako hobekuntzei buruzko argazki orokorra izatea ahalbidetuko duen jarraipenik egiten.
- Jaurlaritzako hainbat arlotan araugintza-maila oso mugatua da, eta, hortaz, eraginari buruzko txostenen tresnak ezin du berdintasunaren alorreko abileziarik edo sentsibilizaziorik sortzen lagundu.

Azkenik, azterlanean parte hartu duten pertsonen nabarmendu dute, halaber, eraginari buruzko txostenek gaitasun handia dutela azkenean onartu den araudiaren **edukian eragina izateko**. Azterketa kuantitatiboan azaldutako emaitzen arabera, parte hartu duten pertsona guztiek nabarmendu dute tresna horrek ahalmen handia duela 4/2005 Legea ezartzeko, arau horretan aintzat hartzen diren neurriak direlako erregulazio berrietan normalean proposatu eta sartzen direnak. Dena den, ahalmen horrek berak muga bat jartzen du txostenek eragina izateko duten gaitasunean, legean esplizituki kontuan hartzen ez

diren neurriak gutxiagotan sartzen baitira. Gai estrukturalagoei genero-ikuspegitik heltzea eta esku hartzeko oinarriak eta ikuspegiak ere genero-ikuspegitik berrikustea, beraz, GE-Taren prozesuaren irismenetik kanpo geratzen dira.

Edukia aldatzeari dagokionez, araua sustatzen duten politikarien zeregina funtsezkoa da, erreferente politikoek jarduten baitute iragazki gisa eta eraginari buruzko txostenean eta egiaztapen-txostenean egin diren proposamenen artetik azkenean zeintzuk sartuko diren erabakitzen baitute. Kasu horretan, Berdintasunerako Legearen babesa erabakigarria da. Gauzak horrela, elkarriketa batzuetan aipatu da araudia izapidetzeko memoria¹⁶ GETek eta EETek egindako proposamenak sartu edo baztertuko diren argudiatzeko dokumentua dela, eta argi eta garbi adierazi da zerbitzu sektorialetako edo juridikoetako zuzendaritzen irizpidea¹⁷.

Halaber, azterlan hau egiteko gurekin harremana izan duten pertsonak esan dute 4/2005 Legean bildutako neurri batzuk errazago sartzen direla, baina beste batzuek erresistentzia handiagoa sortzen dutela. Lehenengo neurrien artean hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta erabakiak hartzeko organoetan ordezkaritza orekatua izatea daude, eta bigarrenen artean ekintza positiboak eta gastuaren berrantolamendua nabarmendu dira.

ZER ESKAINTZEN DUTE EGIAZTAPEN-TXOSTENEK?

Egiaztapen-txostena funtsezko tresna da eraginari buruzko txostenen kalitatea bermatzeko eta txostenean sartutako gomendioen bitartez nolabaiteko ikaskuntza sortzeko.

Praktikan, egiaztapen-txostenen erabilera izugarri aldakorra da sailen arabera. Horri dagokionez, hainbat aukera daude:

- Zenbait arlotan azken testuarekin batera doan arau-memoria egiteko soilik kontsultatzen da txostena; beraz, aholkularitza juridikoa da txostenarekin harremanetan dagoen eragile bakarra.
- Beste zenbait arlotan, aldiz, ondoren egiten den araudi berria egin bitartean kontsulta daiteke egiaztapen-txostena.
- Kasu batean memoria egiteko xede izan zen arau espezifiko baterako kontsultatu zen.
- Eta, azkenik, eman diren hainbat adibidetan ikusten da ez dakitela egiaztapen-txostenak legegintza-prozesuari zer ekarpen egiten dion zehazki.

Horrek esan nahi du egiaztapen-txostenak araudia hobetzeko egiten duen ekarpena gutxienez zalantzarik dela; izan ere, kasuen erdietan baino gehiagotan edo izapide hutsa den egintza dira edo ez dakite zein diren txosten horien eginkizunak eta zer ekarpen egiten duten. Ildo horretan, azterlan hau egiteko kontsultatu diren pertsonak adierazi dute egiaztapen-txostena egiten den garaia dela txosten horrek eragiteko duen gaitasuna ahultzen duen alderdietako bat. Arauak ia aldaketarik onartzen ez duenean egiten denez,

16 4/2005 Legearen 22. artikuluan ezartzen da ezinbestekoa dela GEEaren izapideak azaltzen dituen memoria bat egitea. Alabaina, hirugarren gidalerroan ezartzen da memoria horren edukiak izapidetzeari buruzko memoria generikoan sartuta egongo direla.

17 Aipamen horrekin bat etorritik, 14 izapidetze-memoria berrikusi dira memoria horietako edukiak balioesteko eta GEEa egiteko prozesua hobetzeko duten ahalmena erkatzeko. Memoria horiei buruzko azterketa xehatua ebaluazio-prozesu honetatik kanpo geratzen bazen ere, gomendioei buruzko kapituluaren (5. atala) memoria horiei buruzko gai interesgarri batzuk aipatu dira.

administrazio-izapidearen zatitzat hartzen da eta erakundearen barnean ez dauka inolako hedapenik.

Hala eta guztiz ere, hiru sailek emandako adibideek erakusten dute epe luzera ikasteko nolabaiteko ahalmena dutela, etorkizuneko txostenak eta arauak egiteko kontuan hartuko baita. Horretarako, ordea, badirudi ezinbestekoa dela txosten hori sistematizatzea eta eragileen artean (saileko berdintasun-unitateak barne) duen hedapena indartzea, eragile gutxi jotzen baitute normalean txosten horretara eta oso eragile gutxi baitira, halaber, txosten horiek proposamen-iturritzat hartzen dituztenak.

8. TAULA. Egiaztapen-txostenaren eginkizuna sailaren arabera

SAILA	ARAU-MEMORIA EGITEKO SOILIK IRAKURTZEN DA	KONTUAN HARTZEN DIRA DAGOKION ARAUAN	ONDORENGO ARAUAN HARTZEN DIRA KONTUAN	EZ DAKITE ZER EKARPEN EGITEN DUEN
I	X			
II		X	X	
III				X
IV	X			
V				X
VI			X	
VII			X	
VIII				X
IX				X
GUZTIRA	2	1	3	4

ZEIN DIRA DETEKTATUTAKO ERAGOZPEN NAGUSIAK?

Mainstreamingaren beste tresna batzuekin gertatzen den bezala, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak ezartzeko prozesuek eta txosten horien eraginak hainbat eragozpeni –orokorreki nahiz espezifikoei– egin behar diete aurre.

Eragozpen orokorreki dagokienez, azterketa kualitatiboak zeharka jokatzearen estrategiari eragiten dioten eta generoaren araberako eraginari buruzko txostenen tresnaren gainean zeharkako ondorio esanguratsuak dituzten alderdi batzuk argitzen ditu:

- Sail batzuk oso handiak izateak eragozten du berdintasun-eragileak *mainstreaming*a sustatzeko duen zeregina eraginkorra izatea; izan ere, eragitea ezinbestekoa den jardun-arlo eta nolabaiteko abilezia-maila eduki behar duen arlo eta partaide gehiegi daude. Beraz, zaila da, halaber, aholkuak ematea edo eraginari buruzko txostenak sustatzen laguntzea, baita txosten horiei jarraipena egitea ere.

- Langileak txandakatzeak zaildu egiten du genero-ikuspegia lan-eremu bakoitzean sartzeko moduari buruzko ezagutza ez ezik, tresna jakin batzuei buruzko ezagutza ere (eraginari buruzko txostenena, adibidez) metatzea.
- Azkenik, erabakigarria da sail guztietako arduradunek berdintasunarekin konpromiso politikoa hartzea helburu hori legitimatzeko eta zeharka sar dadin sustatzeko.

Mainstreaminga oso erakunde desberdinetan ezartzeko ekintzaren parekoak diren eragozpen orokor horietatik haratago, azterketak ahalbidetu du Eusko Jaurlaritzan ezarritako eraginari buruzko txostenen ereduaren eragozpen espezifiko batzuk detektatzea:

- *Abilezia*: esparru horretan aurrerapen nabarmenak izan diren arren, uste da txostenak idazten dituzten langileek, orokorrean, oraindik ez dutela oinarritzko kontzeptuei buruzko behar adinako ezagutzarik azterketa genero-ikuspegia kontuan hartuta egiteko, eta azterketa horrek nolabaiteko sofistikazio-maila izateko.
- *Gidalerroak*: eraginari buruzko txostena egiteko dagoen txantiloia konplexutasuna beste eragozpen nagusi bat da. Adierazi dutenez, bete behar diren atal batzuen helburua edo edukia nahasgarria da.
- *Diagnostikoa*: arlo sektorialetan eskuragarri dauden sexuaren arabera banakaturako datuak eta genero-ikuspegia duen ezagutza mugatuak dira oraindik. Horren ondorioz, normalean desoreka bat dago aurkeztutako diagnostikoaren (oro har, arlo bateko desberdintasunei buruzkoa, informazio gehiago ematen duena) eta araua arautzen duen eremuari buruzko diagnostiko espezifikoaren artean (horri buruz eskuragarri dagoen informazioa urriagoa da).
- *Zirkuitua*: txostenak eragina izateko funtsezko eragozpena txostena egiten den unea da. Txostena legegintza-prozesuaren fase aurreratueta egin ohi da, eta fase horietan oso aldaketa txikiak egin daitezke. Ildo horretan, araudiaren kalitatea areagotzen duen tresnatzat hartu ordez, jende askok lan-karga areagotzea ekartzen duen izapidetzat hartzen du.
- *Helburua*: eraginari buruzko azken helburua zein den ez dagoela argi ikusi da. Ildo horretan, badirudi erresistentziak izaten laguntzen duen elementuetako bat tresna hori 'zertarako den' ez ulertzea dela. Ez ulertze hori berdintasun-ameskeria izenekoarekin batera azaltzen da askotan, eta ameskeria hori dela medio jendeak uste du genero-inekitateak dagoeneko ez direla garrantzitsuak edo eskuratzeko oztopo espliziturik ez izatea eragina neutroa izatearen baliokide dela. Badirudi berdintasunaren alorreko prestakuntza tresna eraginkorrenetako bat dela bi gabeziei aurre egiteko.
- *Helburua*: 4/2005 Legean xedatutako araudirako soilik egin dira txostenak. Jendearen ustez, hori muga bat da funtsezko tresnetara, esate baterako jardun-planetara, iristen ez delako, eta eragin mugatua duelako arau gutxi sortzen dituzten gobernu-arloetan.
- *Legezkotasuna*: nahiz eta arau-esparruaren babesa izan, ematen du generoaren arabera eraginari buruzko txostenek ez dutela legegintza-prozesua osatzen duten beste txosten batzuek duten legezkotasun-maila bera eta ez direla lotesleak. Txosten horiek egitea izapidetzat hartzen da neurri handi batean, eta txostenen edukia beste txosten batzuen kasuekin alderatzen badugu, ikusiko dugu eduki hori politikotzat balioesten dela teknikotzat baino gehiago. Horrenbestez, proposatutako neurriak (GETan proposatzen direnak eta egiaztapen-txostenean proposatzen direnak) ez dira kontuan hartzen beti.

- *Ikaskuntza*: generoari buruzko txostenek erakunde-ikaskuntza mugatua sortzen dute. Lehenik eta behin, txostena egiten esku hartzen duten eragileen kopurua txikia da –batzuetan berdintasun-eragileak soilik, besteetan arauaren ardura duten zuzendaritzetako langile jakin batzuk, eta beste batzuetan zerbitzu juridikoak, eta abar–. Bigarrenik, ez da txostenaren edukiari edo eraginari buruzko etengabeko jarraipenik egiten txosten berriak aurreko esperientzietatik abiatzeko edo hobetzeko irizpideak edo estrategiak ezartzeko.

ERAGINA EBALUATZEKO TRESNAK

2.2.2

Eusko Jaurlaritzaren GEEak bi tresna nagusi ditu: generoaren arabera eraginari buruzko txostenak (GET) eta Emakunderen egiaztapen-txostenak (EET).

- Lehenengo txostenak (GET) berdintasuna eraginpeko arauetan sar dadin ahalbidetzea helburutzat duten dokumentuak dira, eta, horretarako, arauaren aplikazio-eremuan berdintasunak duen egoerari buruzko diagnostiko bat eta generoaren arabera eraginari buruzko arauaren ebaluazio bat biltzen dute, eta desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurkezten dituzte.
- Bigarren txostenen (EET) helburua araua sustatzen duen eta GETa idatzi duen organoak GEEa behar bezala aplikatzen duen egiaztatzea da; horrez gain, hobetzeko neurriak proposatzen dituzte.

Jarraian, txosten horiek zehatzago deskribatuko ditugu eta haien ezarpena aztertuko dugu.


• GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKOTXOSTENA

Generoaren arabera eraginari buruzko txostenak nabarmen aldatu dira aztertutako aldian. Hori gertatu da, lehenik, txostena betetzeko gidalerroak aldatu direlako, baina baita aurreko ataletan aipatutako erakunde-ikaskuntzarengatik ere. Jarraian, genero-diagnostikoaren kalitateari eta GETek eraginari buruz egiten duten ebaluazioaren kalitateari buruzko emaitzak garatuko ditugu. GETetan proposatutako neurriak arauaren zirriborroan sartuta daudenak direnez gero, neurri horien azterketa 2.3.2 atalean azalduko dugu.

Genero-berdintasunaren egoerari buruzko diagnostikoaren kalitatea

Generoaren arabera eraginari buruzko txostenetan diagnostiko bat sartzen da, diagnostiko hori, askotan, ahula izaten da, eta horrek esan nahi du ia ez duela arauari buruzko informazio garrantzitsurik ematen.

1. GRAFIKOA. GETen diagnostikoaren kalitatea. Ehunekoak



Kalitate ertaineko diagnostikoen kasuan (% 25), askotan saiutzen dira datuak eta argudioak ematen, baina araua soilik partzialki arautzen duen eduki espezifikoarekin lotuta daude. Azkenik, sakontzat hartu ditugun diagnostikoek (% 6 bi aldietan) ematen dute arauan garrantzitsuak diren alderdiei buruzko informazioa.

Horrenbestez, diagnostiko sakonen ehunekoa egonkorra –eta bigarren mailakoa– da, baina kalitate ertaineko diagnostiko kopurua nabarmen igo da diagnostiko ahulak eta diagnostikorik ez duten txostenak desagertu direlako. Hala ere, arestian adierazi dugunez, kalitatea oso ahula da kasu gehienetan.

9. TAULA. GETen diagnostikoaren kalitatea

	2010		2015		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ez dago diagnostikorik	1	2	0	0	1	1
Ahula	36	72	32	64	68	68
Ertaina	10	20	15	30	25	25
Sakona	3	6	3	6	6	6
GUZTIRA	50	100	50	100	100	100

Eraginari buruzko Txostenaren diagnostikoan garatutako argudioa aztertutako itemen artean bilakaera negatiboa izan duen item bakarra da; X. legegintzaldian generoaren araberako eragina justifikatzeko argudiorik eta daturik ematen ez den kasu gehiago dago IX. legegintzaldian baino. Hori gerta daiteke gidalerroak aldatu direlako, eta, bereziki, arauaren diagnostikoaren eta aurreikus daitekeen eraginaren atalak elkartu direlako, baita ebaluazio hori zehaztasun asko emateko premiarik izan gabe egitea ahalbidetzen duen egiaztapen-zerrenda bat dagoelako ere.

10. TAULA. Generoari buruzko diagnostikoaren argudiatze-maila

	2010	2015	GUZTIRA
Argudioak eman dira	40	33	%73
Ez da argudiorik eman	10	17	%27

Alabaina, edukiei buruzko azterketa zehatzago batek erakusten du termino kuantitatibotan argudiatzeari dagokionez bilakaera positiboa dela, halaber. Esate baterako, 2010ean ikus dezakegu “aukera-berdintasunari” edo “lana lortzeko garaian ez diskriminatzeari” buruzko argudioa oso hedatuta dagoela bi kontzeptu horiek arauaren generoaren araberrako eragin positiboa justifikatzen duten funtsezko elementutzat hartuta. Argudio mota horrek erakusten du ez dela ezagutzen genero-berdintasunaren eta benetako berdintasunaren kontzeptuak zer diren, eta berdintasun formalarekin edo zuzeneko diskriminaziorik ezarekin nahasten direla. 2015ean, argudio mota hori desagertzeko joera dago; horrek esan nahi du generoa zeharka hartzeko politikaren kontzeptu-esparrua zein den eta generoaren araberrako eraginaren ideia bera zein den ikasi dela. Bi kontzeptu horiek oinarritzkoak dira, bestalde, GEEa garatu ahal izateko.

Era berean, GETen kontzeptu-kalitateari dagokionez, garrantzitsua da adieraztea 2010ean, Emakunderen egiaztapen-txostenetan 26 aldiz aipatu zela nahasketa terminologikoak edo kontzeptu-arlokoak zeudela generoaren araberrako eraginari buruzko txostenetan. Nahasketa horiek gehienak sexuaren eta generoaren arteko nahasketarekin eta diskriminazioaren eta ekintza positiboaren arteko nahasketarekin lotuta zeuden. Zuzenketa mota horren kopurua 6ra murriztu zen 2015ean. Horrek ere esan nahi du aldi horretan zerbait ikasi dela kontzeptuaren arloan.

Generoaren araberrako eraginaren identifikazioa eta zentzua, eta neurriak proposatzea

Diagnostikotik haratago, arauen generoaren araberrako eragina dagoela identifikatzea GEEaren metodologian izandako ikaskuntza erakusten duen funtsezko elementua da. Guztiok dakigunez, 1995ean Beijingeko Plataforma onartu zenez geroztik, *mainstreaming-a* ezartzeak ekarri du nolabaiteko adostasuna izatea gobernuek ematen dituzten arau gehienek genero-desberdintasunean eragin motaren bat dutela dioen ideiarei dagokionez. Hala eta guztiz ere, IX. legegintzaldian, txosten gehienetan ez da identifikatzen beren arauen generoaren araberrako eragin bakar bat ere –nahiz eta alde zuzenetik salbuetsi gabeko arauak buruzko txostenak soilik egin diren–. Eragina dagoela identifikatzen duten txostenen kopurua nabarmen murriztu da aztertutako lehenengo laginetik bigarrenera; izan ere, X. legegintzaldian oso kasu gutxitan gertatu da egoera hori (4). Bestalde, ikusi da txosten nahasgarri edo kontraesankor batzuk daudela; txosten horietako batzuetan nekez ondoriozta daitekeelako arauak eraginik ote duen ala ez esaten den, edo beste batzuetan ez delako eragina aztertzen. Egoera mota hori ere murriztu da. Txosten nahasgarri kopurua murriztu den arren, txosten mota horren kopurua eragina identifikatzen ez duten txostenen kopurua baino txikiagoa da, baina kopuru hori ere oso garrantzitsua da, 9 izatetik 4 izatera igaro baitira; erreferentziako arauetan generoaren araberrako eragina dagoela identifikatzen duten txostenak, aldiz, 14 izatetik 42 izatera igaro dira. Gauzak horrela, lagina bere osotasunean hartzen badugu, ikus dezakegu 100 espedienteetatik 56tan GETek identifikatzen dutela generoaren araberrako eragin motaren bat irizpena emandako arauetan.

11. TAULA. Generoaren araberako eraginaren identifikazioa

	2010	2015	GUZTIRA
Eragina identifikatu dute	14	42	56
Ez dute eraginik identifikatu	27	4	31
Nahasgarria da edo ez dago	9	4	13

Generoaren araberako eraginari dagokionez, txosten gehienek identifikatzen dute generoaren araberako eragin positiboa dagoela. Generoari eta politika publikoari buruzko nazioarteko literatura kontuan hartuta, balioespen hori zalantzazkotzat har daiteke: askotan egiaztatu da politika publiko gehienek finkatu edo errepikatzen dutela –partzialki bederen– dagoen erakunde-joerarengatik sortzen den desberdintasuna.

12. TAULA. Identifikatuko generoaren araberako eraginaren zentzua

	2010	2015	GUZTIRA
Positiboa	12	39	51
Negatiboa	0	0	0
Biak	2	0	2
Ez dago argi	0	3	3

Zergatik sortzen da arauaren aldeko joera hori? GETetan, eragin positiboaren kalifikazioa irizpena emandako arauan genero-neurriak sartzeak eragin duela ondorioztatu da askotan. Izan ere, araua eman duen organoko langileek kasu gehienetan ebaluatzen dutena arauan berdintasun-neurriak sartzea da, eta logikoa denez, balioesten dute sartze horrek arau osoan eragin positiboa sortzea ekartzen duela. Hala eta guztiz ere, arau baten generoaren araberako eraginaren ebaluazioak politika jakin batzuk edo neurri zehatz batzuk sartzetik haratago joan beharko luke, eta arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunean duen ondorio globalari heldu beharko lioke.

Pentsa liteke generoaren araberako eraginaren azterketa sakon batek, beharbada, ebaluazio antibalenteagoa eta hain unibokoa ez den ebaluazio bat emango lukeela, eta ebaluazio horretan alderdi positiboak (sartutako neurri espezifikoetatik eratorritakoak, adibidez) eta negatiboak (politikaren edo esku hartzen den sektorearen ezaugarri estrukturalagoe-kin lotuta daudenak, adibidez) elkarrekin egon litezkeela. Bi alderdiei buruzko balioespen zehatzu batek argibide batzuk eman litzake ibilbide luzeagoko aldaketa-estrategiak proposatzeko politika-eraketarako edukietan.

Alabaina, ikuspegi horrek zailtasun teknikoak nahiz politikoak ditu. Alde batetik, ematen du gertagaitza dela arau jakin baten berdintasun-neurri kopuru jakin bat sartu den prozesu baten ondoren, ateratzen den testua generoaren araberako eragin negatiboa sortzen duen testutzat hartzea GETak. Ildo horretan, litekeena da arauaren ebaluazio global hori egingo balitz aipatutako neurri espezifikoak testuetan sartzeko pizgarriak desagertzea. Bestalde, zaila ematen du, halaber, testuaren arduradun politikoa bere ardurapeko arauaren generoaren araberako eragin negatiboa duen txostena sinatzeko prest egotea.

Hortaz, litekeena da bi zailtasunen aurrean egotea: generoaren arabera eragina kalifikatzeko moduari buruzko ikuskera bera eta politikaren edo erakundearen alorrean nolabaitzeko 'ezintasuna' izatea ebaluazio kritikoa egiteko.

• EMAKUNDEREN EGIAZTAPENTXOSTENA

Egiaztapen-txostenak GETen ondoren Emakundek egiten dituen dokumentuak dira. Araua aldatzeko proposamenak egiten dituzte eta generoaren arabera eraginari buruzko txostenak hobetzeko iradokizunak egiten dituzte. Espedienteak aztertu ondoren, egiaztatu daiteke helburu horiek ondo betetzen direla; izan ere, ia EET guztietan gomendatzen da hobekuntzak egitea GETan, eta askotan proposatzen da, halaber, arauan aldaketak egitea.

13. TAULA. EETen edukia

EgiaztapenTxostenen edukia	
GETrako gomendioak	Diagnostikoari lotutako hobekuntzak Kontzeptu-arloko hobekuntzak (hizkuntza espezializatuaren erabilera: honelako hitzak: sexua/generoa, diskriminazio positiboa, eta abar) Eragina identifikatzearekin lotutako hobekuntzak Txostenaren egiturarekin lotutako hobekuntzak Egiteko prozedurarekin lotutako hobekuntzak
Aurako gomendioak	Berdintasun-neurri berriak arauan Berdintasun-helburu berriak Hizkuntzaren erabilera sexista zuzentzea Araua egiteari edo ezartzeari buruzko gomendioak, araua bera osatzen ez dutenak (araua egiteko garaian generoan adituak diren pertsonak sartzea, jarraipen-neurriak, eta abar)

GETrako gomendioak

EETak GETari egiten dizkion gomendio gehienak edukiei buruzko funtsezko gaietan daukete oinarrituta gai formalean edo prozedurazkoetan baino gehiago; horrenbestez, horri buruzko irakurketa positiboa egin daiteke ezarritako prozedura sendotzeko adierazletzat har daitekeelako.

Espediente gehienetan GETek diagnostikoak egiteko erabiltzen duten modura bideratutako proposamenak sartu dira. Hori lotu daiteke, alde batetik, GETek egiten dituzten azterketa gehienak ahulak izatearekin, baina baita EETarekin bultzatu nahi den etengabeko hobekuntzarekin ere –izan ere, generoari buruzko azterketa on bat egiteak oso ibilbide luzea du, zalantzarik gabe, diagnostiko sakonagoa duten kasuetan ere–.

Hainbat kasutan, EETak kontzeptuen edo terminologiaren arloko zehaztapenak aipatzen ditu. Kasu gehienetan, sexua eta generoa kontzeptuen artean sortzen den nahasketa da. Beste adibide bat "diskriminazio" hitza gaizki erabiltzea da. Zuzenketa mota hori kasuen % 52an gertatzen da 2010ean, eta soilik kasuen % 12an 2015ean. Horrek esan nahi du

aurrerapen nabarmena izan dela GETak egiteko ardura duten eragileek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunarekin lotutako kontzeptuak ondo erabiltzeari dagokionez.

GETa egiteko prozedura hobetzeari buruz oso proposamen gutxi egin dira; kasuen % 6an eta % 5ean egin dira, hurrenez hurren, eta gidalerroetan diseinatutako zirkuitua ez dela bete aipatu dute.

Azkenik, nabarmendu behar da azterketaren bi aldien artean txostenaren egitura hobetzeko edo aldatzeko iradokizun kopurua nabarmen igo dela: txostenen % 6 izatetik % 48 izatera igaro dira. Nahiz eta 19 kasutan arau mota bera den (sail beretik datorrena), kasu horren errepikapena kenduta ere, ikus dezakegu gomendio mota hori igo egin dela (3 kasu izatetik 5 kasu izatera), eta horrek, beharbada, mereziko luke jarraipen bat egitea gidalerroetan proposatzen den txantiloari dagokionez egon litezkeen zailtasunak aztertzeko. Ildo horretan, txosten honetan hobekuntzak proposatzen dira GETak egiteko txantilo hori argiagoa izateko gomendioen atalean.

14. TAULA. GETaren hobekuntzak proposatzen dituen EETa

	2010		2015		GUZTIRA	
Diagnostikoa	48	% 96	499	% 98	97	% 97
Kontzeptuen arloko nahasketa	26	% 52	6	% 12	32	% 32
Egitura	3	% 6	24	% 48	27	% 27
Prozedura	3	% 6	2	% 4	5	% 5

Arauan berdintasun-neurri berriak sartzeko proposamena

Generoaren arabera eraginaren aurretiko ebaluazioa egiteari buruzko Gidalerroek orientabidea ematen dute desberdintasunak kentzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko araudian sar daitezkeen berdintasun motari buruz. Bereziki, 2012an onartu ziren gidalerroak dira gai hori zehatzago lantzen dutenak; izan ere, araudia- ren generoaren arabera eragina hobetzeko prozesua errazteko alde aurretik ezarritako berdintasun-neurrien kategoria sorta zehazten dute¹⁸.

Kategorizazio hori honako hau da:

- Genero-ikuspegia arauan sartzeko neurriak*, hainbat motatako proposamenak egi- ten dituztenak, 16. taulan zehazten denaren arabera. Gure ustez, puntu hori modu nahasgarri samarrean azalduta dago; izan ere, berdintasunaren alorreko edukiak izan arren erabat neurritzat hartu ezin diren elementuak sartzen dira (printzipioak sartu dira adierazpen gisa, edo hizkuntza ez-sexista erabili da arauan bertan¹⁹,

18 2012ko gidalerroen 3a atala. Neurri horiek aurreko gidalerroetan zehaztuta ez egoteak ekartzen du 2010ean gidalerro horiek azaldu behar duten ala ez ikertzaileek interpretatu behar izatea. Horren ondorioz, komenigarria da emaitza zehatz horiek aztertzeko garaian zuhurrak izatea.

19 Ildo horretan, hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzera bideratutako jardunak sartzeari berdintasun-neurri bat izango litzateke, baina ez dugu uste arauaren zirriborroan hizkuntza sexista ez erabiltzea neurritzat hartu behar denik.

adibidez). Hala eta guztiz ere, neurrien zenbaketa orokorrean kasu horiek sartzea erabaki da Emakunderen ikuspegiarekiko koherentziari eusteko.

- b) Hainbat organotan eta epaimahaitan *emakumeen eta gizonen partaidetza orekatura izan dadin sustatzeko neurriak*.
- c) *Ekintza positiboko neurriak*, emakumeengana edo gizonak berdintasunaren alde inplikatzera bideratuta daudenak.
- d) *Itxuraz neutroak diren, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duten neurriak* –horiei dagokienez, zehazten da indarkeriaren biktima direnengana, guraso bakarreko familietara edo zaintzaileengana, besteak beste, bidera daitezkeela–.
- e) *Era askotako diskriminazioa pairatzen duten emakumeen desberdintasunak murrizteko neurriak* (diskriminazioa adina, klase soziala, sexu-aukera, desgaitasuna, etnia edo arraza, jatorri nazionala eta beste gai batzuk direla medio).
- f) *Debeku- edo zehapen-neurriak* sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik, hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik edo beste kausa batzuegatik.

Halaber, proposatzen da komenigarria izango litzatekeela *neurri osagarriak* ere identifikatzea; izan ere, neurri horiek, arauaren edo administrazio-egintzaren proiektuaren edukitik haratago, berdintasunerako helburuen eta neurrien eraginkortasuna osatzeko edo areagotzeko dira²⁰. Emaizak interpretatzeko garaian, garrantzitsua da kontuan hartzea neurri osagarriak, orokorrean, ez direla arau-testuetan jasotzen (ezta arauaren zirriborroan eta azken arauan ere), eta, horrenbestez, dagozkien GETak oinarri hartuta identifikatu dira²¹.

Atal honetan, eta dokumentuaren gainerako ataletan, neurri horiek guztiak elkartuta aztertuko ditugu, eta, ondoren, proposatutako edo sartutako berdintasun-neurrien ezaggarriak zehatz-mehatz aztertzen ditugunean, hiru multzotan bereizita aurkeztuko ditugu, Gidallerroetan proposatutakoarekin bat etorritz: “*genero-ikuspegia arauan sartzea bideratutako neurriak*” alde batetik; gidallerroetan aurreikusitako gainerako neurri zehatzak (b-f blokeak, “*berdintasun-neurri zehatzak*” izenarekin elkartu ditugunak bereizi ahal izateko) bestetik; eta, azkenik, “*neurri osagarriak*”. Horri esker, azterketari buruzko zehaztasun eta sakontasun handiagoa eman dezakegu. Neurri multzoa aipatzen dugunean “*berdintasun-edukiei*” buruz ari gara.

20 Arauari atxikitako ezarpen-ekintzak dira, baina ez dira arauan azaltzen (esate baterako, honelakoak: “sailak prestakuntza espezifiko bat aurreikusi du araua aplikatu ahal izateko”). Kategoriatan honako hauek identifikatu dira: Heda-pena indartzeko ekintzak, Jarraipena eta ebaluazioa egiteko jardunak, Estatistikak egokitzea eta azterlan espezifikoak egitea, Informatzeko, sentsibilizatzeko eta prestatzeko Ekintzak, Arauak, planak edo programak egokitzea edo hartzea, Berdintasunerako planak egitea, edo Egiturak edo zerbitzuak sortzea.

21 Izan ere, GETek, de facto, arau-proiektuen genero-edukiak identifikatzen dituzte, baina lehendik egin diren edo egitea aurreikusita dauden jardun osagarriak ere egiten dituzte (adibidez, “informazio-sistema berrikusi da genero-joera bat zuzentzeko”). Kasu horietan, azterketaren arabera, arauen zirriborroetan aurreikusitako neurri osagarriak dira, nahiz eta informazioa GETetik eratorri (era berean, GETek aipatzen dituzten berdintasun-neurriak ez dira proposamen berriak, baizik eta arauaren zirriborroan dagoeneko sartuta zeuden proposamenak dira). Arauaren idazkuntzan sartzeko neurriak baino gehiago ezarpena bideratutako neurriak dira, araua egiteko fasean definitzen diren neurriak, alegia. Neurri osagarrietan, ordea, eta gainerako neurrietan ez bezala, GETek ere egiten edo proposatzen dituzte arauaren sustatzaileak egindako proposamenean itxuraz sartuta ez zeuden jardun osagarriak (adibidez, “interesgarria izango litzateke erakunde onuradunek generoaren alorrean gaitasuna duten langileak izatea edo gai horretan adituak diren pertsonen aholkularitza izatea”). Kasu horietan, neurriak GETei esleitzen zaizkie espezifiki. Era berean, EET batzuek neurri osagarri berriak iradokitzen dituzte, eta neurri horiek EETek proposatutako neurri osagarri gisa ezarrita gertatzen dira. Azken arauak dagokienez, arau horiek neurri osagarriak barne hartzen ez dutenez, arrazoizkoa da onartzea arauaren zirriborro-fasean aurreikusitako neurri osagarriak (eta GET bidez identifikatu direnei) beren behin betiko bertsioan eutsi behar zaiela, eta azken arauak ere egozten zaizkiela. Dena den, azterketa egiteko erabilitako estrategiaren bitartez ezin da egiaztatuta neurri horiek ondoren ezartzen diren ala ez.

Hemen garrantzitsua da esatea, halaber, datuak aztertzeko eta aurkezteko unitatea espedienteak direla beti (generoaren arabera eraginari buruzko txostenak edo Emakunderen egiaztapen-txostenak, edo arauen zirriborroak edo behin betiko arauak, alegia), ez, ordea, neurriak berak; izan ere, neurrien zenbaketak ez zuen azterketa-gako sendorik ematen.

Emaitzak kontuan hartzen baditugu, ikus dezakegu Emakunderen egiaztapen-txosten gehienek genero-ikuspegia sartzeko neurriak (95) eta neurri osagarriak (78) proposatzen dituztela, eta askoz kasu gutxiagotan proposatzen dituztela arauan sartu behar diren berdintasun-neurri jakin batzuk (45). Aztertutako bi aldietan gauza bera gertatzen da, nahiz eta 2010ean 2015ean baino zertxobait maizago gertatzen den, neurri osagarrien kasuan izan ezik. Berrir ere, bilakaera arin hori azaltzeko hipotesia araua eta generoaren arabera eraginari buruzko txostena idazten dituzten eragileen ikaskuntza-prozesuarekin lotuta dago.

15. TAULA. Berdintasun-edukiak iradokitzen dituzten EgiaztapenTxostenak, neurri mota handien arabera

SEGURTASUN-NEURRIAK IRADOKITZEN DITUZTEN EGIAZTAPEN-TXOSTENAK	2010	2015	GUZTIRA
Gutxienez neurri bat genero-ikuspegia arauan sartzeko	50	45	95
Berdintasunari buruzko neurri zehatz bat gutxienez	25	20	45
Neurri osagarri bat gutxienez	38	40	78
GUZTIRA	50 (% 100)	46 (% 92)	96 (% 96)

Genero-ikuspegia sartzeari dagokionez iradokitzen diren proposamen zehatzak zein diren zehaztasunez aztertzen badugu, ikus dezakegu proposamen gehienak emakumeen eta gizonen artean dauden aldeei eta desberdintasunei buruzko ezagutza hobetzera, hizkuntzaren erabilera ez-sexistara eta berdintasuna eduki edo irizpide gisa sartzera bideratzen direla.

16. TAULA. Genero-ikuspegia arauan sartzeko neurriak iradokitzen dituzten Egiaztapen Txostenak, neurri motaren arabera

GENERO-IKUSPEGIA ARAUAN SARTZEKO NEURRIEN TIPOLOGIA	2010	2015
Emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetuz	44	39
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio edo helburu gisa edota adierazpen nahiz azalpen moduan sartuta	12	5
Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin edo sustatuta	42	33
Genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundearen parte-hartzea sustatuta	2	11
Berdintasuna eduki edo irizpide gisa hartuta (sartzeko, baloratzeko edo zeregina betetzeko) hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan, prestakuntza-jardueretan eta abarretan.	33	37
Bestelako neurriak	9	7
GUZTIRA	50 (% 100)	45 (% 90)

Puntu honetan garrantzitsua da esatea konplikatu dela genero-ikuspegia sustatzeko neurriak sartzeari buruzko bilakaeraren gaineko ondorio argiak ezartzea.

Izan ere, gidalerroetan item horri buruz egiten den galdera modu nahasgarrian eginda dago. Alde batetik, gure ikuspegiaren arabera hertsiki berdintasun-neurriak ez diren elementuak sartzen ditu (printzipioak sartzen ditu adierazpen gisa, edo hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da arauan bertan²², adibidez). Beste alde batetik, zabalegiak diren edo galde-sorta/txantiloien beste puntu batzuetan biltzen diren gaiekin ezkuta daitezkeen kategoria batzuk sartzen ditu. Era berean, neurri jakin batzuetan “berdintasuna sartzeko irizpide edo eduki gisa” proposatzen da, baina ez dira bat etortzen “hautaketa-prozesuen, diru-sarreraren, hitzarmenen edo prestakuntza-jardueren inguruan” ezarritako kategorien adierazpenarekin, ezta neurri zehatzen beste kategoriekin ere; horregatik “bestelako neurrien” zerrendaketan aurkeztu dira. Termino orokorretan, horrek ekarri du azterketaren ondorioak zuhurtiaz hartu behar izatea. Horregatik, gomendioei buruzko 5. atalean galdera horien argitasuna hobetzeko proposamenak egin ditugu.

Illo horretan, ebaluazio honetan, galdera horri buruzko emaitzak aurkezteaz gain, kategoria batzuk sakontasunez aztertzea erabaki da, kategoria batzuk bereizita aztertuz. Esate baterako, ondorengo ataletan zehaztasun handiagoz eta modu espezifikoagoan aztertuko dira berdintasun-helburuak, hizkuntzaren erabilera ez-sexista, eta berdintasuna hautaketa-prozesuetan eta enpresei laguntzak emateko garaian irizpide gisa sartzen duten kasu batzuk.

Dena den, Emakunderen Egiaztapen Txostenetan bi aldietan gehien aipatzen diren berdintasun-neurri zehatzak erakutsiko ditugu ondorengo taulan.

22 Illo horretan, hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzera bideratutako jardunak sartzeko berdintasun-neurri bat izango litzateke, baina arauaren zirriborroan hizkuntza sexista ez erabiltzea ezin liteke neurritzat hartu. Hala eta guztiz ere, neurrien zenbaketa orokorrean kasu horiek sartzeko erabaki da Emakunderen ikuspegiarekiko koherentziari eusteko.

17. TAULA. Berdintasun-edukiak iradokitzen dituzten Egiaztapen Txostenak, neurri mota nagusien arabera

BERDINTASUNARI BURUZKO NEURRI ZEHATZEN TIPOLOGIA	2010	2015	GUZTIRA
Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko neurriak	14	9	23
Ekintza positiboko neurriak	6	5	11
Itxuraz neutroak diren, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duten neurriak	9	11	20
Emakumeen desberdintasun-egoerak murrizteko neurriak, baldin eta diskriminazio anizkoitza pairatzen baldin badute	3	1	4
Debeku- eta zehapen-neurriak	4	4	8
GUZTIRA	25 (% 50)	20 (% 40)	45 (% 45)

Berdintasun-helburuen eta -neurrien eraginkortasunari laguntzera edo eraginkortasun hori areagotzera bideratuta dauden neurri osagarriei dagokienez, egiaztapen-txosten gehienek jardun motaren bat proposatzen dutela ikus daiteke.

18. TAULA. Neurri osagarriak sartzea iradokitzen duten Egiaztapen Txostenak

	2010	2015	GUZTIRA
Araua aplikatzeko neurri osagarriak	38	40	78

Proposatutako neurrien informazio deskriptiboak, ordea, ez du gako analitiko asko eskaintzen, sartu behar diren neurriak eraginpeko arau bakoitzaren ezaugarrien arabera arakatu direlako neurri batean, eta, horregatik, ez da datu horiei buruzko ondorioz atera, soil-soilik ondoriozta daiteke heterogeneotasun eta berrikuntza handiagoa edo txikiagoa dutela.

Puntu honetan, beraz, interesgarritzat hartzen dugu eduki zehatzaren ikuspegitik iradokitzen diren proposamen batzuei buruzko adibideak eman ahal izatea argigarri gisa. Hortaz, proposatutako neurri guztietan azaltzen diren eta nabarmendu diren gai batzuen zerranda egingo dugu (hau da, genero-ikuspegia sartzea proposatzen duten neurriak, neurri zehatzak eta neurri osagarriak barne):

- 4/2005 Legean azaltzen diren helburu koheziitzaileak sartzea.
- Etxeko erantzunkidetasuna gizarte-balio gisa sartzea:
 - Etxeko eta familiako eremuetan eskuratutako trebetasunak eta ikaskuntzak aitortzea.
 - Zaintzeko eta bateragarri egiteko neurriak.
- Honako hauek laguntzak eskuratzeko kasu kopurua handitzea:

- Generoa dela medio kalteberatasun bereziko taldeak (mendekotasun larria/moderata, genero-indarkeria, amatasunagatiko/aitatasunagatiko baja, denboraldi etena, eta abar).
- Bi sexuetako pertsonen enplegu ekitatiboa sustatzen duten proiektuak.
- Familia-unitatea kalkulatzeko pertsona kopurua handitzea mendekotasuna duten pertsonak gehituz; aita oldarkorrek kanpo uztea.
- Neurri ekonomikoak:
 - Laguntza ekonomikoari genero-ikuspegian egiten zaien jarraipena hobetzea.
 - Salbuespen edo hobari ekonomikoko neurriak hainbat kolektiborentzat, hala nola guraso bakarreko familientzat eta indarkeria-biktimentzat.
- Lekuak erabiltzearekin eta diseinatzearekin lotutako neurriak:
 - Genero-ikuspegia duten lekuen eta ekipamenduen sustapena ahaldundzea sustatzeko.
 - Ekipamendu-profila areagotzea zonifikazio batean ekipamendu maskulinizatuak ez ezik, feminizatuak ere sartzeko.
- Prestakuntza espezializatua:
 - Generoaren alorreko prestakuntza merezimenduetan sartzeko lanbide-lehiaketetan.
 - Generoaren alorreko prestakuntza espezifikoa hezkuntza-alorreko langileentzat.
- Ekintza positiboa emakumeen ordezkartza % 40tik beherakoa den azterlanetan.

Bestalde, aipatu behar da kasu batzuetan –batez ere 2010ean– EETetan eskatzen dela hainbat neurri esplizitu egitea. Neurri horiek dira, hain zuzen ere, GETetan esaten direnak aurreikusita daudela, baina arauan neurri gisa jasota ez daudenak.

Era berean, azaltzen diren maiztasuna kontuan hartuta, neurri batzuk nabarmenduko ditugu zehazki²³:

- Laguntzak edo diru-laguntzak eskuratzeko garaian berdintasuna enpresetan eta erakundeetan merezimendu gisa zenbateraino sustatzen den zenbatzera bideratutako neurriak²⁴, erakunde laguntzailearen estatusa balioetsiz edo puntuazio-baztermoetan Berdintasun-egiaztagiriak edo Berdintasun Planak sartuz.
- Merezimenduetan genero-indarkeriako egoerak direla medio edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeagatik eszedentzia egondako aldiak lan egindako denbora gisa zenbatzera bideratutako neurriak²⁵.
- Oposizioetan, proben egutegia egokitzea bideratutako neurriak, haurdunaldiaren edo erditzearen kasuan²⁶.

23 Neurri horiek genero-ikuspegiari buruzko neurrien atalean ere kontabilizatuta daude.

24 Neurri hori seigarren xedapen gehigarrian bilduta dago. Xedapen horrek 1/1997 Dekretua aldatzen du.

25 Neurri hori 4/2005 Legearen VI. kapituluaren (Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea) 48. artikuluan jasota dago.


26 Neurri hori 4/2005 Legean bilduta dago, atariko tituluaren barnean. 3. artikulua. Printzipio Orokorrak.

19. TAULA. Berdintasun-neurri espezifikoak sartzea iradokitzen duten Egiatzapen Txostenak

	2010	2015	GUZTIRA
Berdintasunaren aldeko enpresei eta erakundeei laguntzeko neurriak, administrazioarekin duten harremanari dagokionez	6	11	17
Lehiaketetan merezimenduei genero-ikuspegia emateko neurriak (eszedentzialdi jakin batzuk barne)	6	4	10
Proben egutegia egokitzeko neurriak	3	2	5
GUZTIRA	12	16	28

Jarraian, Egiatzapen Txostenetan proposatzen diren berdintasun-edukien **eraldaketa-maila** erakutsiko dugu. Eduki horietan, beraz, gidalerroetan aintzat hartzen diren neurri guztiak sartu dira (genero-ikuspegia sartzeari buruzko neurriak, neurri zehatzak eta neurri osagarriak)²⁷.

2. GRAFIKOA. Berdintasun-edukiak proposatzen dituzten Emakunderen Egiatzapen Txostenak neurri horien eraldaketa-gaitasunaren arabera, 2010., 2015. urteak eta guztira²⁸. Ehunekoak



27 Neurrien eraldaketa-maila lau irizpide kontuan hartzen dituzten hainbat dimentsioren nahasketatik abiatuta neurtzen da: bi irizpide neurriei buruzkoak dira, eta beste bi neurri horiek eragina duten arloari buruzkoak. Adierazle horren eraginkortasuna metodologiari buruzko eranskinean aurkeztuko dugu, baina hemen aurrera dezakegu kategoria horiek honako hauek direla: neurrien indar-edo gogortasun-maila, genero-egiturak aldatzeko duten eragin-maila, arauak gizarlean duen garrantzia eta neurri horrek eragina izan nahi duen erakundeek edo gai-eremuek aldatzeko duten erresistentzia-maila. Arauan edo txostenean neurriek lau irizpideak betetzen dituztela pentsa daitekeenean, esan daiteke generoaren eraldaketa-maila esanguratsua dela, hiru irizpide betetzen dituztenean, esan daiteke generoaren eraldaketa-maila nabarmena dela, bi betetzen dituztenean, tartekoa, eta bat betetzen duenean, neurrizkoa. Lau irizpideetako bakar bat ere betetzen ez duenean, esan daiteke eraldaketa-maila oso txikia dela edo ez dagoela eraldaketarik.

28 Grafikoko datuak kalkulatzeko, berdintasun-neurriak proposatzen ez duten Egiatzapen Txostenak ez dira kontuan hartu (bakar bat ere ez 2010ean eta 4 2015ean).

Bi aldietan egiazta daitekeenez, txostenen ia erdiek eraldatzeko tarteko gaitasuna dute, eta, ondoren, neurrizko gaitasuna dute.

Legegintzaldi bataren eta bestearen artean igo egin dira neurriak proposatzen diren kasuak (beharbada zirriborroak hobetu direlako: 2010ean 0 ziren, 2015ean, aldiz, 4 dira), eta neurrien anbizioa ere zertxobait hobetu da. Eragin txikia edo eraginik ez dutela esan dugun neurriak murriztu egin dira, eta neurrizko eragina dutenek, aldiz, zertxobait hobetu dute tarteko eraldaketa-gaitasuna eta eraldaketa-gaitasun nabarmena; nolana ere, ez dute eragin esanguratsua duten neurriak proposatzen.

EETak modu globalean aztertzen baditugu bi aldietan, ikus dezakegu txosten horietako neurrien batez besteko eraldaketa-gaitasuna 2,38ko puntuazioa izatetik 2,54ko puntuazioa izatera igaro dela 1etik (gutxieneko eraldaketa-gaitasuna edo eraldaketa-gaitasunik ez) 5era bitarteko eskalan (gehieneko gaitasuna). Ikuspegi horretatik begiratura, ikus dezakegu egiaztapen-txostenetan proposatzen diren neurrien anbizioa areagotu egin dela, eta hori modu positiboan interpretatu behar da; horrek ahalbidetzen digu txostenen proposamenen kalitatearen kalterako izango den errutinizazioa izatea alde batera uztea.

Berriro ere zuhurtziaz balioetsi behar dira emaitza horiek; izan ere, EETek neurri berriak sartzea proposatzen duten arauak aukera handiagoa edo txikiagoa eman dezakete gutxi-asko eraldatzaileak diren proposamenak egiteko.

EMAITZEN EBALUAZIOA ETA GEE-AREN ERAGINAK

2.3

Atal honetan, lehenik eta behin, genero-ikuspegiak azkenean onartutako araudian, 2005., 2010. eta 2015. urteei dagozkien laginetan, duen presentziari buruzko emaitzak aurkeztuko dira. Berdintasunerako Legeari buruzko aipamenak identifikatuko dira eta legegintzaldi horietan araudian sartutako berdintasun-neurriak aztertuko dira.

Ondoren, zehatzago aztertuko dira IX. eta X. legegintzaldietan araudiaren zirriborroaren eta azken araudiaren artean dauden aldeak, eraginaren ebaluazioak araudiaren edukian zenbateraino eragin duen ebaluatzeko.

GENERO-IKUSPEGIAK ETA BERDINTASUN-NEURRIEK ONARTUTAKO ARAUETAN DUTEN PRESENTZIA

2.3.1

GEEaren prozesuan proposatzen denaren arabera, genero-ikuspegiak araudian duen presentzia bi modutakoa izan daiteke: berdintasunari buruzko erreferentzia esplizituak sar daitezke (berdintasun-araudia aipatuz edo berdintasun-helburuak arauaren helburuetan sartuz) eta hainbat motatako neurri espezifikoak sar daitezke.

VIII. legegintzaldian (2004 eta 2005) **4/2005 Legeari buruzko 2 aipamen** soilik egiten dira (hori logikoa da Legea 2005ean onartu zelako), IX. legegintzaldian aipamen asko egiten dira, 34 aldiz, hain zuzen ere, eta X. legegintzaldian 41. Nahiz eta hobetzeko joera dagoela ikusten den, adierazi behar da gai hori ez dela sistematikoki sartu oraindik.

Arauaren idazkuntzan **berdintasun-helburuek** duten presentzia esplizituari dagokionez, VIII. eta IX. legegintzaldietako laginetan legegintzaldi bakoitzeko xedapen batek bakarrik sartzen ditu berdintasun-helburuak, X. legegintzaldian, ordea, berdintasuna helburu gisa sartzen duten arauen kopurua 9 da. Aztertutako arauetan erreferentzia kopurua urria izateak esan nahi du ezinbestekoa izango litzatekeela gehiago lantzea sektore-eremu desberdintasunetan berdintasuna egokia ote den identifikatzea; kontuan hartuta, gainera, berdintasun-helburuak hainbat eremutan identifikatzeak asko lagundu dezakeela errealtate desberdinetara egokitutako neurri espezifikoak definitzen.

Bestalde, 2010ean, arau gehienek **berdintasun-neurri** motaren bat sartzen dute: % 88k 2010ean eta % 96k 2015ean. Hortaz, jauzi kualitatibo oso handia eman da VIII. legegintzaldiarekin alderatzen badugu; izan ere, aztertutako arauen % 18k soilik dute berdintasun-neurriren bat legegintzaldi horretan, eta horrela argi eta garbi ikusten da Legearen garapenak duen eragina, eta, bereziki, GEEaren prozesuak duen eragina.

20. TAULA Berdintasun-edukiak dituzten arau onartuak, neurri mota handien arabera

	2005	2010	2015	GUZTIRA
Gutxienez neurri bat genero-ikuspegia arauan sartzeko	4	35	43	% 55
Berdintasunari buruzko neurri zehatz bat gutxienez	7	19	22	% 26
Neurri osagarri bat gutxienez ²⁹	1	6	39	% 81
GUZTIRA	9 (% 18)	44 (% 88)	48 (% 96)	101 (% 67)

Era berean, maizago gertatzen denez neurri eta eduki espezifikoak sartzea Berdintasunerako Legeari edo berdintasun-helburuei buruzko aipamen esplizituak egitea baino, GEEaren arrisku potentzialetako bat baztertuko dugu: arauetan asmoen adierazpenak edo berdintasun-araudiari buruzko erreferentziak sartzea besterik gabe eta neurri jakin batzuekin loturarik izan gabe. Nahi ez den ondorio hori ez da gertatu. Aitzitik, elkarriketetan ikusi dugu Berdintasunerako Legeari buruzko aipamenak sistematikoki sartzeko nolabaiteko mesfidantza dagoela praktikan, elkarriketa egin zaien pertsonak uste dutelako hori ziurtzat jo behar dela eta, beraz, argitzea errepikakorra izan daiteke, nahiz eta gure ikuspegitik garrantzitsua den erreferentzia esplizituei eustea erakundeen sentsibilizazioan eta ikaskuntzan horrek dauzkan ondorioengatik eta berdintasunaren garrantziak eta printzipio horrek berekin dakarren zeharkako izaerak duten onarpen sinbolikoarengatik. Berdintasun-helburuen definizioan izandako aurrerapenak erakusten du politika publikoak

29 21. oharrean adierazten denaren arabera, onartu da arauaren zirriborroetan aurreikusitako neurri osagarriak azken arauetan indarrean egongo direlako suposizioa; horregatik, neurri mota horri buruzko datuak nolabaiteko zuhurtziaz hartu behar dira. Taula honetan sartu dira, halere, berdintasun-edukiak dituzten neurriei buruzko datuak aurkezteko garaian koherentzia emateko txosten osoan.

genero-ikuspegitik aztertzeko gaitasuna hobetu dela, araudi bakoitzaren espezifikotasuna kontuan hartuta.

Neurriak sartzea zehaztasun handiagoz aztertu dugunean, egiaztatu dugu sartze hori aztertutako arau mota edozein izanda ere egiten dela: hiru laginak alderatzen baditugu, ikusiko dugu berdintasun-neurriak dituzten arauen kopurua igo egin dela arau mota guztietan, baina ez da horri buruzko eredu zehatzik ikusi.

21. TAULA. Berdintasun-edukiak dituzten arau onartuak, arau motaren arabera

	2005			2010			2015		
	Kop.	%	Guztira	Kop.	%	Guztira	Kop.	%	Guztira
Legea	1	33	3	np ³⁰	np	0	1	100	1
Dekretua	2	8	25	28	88	32	35	97	36
Agindua	5	25	20	16	89	18	11	92	12
Ebazpena	1	50	2	np	np	0	1	100	1
GUZTIRA	9	18	50	44	88%	50	48	96	50

IX. eta X. legegintzaldietan dagoen neurrien presentzia orokor hori garrantzi-maila desberdina duten arauetara (txikia, ertaina edo handia) heda daiteke. Ikus daiteke arauaren edukia zenbat eta garrantzitsuagoa izan orduan eta berdintasun-neurri gehiago sartzeko joera dagoela; esan daiteke joera hori positiboa dela, pentsa daitekeelako garrantzi guxtiago duten arauak teknikoagoak direla eta izaera horrek berdintasun-neurriak sartzea gehiago eragozten duela, eta, gainera, zenbat eta garrantzi handiagoa izan orduan eta berdintasunean eragiteko ahalmen handiagoa dutela. Merezi du esatea, 2015ean, oso garrantzitsutzat hartu diren arau guztiek sartu dutela berdintasun-edukiren bat –arauan bertan hizkuntza ez-sexista erabiltzea soilik izan bada ere–.

22. TAULA. Berdintasun-edukiak dituzten arau onartuak, arauaren garrantziaren arabera

	2005			2010			2015		
	Kop.	%	Guztira	Kop.	%	Guztira	Kop.	%	Guztira
Handia	1	100	1	8	89	9	10	100	10
Ertaina	5	23	22	19	90	21	24	96	25
Txikia	3	11	27	17	85	20	14	93	15
GUZTIRA	9	18	50	44	88	50	48	96	50

30 Ez da egokia laginak ez duelako arau mota hori.

Xehetasunetan sartzen bagara, lehendabizi, genero-ikuspegia sartzeko neurriak sartzen dituzten arauak balioetsiko ditugu, eta, ondoren, gainerako neurri zehatzak.

23. TAULA. Genero-ikuspegia sustatzeko neurriak dituzten arau onartuak, neurri motaren arabera

	2005	2010	2015
Emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetzen dute	0	2	7
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio edo helburu gisa edota adierazpen nahiz azalpen moduan sartzen dute	2	3	12
Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin edo sustatzen dute	0	14	17
Genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte-hartzea sustatzen dute	1	0	8
Berdintasuna eduki edo irizpide gisa sartzten dute (onartzeko, balioesteko edo egikaritzeko) hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan, prestakuntza-jardueretan eta abarretan.	3	26	36
Bestelakoak	0	4	1
GUZTIRA	4 (% 8)	35 (% 70)	43 (% 86)

Datuak neurri motaren arabera aztertzen baditugu, bilakaera positiboa dela esan dezakegu zalantzarik gabe, eta 2005. urtetik 2010. urtera bitarteko aldiaren egindako aldaketa nabarmendu behar da. 2015. urteari dagokionez, berdintasunak helburu gisa edo adierazpen gisa eta eduki eta irizpide gisa izan duen presentzia izandako hobekuntza nabarmendu behar da bereziki, baita generoaren alorrean adituak diren pertsonen edo erakundeen partaidetza sustatzea ere. Aurrerago xehetasun handiagoz eta espezifikoki aztertuko dira hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren gaia eta berdintasun-irizpidea hautaketa-prozesuetan eta laguntzak emateko jardunean maiz sartzen duten hainbat kasu.

Gidalerroetan aurreikusten diren 5 berdintasun-neurri nagusiak soilik hartzen baditugu kontuan, ikus dezakegu VIII. legegintzalditik X. legegintzaldira bitarteko aldiaren aurreratu dela, baina aldaketa hori ez dela hain handia izan, 2005ean 7 izatetik 19 eta 22 izatera igaro baitira, hurrenez hurren.

24. TAULA. Berdintasun-eduki zehatzak dituzten arau onartuak, neurri motaren arabera

	2005	2010	2015
Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko neurriak dituztenak	1	6	15
Ekintza positiboko neurriak dituztenak	1	5	7
Itxuraz neutroak diren, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duten neurriak dituztenak	2	6	9
Askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeen desberdintasun-egoerak murrizteko neurriak dituztenak	2	1	3
Debeku- edo zehapen-neurriak dituztenak	3	11	12
GUZTIRA	7 (% 14)	19 (% 38)	22 (% 44)
Neurri moten batezbestekoa, arauaren arabera ³¹	1,3	1,5	2,1


Gidalerroetan aurreikusitako funtsezko berdintasun-neurriak sartzen dituzten arauen ehunekoa igo izana oso modu positiboan irakurri behar da, baita arauaren araberrako neurri moten batez besteko kopurua igo izana ere. Hala eta guztiz ere, arauen xedeak oso desberdinak direnez, ezin da bilakaera horri buruzko eta neurri mota desberdinen artean dauden aldeei buruzko irakurketa zehatzik egin: neurri mota batean beste neurri mota batean baino gehiagotan hartzearen arrazoiak izan daiteke aldi horretan onartutako arauak ezaugarri batzuk izatea eta ezaugarri horiek direla medio berdintasun-neurri batzuk behar izatea eta beste neurri batzuk behar ez izatea.

Nolanahi ere, labur-labur esango dugu aztertutako aldietan onartutako arauetan gehien sartu den neurria sexu-arrazoiengatik diskriminatzen duen enpresa, erakunde edo pertsonen laguntza edo diru-laguntza publikoak esleitzea salbuesten duen neurria dela. Ondoren, kontsulta-organoetan, epaimahaietan edo erabakiak hartzeko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea ezartzen duen neurria dago, eta neurri horren ondoren itxuraz neutroak diren, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duten neurriak daude beste hainbat kolektibo espezifikoren artetik guraso bakarreko familientzat, zaintza-kargak dituzten edo genero-indarkeriaren biktimak diren pertsonentzat direlako.

Bestalde, **berdintasun-edukien gaitasun eraldatzailerak** izan duen bilakaera ere argia da. Gaitasun horren batez besteko puntuazioa egiten badugu 1etik 5era bitarteko eskala batean, ikusiko dugu 2005eko arauak 2,22 puntu lortu dituztela, 2010ekoak 2,25 eta 2015ekoak 2,48.


³¹ Neurriren bat sartzen duten arauak buruzko ehunekoa.

3. GRAFIKOA. Araudiko berdintasun-edukien batez besteko eraldaketa-maila



Zehatzago aztertzen badugu, ikusiko dugu gutxieneko eraldaketa-maila duten neurriak dituzten arauak 2005ean 0 izatetik (dena den, gogoratu behar dugu aldi horretan 41 arauk ez zutela inolako neurririk) 2010ean 7 eta 2015ean 3 izatera igaro zirela. Berdintasun-edukiak dituzten neurriak dituzten arauen kopurua handiagoa da 2010ean eta 2015ean (44 eta 48, hurrenez hurren) eta termino absolututan nabarmen igo dira eraldaketa nabarmeneko neurriak (22 eta 24, hurrenez hurren) eta tarteko eraldaketakoak (12 eta 17). 2005ean ez dago genero-harremanak eraldatzeko gaitasun nabarmena duen neurririk, eta 2010ean nahiz 2015ean 3 kasu proposatu dira. Anbizio handieneko neurriei dagokienez, garrantzi esanguratsuko jardunak proposatzen dituen arau bat bakarrik dago 2015ean.

4. GRAFIKOA. Berdintasun-edukiak dituzten neurri onartuak neurri horien batez besteko eraldaketa-gaitasunaren arabera, 2005., 2010. eta 2015. urteak. Ehunekoak



Araudia hobetzeko GEEak izan duen eragina ebaluatzeko, erabaki da modu kuantitatiboan eta erantsian balioestea prozesu horiek nola eragiten duten Eusko Jaurlaritzak emandako arauetan; horretarako, IX. legegintzaldiko lagina eta X. legegintzaldikoa alderatu dira.

Nolanahi ere, aldaketa horiek balioestea erraza ez denez, hainbat adierazle proposatuko ditugu, eta adierazle horiei esker eragin horiei buruzko ezaugarriak eman ahal izango ditugu hainbat hurbilketatik.

a) Alde batetik, **arauen bilakaerari buruzko panoramika orokorra** aurkeztuko dugu *berdintasun-neurriak eta -helburuak sartzen dituzten zirriborroen kopurua eta azkenean onartutako arauen kopurua* erkatuz. Horrela, ikuspegi erantsi batetik abiatuta, ebaluazioak araudian izan duen eraginera hurbil gaitezke. Dena den, kontuan izan behar dugu alderaketa horrek mugak dituela. Arrazoizkoa da pentsatzea onartutako araudian ahalik eta berdintasun-neurri kopuru handiena aurkitu nahiko genukeela, baina, halaber, egia da araudi guztietan ezin direla berdintasun-neurriak edo -helburuak sartu³².

Muga hori azterketan lantzeko, zehatzago alderatu dira arauaren zirriborroetan azaltzen diren proposamenak, GETak, EETak eta azkenean onartutako araudia; horretarako, bi adierazle espezifikoago garatu dira arau-xedapenetan egindako aldaketak eta neurri berriak sartu ote diren ikusteko.

b) Bestalde, kalkulatu da *izapidetzea gauzatu bitartean aldaketak egiten dituzten arauen ehunekoa zenbaterainokoa den txostenek aldaketak proposatzen dituzten guztizko arauekin alderatuta*. Adierazle horri **arauaren aldaketa-maila deitu diogu**. Era horretan, berdintasun-neurriak eta -helburuak sartzeari dagokionez, testuaren zirriborrotik azken testuraino zenbat arau aldatu diren erakutsi nahi dugu. Nolanahi ere, izapidetu bitartean izandako aldaketa-mailak ez digu berdintasunak arauetan duen presentzia-mailari buruzko informaziorik ematen; izan ere, litekeena delako neurriak edo helburuak beharrezkoak ez izatea edo hasieratik sartuta egotea lehenengo zirriborroan³³.

c) Hortaz, azken adierazle osagarri bat egin da, gidalerroetan aurreikusitako neurriak aintzat hartzen dituen. Eragile horrek *gidalerroetan aurreikusitako neurriak sartzen dituzten arauen kopurua eta neurri horiek sartu beharko lituzketen arauen kopurua alderatzen du*. Adierazle horri **berdintasun-neurriak sartzeari dagokionez izandako arrakasta** deitu diogu. Gidalerroetan zehaztutako neurriak sartu *beharko lituzketen* arauak zein diren ezartzeko, neurri horiek zirriborroan lehenetik zituzten arauak eta neurri horiek sartzea txostenetan gomendatu zitzaizen arauak elkarrekin kontabilizatu dira³⁴. Gure helburua

32 Sartu behar diren neurrien kopurua eta mota arauaren izaeraren mende dagoenez batez ere, neurri batzuk edo beste batzuk sartzea eskatzen duten arauen kopurua desberdina izan daiteke aztertutako aldi bakoitzean. Hau da, neurri batzuk edo beste batzuk sartzea egokia den arau multzoa, hasteko, desberdina izan daiteke lagin desberdinetan, eta horrek eragotzi egiten du arau horiek alderatzea. Ebaluazio honetatik kanpo geratzen zen gai horri erantzun liezaiokeen hurbilketa kualitatiboagoa eta ardaztuagoa egitea.

33 Adierazle horren muga hemen dago: litekeena da zirriborroan berdintasun-neurri edo -helburu kopuru handi bat sartzea, eta horren ondorioz, izapidetu bitartean egindako aldaketa-maila txikiak ez ekartzea berdintasuna arauan sartzea urria izatea. Horregatik, ezin da GEEaren eraginkortasuna arauaren zirriborroaren eta azken arauaren artean izandako aldaketa-maila soilik alderatuta ebaluatu. Ondoren azalduko dugunez, alderatze horrek erakusten du aldaketa txikiagoa dela X. legegintzaldian aurrekoan baino, baina hori gertatu da berdintasun-eragileek ikasi dutelako edo parte hartu dutelako, neurriak prozesuaren hasierako fasean sartzen direlako, GETa egin aurretik. Horrek erakusten du, beraz, prozesuak arrakasta izan duela, nahiz eta "lehenaren eta geroaren" neurketa hobekuntza horrekin lotuta ez egon.

34 Horrenbestez, suposatzen dugu GETek eta EETek berdintasun-arauak sartuta ez dauden eta neurri horiek sar daitezkeen arau guztiak (% 100) detektatzen dituztela. Adierazle horren muga dago gidalerroetan esplizituki aurreikus-

ez baita berdintasun-neurriak dituzten xedapenen ehunekora guztizkoa kontuan hartuta hurbiltzea –a) puntuak proposatzen den bezala–, baizik eta neurri horiek sartu *beharko lituzketen* xedapenak kontuan hartuta, betiere aurreuposatuz GETak eta EETak xedapen guztiak identifikatzen dituztela.

Modu batera edo bestera, aztertutako bi aldiak alderatzeak ahalbidetzen digu erakunde-ikaskuntza eremu horretan zenbaterainokoa den balioestea. Egindako elkarrizketei esker, honako hipotesi hau ezarri ahal izan da: GEEek balio izan dute, beharbada, arau bakoi-tza eraginaren aurretiko ebaluazio-prozesuari dagokionez hobetzeko ez ezik, ondorengo arauak ere hobetzeko erakunde-ikaskuntzako prozesu baten bitartez, testuak egiteko ze-reginean (eta beraz, GEEak egiteko zereginean) sartutako teknikariek aztertutako arau-diaren metaketarekin egonkortu den prozesuaren bitartez, alegia. Kasu guztien ikuspegi erantsiari esker hipotesi hori aldera dezakegu, nahiz eta etorkizunean komenigarria izango den gai hori espezifikoki aztertzea gai edo kasu jakin batzuk xehetasun handiagoz azter-tuz.

• GEE-A ETA ALDAKETAK ARAUDIAN


Arauen zirriborroen eta onartutako xedapenen artean dauden aldeak aztertzen badi-tugu, ikus dezakegu eraginaren aurretiko ebaluazio-prozesuaren ondorio diren arauetan egiten diren aldaketak (berdintasun-eduki guztiak eta hizkuntzaren erabilera ere sartuta) urriak direla, eta, gainera, urriagoak direla 2015ean 2010ean baino.

Hizkuntzari buruz gertatu dena sakonago aztertzen badugu, ikusiko dugu nahiz eta erabi-lera sexista nagusitzen den (mailaren batean), gai horri buruzko nolabaiteko hobekuntzak daudela. Ikusi dugu, 2005ean, kasuen % 88an zegoela erabilera sexista partziala edo erabatekoa, baina errealitate hori aldatu egin dela 2010az geroztik. Arauen 100 zirriborro-tatik 73an ikusi dugu hizkuntzaren erabilera partzialki sexista dagoela³⁵ (2010ean 41 eta 2015ean 32), eta onartutako arauen kasuan, ehuneko hori 63ra murriztu dela (2010ean 33 eta 2015ean 30). Erabilera partzialki sexista horrek erakusten du nolabaiteko borondatea dagoela zuzentzeko, baina asmo hori ez da erabat betetzen. Hortaz, bilakaera positiboa da, baina egoera askoz ere gehiago hobetu daiteke oraindik.

ten diren neurriak soilik aintzat hartzen dituela, eta neurri horiek dira, hain zuzen ere, espedienteetako dokumentu guztietan modu sistematikoagoan aztertu ahal izan direnak.


35 Puntu honetan ez diogu GETek eta EETek esaten dutenari helduko, baizik eta araudian egiten den hizkuntzaren erabi-lera sexistari dagokionez ikertzaileek egin duten balioespenari helduko diogu.

5. GRAFIKOA. Hizkuntzaren erabilera onartutako arauetan (VI., IX. eta X. legegintzaldiak). Ehunekoak



Gainera, hizkuntzaren erabilera oker hori murrizten ari bada ere, GEEaren prozesuan erabilera hori partzialki ere zuzentzen ez duten arauen kopurua zertxobait igo da, ordea. Nolanahi ere, nabarmendu behar da 2015ean bikoiztu egin dela zirriborroan hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzen duten testuen kopurua, eta horrek azaltzen du, neurri batean, zuzenketa txikiagoa izatea.

6. GRAFIKOA. Hizkuntzaren erabilera sexistan egindako aldaketak dituzten arauak (IX. eta X. legegintzaldiak). Ehunekoak



Horrez gain, esan behar da, hizkuntzaren erabilera oker horren ezaugarriak zehatzago aztertzen badira, ikus daitekeela aurrerapen kualitatibo nabarmena izan dela; izan ere, 2010eko arauak dagokienez, zirriborroetan maskulino generikoen erabilera erabat hegemonikoa zen; aitzitik, 2015ean, zirriborroetan eta azken arauetan erabilera mistoa egiten da, kasu batzuetan maskulino generikoak erabiliz eta beste kasu batzuetan modu banatuak erabiliz. Halaber, adierazi behar dugu hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruz Egiaztapen Txostenetan egiten den aipamen bakarra maskulino generikoei buruzkoa dela. Desiragarria izango litzateke, beharbada, emakumeak ikusezin bihurtzen edo genero-estereotipoak indartzen lagundu dezaketen hizkuntzaren beste elementu batzuk identifikatzea, eta horri buruzko proposamenak egitea.

Berdintasun-helburua arauan sartzeari dagokionez, helburu hori oso gutxitan aipatzen da. Aurreko atalean adierazi dugunez, 2010ean behin aipatzen da, eta 9 aldiz 2015ean, eta eraginpeko arauen zirriborroen eta behin betiko testuen artean ez dago aldaketarik. Hau da, kasu bakar batean ere ez da berdintasun-helburua sartu arau-xedapenean GEEaren prozesuaren ondorio gisa, eta, egia esan, txostenek ez dute horrelakorik proposatu.

25. TAULA. Berdintasuna helburu gisa sartzeari dagokionez

	2010	2015
Arauen zirriborroan	1	9
Behin betiko arauan	1	9
Berdintasuna helburu gisa sartzeari dagokionez arauen kopurua areagotzea	0	0

Berdintasun-edukiak aintzat hartzen baditugu, ikusiko dugu arestian aipatutako joera azaltzen dela berriro ere: 2015ean eduki horien kopurua handiagoa da, baina 2010ean ikusten da GGEaren prozesuaren eragina handiagoa dela, arauaren hasierako bertsioaren eta azkenekoaren artean dagoen aldaketa handiagoa delako. Izan ere, 2015ean, GEEak ez zuen aldaketa kuantitatiborik sortu sartutako edukien kopuruari dagokionez arauaren zirriborroan eta azken arauaren artean.

26. TAULA. GEEaren prozesuaren ondorioz genero-edukiak sartzeari dagokionez arauen areagotzea, neurri mota handien arabera

	2010			2015		
	AZ ^a	OA ^b	Igoera	AZ ^a	OA ^b	Igoera
Gutxienez neurri bat genero-ikuspegia arauan sartzeko	31	35	+4	43	43	0
Berdintasunari buruzko neurri zehatz bat gutxienez	17	19	+2	22	22	0
Neurri osagarri bat gutxienez ³⁶	6	6	0	39	39	0
Eduki horietakoren bat sartzeari dagokionez arauen kopurua areagotzea	41	44	+3	48	48	0

a. Arauen zirriborroa. b. Onartutako araua.

Genero-ikuspegia sartzeko neurriek bereziki duten presentziari dagokionez, ikus dezakegu aztertutako bi aldietan, hizkuntzaren erabilerraz buruzko neurria eta berdintasuna hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan edo prestakuntza-jardueretan sartzeari dagokionez arauen kopurua areagotzen direnak.

36 Gogoratu behar dugu gure abiapuntua arau-zirriborroetan aurreikusitako neurriak azken arauetan indarrean jarraitzen dutela suposatzea dela (ikus 29. oharra).

27. TAULA. GEEaren prozesuaren ondorioz genero-ikuspegia sartzeko neurriak sartzen dituzten arauen areagotzea, motaren arabera (IX. eta X. legegintzaldiak)

	2010			2015		
	AZ ^a	OA ^b	Igoera	AZ ^a	OA ^b	Igoera
Emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetzen dute	2	2	0	7	7	0
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio edo helburu gisa edota adierazpen nahiz azalpen moduan sartzen dute	3	3	0	10	11	+1
Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin edo sustatzen dute	8	14	+6	15	17	+2
Genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte-hartzea sustatzen dute	0	0	0	8	8	0
Berdintasuna eduki edo irizpide gisa sartzen dute (onartzeko, balioesteko edo egikaritzeko) hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan, prestakuntza-jardueretan eta abarretan.	25	26	+1	36	36	0
Bestelakoak	1	4	+3	1	1	0
Neurri horietakoren bat sartzen duten arauak	31	35	+4	43	43	0

a. Arauaren zirriborroa. b. Onartutako araua.

Gidallerroetan aurreikusitako berdintasun-neurri zehatzak aintzat hartzen baditugu, ikus dezakegu neurri horietakoren bat sartzen duten arauen kopurua igo egin dela, 2010ean 2 gehiago daude, eta 2015ean ez dago bakar bat ere gehiago. Nolanahi ere, hasieran neurri bakar bat ere ez zuten eta bakarren bat izatea lortzen duten ia araurik ez izateak ez du esan nahi zirriborroan berdintasun-neurriren bat sartuta zeukaten arauetan ez dela inolako aldaketarik egin. Aldaketak izan dira, baina gutxi. Kasu honetan aldaketa batzuk ikus ditzakegu. GEEari esker 2010ean arau gehiagotan sartu den neurria partaidetza orekatua izatea sustatzen duena da (hasieran 4 arautan azaltzen zen, baina gero 6tan azaldu da); aitzitik, 2015ean, gora egiten duen neurri mota bakarra zehapen-neurriak dira: behin gehitu dira.

28. TAULA. GEEaren prozesuaren ondorioz berdintasun-neurri zehatzak sartzen dituzten arauen areagotzea, gidalerroetan aurreikusitako neurri motaren arabera (IX. eta X. legegintzaldiak)

	2010			2015		
	AZ ^a	OA ^b	Igoera	AZ ^a	OA ^b	Igoera
Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko neurriak	4	6	+2	15	15	0
Ekintza positiboko neurriak	5	5	0	7	7	0
Itxuraz neutroak diren, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duten neurriak	6	6	0	9	9	0
Emakumeen desberdintasun-egoerak murrizteko neurriak, baldin eta diskriminazio anizkoitza pairatzen baldin badute	1	1	0	3	3	0
Debeku- eta zehapen-neurriak	10	11	+1	11	12	+1
Neurri horietakoren bat duten arauak	17	19	+2	22	22	0

a. Arauaren zirriborroa. b. Onartutako araua.

Kontuan hartzen badugu neurri mota bat edo bestea aukeratzeko erabakia onartutako arauaren ezaugarrien arabera dela batez ere, ezin dugu datu horiei buruzko ondorio garbirik atera.

Berdintasun-eduki guztiak elkarrekin aztertu ondoren (neurri osagarriak izan ezik, neurri horietan ezin baita jakin zer bilakaera izan zuten, arauen testuetan sartzen ez zirelako), esan dezakegu IX. legegintzaldian arauen % 36 soilik aldatu zirela; ehuneko hori erdira baino gehiagora murrizten da, 2015ean % 14 aldatu baitziren.


29. TAULA. Berdintasun-edukiei buruzko aldaketak sartzea behin betiko arauan

	2010		2015	
	Kop.	%	Kop.	%
Aldaketak sartu dituzten arauak	18	36	7	14
Aldaketarik sartu ez duten arauak	32	64	43	86
GUZTIRA	50	100	50	100

Dena den, ikusi dugunez, X. legegintzako arau gehiagotan sartu dira hainbat motatako berdintasun-edukiak (aldaketak hizkuntzan edo genero-ikuspegia sartzeko bestelako neurriak edo neurri zehatzak). Hori dela medio azterketa osoan egiaztatuko den ondorio bat atera daiteke: IX. legegintzaldian arauak iragazkorragoak ziren araua egiteko eta izapidetzeko prozesuan aldaketak sartzeko, baina X. legegintzaldian berdintasun-eduki kopuru handiagoa sartu zen zirriborroan, eta horrek ekarri du interpretazioa zehaztea eta balantze positiboa egin ahal izan dugu.

Orobat, ondorengo grafikoan ikus dezakegu IX. legegintzaldian egindako aldaketen artean, gehienak hizkuntzan soilik oinarritzen direla; 2015ean, aldiz, eduki-aldaketa gehiago egin dira³⁷. Hala eta guztiz ere, aztertutako lehenengo legegintzaldia iragazkorragoa zenez, legegintzaldi horretan bigarren baino funtsezko sarrera gehiago egin dira (% 14 batean; bestean, aldiz, % 8).

7. GRAFIKOA. Aldaketak sartzea onartutako arauetan. Ehunekoak



Guztizko arauetan izan ordez³⁸ txostenek aldaketak iradokitzen dituzten arauetan aldaketak sartzen dituzten arauen kopurua (*aldaketen sartze-mailaren* adierazlea) aztertzen badugu, gorago aipatutako joera dagoela egiaztatuko dugu: aztertutako lehenengo legegintzaldiko arauen iragazkortasuna bigarren legegintzaldiko arauena baino bi aldiz handiagoa da.

30. TAULA. Aldaketen sartze-maila

	2010	2015	GUZTIRA
Txostenek aldaketak proposatzen dituzten arauak	50	46	96
Aldaketak egin diren arauak	18	7	25
Aldaketen sartze-maila	% 36	% 15	% 26

Azkenik, zirriborroko neurriak azken arauan sartzeari buruzko hurbilketa kualitatibo bat eginez, sartutako neurrien gaitasun eraldatzailea aztertuko dugu. Azterketa horren birtatez ikus daiteke, orokorrean, neurrien eraldaketa-gaitasunari dagokionez, izapidetze-prozesuek ez dituztela arauentzako hobekuntza handiak ekartzen bi legegintzaldietako bakar batean ere; hobekuntza hori, gainera, txikiagoa da 2015ean 2010ean baino.

37 Aldaketa horien barnean hizkuntzaren erabileran izandako aldaketak ere sar daitezke.

38 Kontuan izan behar da aldaketak sartzeak ez duela esan nahi GEE osoan iradokitako aldaketa guztiak onartzen direnik. Litekeena da oso funtsezko aldaketak egitea edo aldaketa txikiak egitea, eta litekeena da aldaketa batzuk egin izana eta beste aldaketa batzuk baztertu izana.


31. TAULA. GEEaren prozesuaren ondorioz berdintasun-edukiak sartzen dituzten arauen areagotzea, neurrien eraldaketa-gaitasunaren arabera (IX. eta X. legegintzaldiak)

	2010			2015		
	AZ ^a	OA ^b	Igoera	AZ ^a	OA ^b	Igoera
Neuririk ez	9	6	-3	2	2	0
Gutxieneko eraldaketa edo eraldaketarik ez	6	7	1	4	3	-1
Neurritzko eraldaketa	24	22	-2	25	24	-1
Eraldaketa ertaina	10	12	2	17	17	0
Eraldaketa nabarmena	1	3	2	1	3	2
Eraldaketa esanguratsua	0	0	0	1	1	0
Neurriak dituzten proposamenen batez besteko puntuazioa (1-5 eskala)	2,15	2,25	+0,10	2,38	2,48	+0,10

a. Arauaren zirriborroa. b. Onartutako araua.

Neurriek eraldatzeko duten batez besteko gaitasuna 1etik 5era bitarteko eskala batean elkarrekin aztertzen badugu, ikusiko dugu arauen bilakaera berdina dela 2010ean eta 2015ean; 2,15etik 2,25era bitarteko batez besteko puntuaziokoa eta 2,38tik 2,48ra bitarteko puntuaziokoa, hurrenez hurren. Hortaz, GEEaren prozesuaren eragin kualitatiboa berdina da; nolanahi ere, 2015ean, azken emaitzak hobeak dira sartu diren berdintasun-edukien presentzia handiagoa delako hasieratik.

8. GRAFIKOA. Zirriborroetako eta onartutako arauetako berdintasun-edukien batez besteko eraldaketa-maila (IX. eta X. legegintzaldiak)



• BILAKAERA, NEURRI MOTA ESPEZIFIKOEN ARABERA

Atal honetan berdintasun-neurri batzuei buruzko xehetasun handiagoa emango dugu. Neurri horiek esplizituki definituta daude 4/2005 Legean eta espezifikoki bilduta daude gidalerroetan, eta, beraz, edozein arau-xedapenetan nahitaez eta zuzenean sartu behar dira. Neurri horiek honako hauek dira: emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea, berdinketa hausteko klausula (edo ekintza positiboko beste modu batzuk), eta sexuatikoko diskriminazioa dela medio pertsona fisikoak eta juridikoak kontratatzeko edo haiei diru-laguntzak emateko debekua.

GEEak duen eragina balioesteko, *berdintasun-neurriak sartzearen arrakasta* izeneko adierazlea hartuko dugu aintzat, eta emandako arauetan neurriek duten presentzia eta neurri zehatz horiei dagokienez sartu behar ziren neurrien presentzia alderatuko ditugu.

a) Presentzia orekatua izatea

4/2005 Legearen 20. artikuluan honako hau ezartzen da: *“egoki ikusten diren beste neurri batzuk ere hartu ahal diren arren, enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen-prozesuak erregulatzen dituzten arauak honakoak izan beharko dituzte: Klausula bat, hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izango dela bermatzeko”*

Betebehar horren 5. atala ere aplikatu behar dute epaimahaiak diru-laguntzen kasuetan edo antzekoetan. Honako hau ere ezartzen da: ordezkartza orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkartza baldin badu. Gainerakoetan, sexu biak ordezkartuta daudenean. Era berean, adierazten da, soilik salbuespen gisa eta txosten arrazoitu eta organo eskudunak onartutako txosten bidez, justifika daitekeela betebehar hori ez betetzea.

Gainera, 23. artikuluan kontsulta-organoak aipatzen dira honako hau esaten denean: *“euskal herri-aginte guztiek, euren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatu etako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutako artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo beste-lakoak hartuko dituzte”*

Neurri mota horretan ia ez da aldaketarik ikusten arauen zirriborroen eta onartutako arauen artean, baina asko ikasi dela ikusten da; izan ere, 2010ean neurria sartu beharko luketen arauen % 33k sartzen dute, 2015ean, aldiz, % 63k sartzen dute.

Gainera, eraginpean hartutako erakunde moten artean ez da alderik ikusi, “ez-ohiko” taldeen kasuetan izan ezik (lantaldeak, negozio-aztordeak eta abar), talde horietan ez baita neurria sartu, nahiz eta egiaztapen-txostenak bi aldiz iradoki 2010ean eta 3 aldiz 2015ean.

32. TAULA. Presentzia orekatua izateari buruzko berdintasun-neurriak sartzearen arrakasta

	2010				2015			
	AZ ^a	ET ^b	OA ^d	Sartzearen arrakasta	AZ ^a	ET ^b	OA ^d	Sartzearen arrakasta
Balioesteko edo ebaluatzeko epaimahaiak eta batzordeak	2	3	2	% 40	11	1	11	% 91
Aholku-organoak	1	4	1	% 20	3	1	3	% 75
Sariak emateko epaimahaiak	1	0	2	% 200	1	0	1	% 100
Zuzendaritza-organoak	0	5	1	% 20	0	4	0	% 0
Beste talde batzuk	0	2	0	% 0	0	3	0	% 0
GUZTIRA	4	14	6	% 33	15	9	15	% 63

a. Arauaren zirriborroa. b. Egiaptapen-txostena. d. Onartutako araua.

Adierazi behar da, gainera, IX. legegintzaldian kasu batean iradoki dela neurri mota hori sartzea generoaren araberrako eraginari buruzko txosten batean eta, beste kasu batean, mota horretako neurri bat sartu dela (epaimahaietan) bi txostenetako bakar batean ere proposatu gabe.

b) Sexua dela medio diskriminatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak kanpo uztea

Gidalerroek debeku- edo zehapen-neurriak sartzeko aukera ematen dute³⁹. Aztertutako kasu guztietan, debeku horrek honako honi egiten dio erreferentzia: sexuagatik diskriminatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak laguntza publikoetatik edo diru-laguntzetatik kanpo uztea.

Neurri hori aztertutako arauetan hedatzeari dagokionez, ikusi da arrakasta handia izan duela aplikatzeko garaian (aplikatu behar zen 10 kasuetatik 8tan aplikatu da gutxi gora-behera), baina GEEaren prozesuaren eraginkortasuna txikia izan dela (bi kasuetan behin bakarrik sartu da neurri hori). Bestalde, azterketak ez du erakusten ikaskuntza izan denik; izan ere, sartutako zehapen-neurri kopurua oso antzekoa da bi kasuetan, eta sartzeak izan duen arrakasta ia berdina da bi aldietan (% 79 eta % 80, hurrenez hurren).

39 Zehazki, Berdintasunerako Legeak, 3. artikuluan garatutako tratu-berdintasunaren printzipioaren bitartez, honako hau ezartzen du: «Euskal agente publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.»; era berean, 1/1997 Legegintza Dekretua aldatzen du, honako hau proposatuz: «Titulu honetan erregulatutako diru-laguntzen eta bestelako laguntzen deialdietara ezin izango dira aurkeztu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penala jasotako pertsona fisikoak edo juridikoak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela bide debeku horrekin zigortutakoak ere». Ildo horretan, garrantzitsua da nabarmentzea Legean (2. artikulua) adierazten dela, halaber, bere printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkiela, baita «erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri-aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzat-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak badira».

33. TAULA. Sexua dela medio diskriminatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak baztertzeari buruzko neurriak sartzeak izandako arrakasta

	2010				2015			
	AZ	ET	OA	Sartzearen arrakasta	AZ	ET	OA	Sartzearen arrakasta
Mota horretako neurriak sartzetik dituzten arauak	10	4	11	% 79	11	4	12	% 80

c) Ekintza positiboa

Gidalerroetan emakumeei bideratutako edo gizonei bideratutako ekintza positiboa aipatzen da, baina kasu bakar batean ere ez dugu aurkitu bigarren motako ekintza positiborik. Identifikatu dugun eta legean aurreikusita dagoen ekintza positibo nagusia "berdinketa hausteko klausula" izenekoa da. Klausula hori Berdintasunari buruzko azken xedapenen artetik bigarreanean dago zehaztuta eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 7ko 6/1989 Legea aldatzen du honako paragrafo hau eranstean baitu:

«2. Trebetasun berberak badituzte, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkaritza % 40 baino gutxiago den administrazioen elkargoetan, eskaletan eta kategorietan, ondoko kasuan izan ezik: beste hautagaiak neurria ez ezartzea justifikatzeko arrazoiak baldin baditu eta arrazoi horiek sexuari dagokionez baztertzailak ez badira, esaterako, enplegura sarbidea izateko zailtasun bereziak dituen beste talderen batekoa bada.»

34. TAULA. Ekintza positiboak sartzearen arrakasta

	2010				2015			
	AZ	ET	OA	Sartzearen arrakasta	AZ	ET	OA	Sartzearen arrakasta
Ekintza positiboa	5	6	5	% 45	7	5	7	% 58

Taulan ikusten da emakumeei bideratutako ekintza positiboak –sartu beharko liratekeenak– ez direla sartu bi aldietako bakar batean ere.

d) Diskriminazio anizkoitza zuzentzera bideratutako neurriak

Diskriminazio anizkoitza gidalerroetan azaltzen den elementu bat da, 4/2005 Legearen printzipio orokor gisa aurreikusita dagoelako (3.1.c artikulua). Dena den, legean ez da gai horri buruzko neurri zehatzik proposatzen, eta horrek azal dezake, beharbada, arauetan ez ezik, generoari buruzko txostenetan edo egiaztapen-txostenetan ere ikusten dugun diskriminazio anizkoitza pairatzen duten kolektiboetara bideratutako neurri gutxi izatea.

Aztertutako espedienteetan emakumeen hiru kolektibo espezifikoari buruzko neurriak aurkitu ditugu: emakume desgaituak, landa-eremuko emakumeak eta langabezia dauden eta familia-kargak dituzten emakumeak.

35. TAULA. Diskriminazio anizkoitzera bideratutako neurriak sartzearren arrakasta

	2010				2015			
	AZ	ET	OA	Sartzearen arrakasta	AZ	ET	OA	Sartzearen arrakasta
Landa-eremua	0	0	0	ee	1	1	1	% 50
Desgaitasuna	0	3	0	% 0	2	0	2	% 100
Langabezia eta familia-kargak	1	0	1	% 100	0	0	0	ee

e) Itxuraz neutroak diren, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duten neurriak

Arestian aipatutako kolektiboez gain, azterketan ikusi dugu beste kolektibo espezifiko batzuen egoerari laguntzera bideratutako beste neurri batzuk daudela. Izan ere, "itxuraz neutroak diren, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duten neurriak" buruzko atalean ikusi dugu hainbat kolektibori laguntzeko diren neurri multzo bat dagoela. Kolektibo horiek honako hauek dira: zaintzeko kargak dituzten emakumeak, guraso bakarreko familiak, indarkeriaren biktimak diren emakumeak (eta egoera horietako baten baino gehiagoren gainjartzea), sektore espezifiko bateko kide diren emakumeak edo programa jakin batzuetan parte hartzen duten emakumeak. Kasu honetan ikusi da hobekuntza bat dagoela neurriak sartzeari dagokionez; izan ere, sartzea komenigarria izango liratekeen neurrien kopurua % 40 zen; 2015ean, aldiz, % 45 da.

36. TAULA. Itxuraz neutroak diren, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duten neurriak sartzearren arrakasta

	2010				2015			
	AZ	ET	OA	Sartzearen arrakasta	AZ	ET	OA	Sartzearen arrakasta
Genero-inpaktu positiboa duten neurriak	6	9	6	% 40	9	11	9	% 45

f) Ezarpena bultzatzera bideratutako neurri osagarriak

Atal hau bukatzeko, onartutako arauetan erregistratuta ez dauden, baina arauetan aurreikusitako berdintasun-helburuen eta -neurrien eraginkortasuna areagotzera bideratuta dauden neurri mota bat aipatuko dugu⁴⁰. **Neurri osagarriak** dira: hau da, ezarpenari laguntzera bideratutako arauzkoak ez diren neurriak, hala nola estatistikari buruzko informazio-sistema edo jarraipena egiteko sistema aldatzea edo hedapenerako eta prestakuntzarako jardunak bultzatzea.

Neurri horiek erregistratuta daude GEEtan eta EETetan eta ez dute ondorengo monitorizazio-sistemarik; horregatik, GEEaren esparruan ezin da jakin benetan aplikatu diren ala ez. Nolanahi ere, erregistratuta azaltzen direnaren arabera, esan dezakegu arauaren

40 Arestian adierazi dugunez, gai honi buruzko datuen aurkezpena egin denean, onartu da araua egiteko garaian proposatutako neurri osagarriak indarrean daudela onartutako arauan.

hasierako proposamena egiten denean, 2010ean 6 aldiz proposatzen direla mota horretako neurriak, eta 39 aldiz 2015ean. Horrenbestez, ikusten da igoera handia dagoela, berdintasun-neurri eta -helburu kopurua igotzeko joera orokorrarekin bat datorrena, eta horrek esan nahi du ikaskuntza-prozesu bat dagoela sailen aldetik, sailek gaitasun handiagoa dutelako ahuleziak identifikatzeko eta, horrenbestez, politikak egiteko prozesuan aldaketak proposatzeko.

GETek, puntualki, eta batez ere 2010ean, neurri osagarriak proposatzen dituzte, gehiengotik jarraipena hobetzeko. EETetan proposatzen diren neurriei dagokienez, txosten horiek neurri osagarriak proposatzen dituzte kasu askotan, 2010ean nahiz 2015ean, eta mota askotariko neurriak aipatzen dituzte. Neurri gehienak estatistikak hobetzeko eta azterlan espezifikoak egiteko neurriak dira (batez ere 2015ean). Neurri motari dagokionez, Egiaz-tapen Txostenetan gehien iradokitzen diren neurriak, arestian esan dugunez, estatistikak egokitzeak eta azterlanak egitekoak dira eta ondoren, informazioa ematekoak eta sentsibilizatzekoak daude; arauetan, ordea, gehien sartzen diren neurriak sentsibilizazioari buruzkoak dira, eta ondoren aurrez ezarritako kategoria bakar batekin bat ez datozenak eta jarraipena egitekoak eta ebaluazioa egitekoak daude.

37. TAULA. Dokumentuetan erregistratuta dauden berdintasunerako helburuen eta neurrien eraginkortasuna osatzera edo areagotzera bideratutako neurrien presentzia, neurri motaren arabera

	AZ		GET		EET	
	2010	2015	2010	2015	2010	2015
Informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza	1	26	0	0	5	8
Hedapena indartzea	1	2	0	0	5	1
Jarraipena eta ebaluazioa	5	11	16	1	13	9
Estatistikak egokitzea eta azterlanak egitea	3	9	1	0	29	34
Egiturak edo zerbitzuak sortzea	0	1	0	0	0	1
Bestelakoak	0	25	1	0	0	3
GUZTIRA	6 (% 12)	39 (% 78)	18 (% 36)	1 (% 2)	38 (% 76)	40 (% 80)

Ebaluazio honetan ikusi ahal izan dugu GEEa finkatzeko prozesu bat dagoela Eusko Jaurlaritzan.

Begien bistakoa da tresna horri esker aurrera egin ahal izan dela araugintzako ohiturak aldatzen; izan ere, eragile kopuru handi baten sentsibilizazioa eta ikaskuntza lortu da, Berdintasunerako Legearen ezarpena indartu da, berdintasun-unitateen eta zuzendaritza sektorialen artean harremana izateko eta lankidetzan jarduteko gune berriak sortu dira, eta berdintasun-edukiak eta -neurriak araudian sartzea erraztu da.

Egindako azterketari esker, halaber, generoaren arabera eraginaren ebaluazio-ereduaren berezkoak diren tentsio batzuk identifikatu dira, eta hobetzeko aukerei buruzko gogoeta egiteko aukera eman dute.

EZARPENARI ETA PROZEDUREI DAGOKIENEZ

2.4.1

• EZARPEN-EREDUA

Azterketari esker jakin ahal izan dugu ahultasun batzuk daudela GEEa ezartzeko hasieran diseinatutako eredu praktikan jartzeari dagokionez.

Zehazki, ikusi da inkongruentziak daudela eraginari buruzko txostenaren egilea izango den eragileari buruz –eragile hori ez baita araua idazten duen eragile bera izaten–, txostena idazten den legegintza-prozesuaren uneari buruz –oso gutxitan izaten da hasierako fasea– eta berdintasun-eragileen zereginari buruz –beti ez da aholkuak eta laguntza emateko izaten, baizik eta GEE osoa egitea ere izan daiteke–. Dena den, Eusko Jaurlaritzan sustatutako ezarpen-eredua nabarmen betetzen da GEEa egitearen xede den arau motari dagokionez. Izan ere, ikusten da tresna horrek arau mota guztiak hartzen dituela bere barnean eta aplikazio sistematikoa duela.

38. TAULA. Eusko Jaurlaritzak proposatutako GEEaren eredu betetzea

	EREDUA	BETETZEN AL DA?
Nork?	Araua egiten duen eragileak	Ez beti.
Noiz?	Araua egiten den bitartean	Ez.
Zenbat?	4/2005 Legean xedatutako arau sorta zabal batean	Bai.
Berdintasuneko unitateen zeregina?	Laguntza eta aholkuak ematea	Ez beti.
Egiaztapen-txostenen zeregina?	GEEaren kalitatea egiaztatzea eta ikaskuntza sortzea	Ez du ikaskuntza esanguratsurik sortzen

GEEen ezaugarriak dagokienez, azterketan ikusten da nolabaiteko ikaskuntza dagoela epe luzera. Hainbat alderdi hobetu dira, hala nola proposatutako araudiaren generoaren arabeko eragina identifikatu da, txostenaren txantiloia behar bezala erabili da, azterketa generoaren ikuspegitik edo aniztasunaren ikuspegitik egiteko oinarritzko kontzeptuak erabili dira eta sartutako berdintasun-neurri edo -eduki kopurua. Hori egiaztatu du egiaztapen-txostenei buruzko azterketak, txosten horiek GEEen kalitatea kontrolatzeko tresna gisa erabili baitira.

Nolanahi ere, oraindik ere ikusten da hainbat adibide daudela zeinetan ezinbestekoa den berdintasun-neurriak sartu behar direla iradokitzea, nahiz eta neurri horiek automatikoki sartuta egon beharko luketen Berdintasunerako Legean argi eta garbi jasota daudelako. Era berean, GEEan sartutako diagnostikoari buruzko mugak nabarmentzen dira, ebaluazio horren kalitatea hobetu behar baita oraindik.

Halaber, egiaztapen-txostenak prozesuan duen zereginak hainbat ahulezia ditu. Txosten horren ekarpena nahasgarria da inplikaturako eragileentzat, eta ikaskuntza sortzeko duen gaitasuna mugatua da oraindik. Egiaztapen-txostenak, de facto, eginkizun bikoitza betetzen du: GEEen edukia egiaztatzen du –legean aurreikusten den bezala–, baina berdintasun-neurri berriak proposatzen dituzenez, generoaren arabeko eraginari buruzko txostenaren eginkizuna ere osatzen du. Hori bereziki garrantzitsua da; izan ere, dagoneko adierazi dugunez, GEEak ez du betetzen arauaren benetako ebaluazioa egiteko eginkizuna neurri berriak proposatzeko, baizik eta arauaren zirriborroak proposatzen duena erregistratzera mugatzen da. Ildo horretan, positiboa izango litzateke egiaztapen-txostenen eginkizunari buruzko jarraipen handiagoa egitea eta txosten horiek azkenean onartzen den araudian eragiteko duten gaitasuna sustatzeko mekanismoak gehiago aztertea, erakunde-ikaskuntzarako funtsezko tresna izan daitekeela kontuan hartuta.

• EZARPEN-PROZESUAREN ERRONKA ETA TENTSIO NAGUSIAK

Diagnostikoa vs. Iragarpena

Sektore-arloetan dauden desberdintasunei buruz eskuragarri dauden datuak eta ezagutza mugatuak dira, orokorrak dira eta emakumeen eta gizonen arteko inekitateen konplexutasuna eta zabalatasuna erakusten dute. Aitzitik, sartu behar diren neurriek araua arautzen duen eremu espezifikoari erreferentzia egin behar diote. Eraitza gisa inkongruentzia bat dago diagnostikoaren –ez-espezifikoa eta desberdintasun-arazo oso konplexu bati buruzkoa– eta iragarpenaren –izaera mugatuko arau bat– artean.

Diagnostikoak zehazten eta sektore-eremu desberdinetan aplikatzen jarraitu beharko litzateke testuinguruan gehiago kokatuta dauden neurriak proposatu ahal izateko.

Zorroztasuna vs. Sakontasuna

GEEak Eusko Jaurlaritzan duen irismen zabalak ekartzen du prozedura eta eredu bera aplikatzea arau-xedapen oso tekniko eta espezifikoari eta irismen handiagoa duten arauari, beren konplexutasuna dela medio formatu estandarizatu batean zailago sartuko liratekeenei. Gogoeta egin beharko litzateke eraginaren ebaluazioa garrantzi handiagoa eta gizarte-eragin handiagoa duen araudian indartzeko moduari buruz, generoaren alorreko

abilezia aurretiko uneetan sartuz, GEEaren prozesuaren zati gisa edo berdintasunerako beste gobernantza-tresna batzuk erabiliz.

Araua nork egiten duen vs. Txostena nork egiten duen

Ez du ematen txostena egiten esku hartzen duten eragileei eta araua egiten esku hartzen duten eragileei buruzko adostasun sistematikorik dagoenik. Horrek indartu egiten du txostenak legeagintza-prozesuaren barnean izapide gisa duen zeregina, araudiaren edukia zalantzan jartzeko gaitasun mugatua baitu. Era berean, teknikarien (GETak egiten dituztenak eta berdintasunaren alorreko prestakuntza jaso ohi dutenak txostenak behar bezala egiteko) zereginaren eta politikarien (azken arauan zer sartu behar den eta zer ez den sartu behar erabakitzen dutenak, eta generoari buruzko sentsibilitatea edo ezagutza eduki dezaketenak edo ez) zereginaren artean dagoen tentsioa nabarmendu behar den elementu bat da.

Halaber, ikusi dugu GEE on bat egitea eta berdintasun-neurriak sartzeari lotuta daudela GEEaren zertarakoaz jabetzearekin. Erabakigarria da GEEa politika publikoen kalitatea hobetzeko tresna eraginkorra delako uste osoa izatea. Prestakuntza bereziki eraginkorra da GEEaren erabilerari eta egokitasunari buruz kontzientziatzeko, baita berdintasunaren ameskeria izeneko zalantzan jartzeko ere.

Ildo horretan, informatzeko eta lankidetzan jarduteko zirkuituak (araua sustatzen duten zuzendaritzetako langileen artekoa eta zuzendaritza horien eta berdintasun-eragileen artekoa) sendotzea eta prestakuntza-estrategia horiekin jarraitzea landu behar diren funtsezko gaiak izango lirarteke.

Araua noiz egiten den vs. Txostena noiz egiten den

Badirudi eraginari buruzko txostena berandu sartzen dela araugintza-prozesuan, eta horren ondorioz, ezin da aldaketa garrantzitsurik egin. Ildo horretan, ez dago argi genero-ikuspegitik abiatutako azterketa eta arauaren idazkuntza aldi berean egiten direnik, eta azterketa hori txostenaren testuan biltzen denik ondoren.

Arau-produkzio handia duten sailak vs. Arau-produkzio txikia duten sailak

Eraginari buruzko txostenek antolamendu-ohituretan eta araudiaren edukian eragiten duten modua sail motaren arabera da neurri handi batean. Arau-produkzio handia duten sailen kasuan, badirudi tresna horrek argi eragin duela lan-ohituretan, eta, ematen du erregulazioetan eragiteko aukera ere baduela. Alabaina, arau gutxi egiten diren sailetan, eraginari buruzko txostenek zeharka jokatzeko eta ikasteko tresna bihurtzeko aukera gutxi dute; horregatik, komenigarria izango litzateke beste tresna batzuen eraginari buruzko ebaluazioak egitea, esate baterako esku hartzeko planei edo programei buruzkoak. Horretarako, formatu bera erabil liteke edo politiken eta programen generoaren arabera eraginari buruzko gogoeta eta azterketa egiteko prozesu espezifikoak diseina daitezke.

**•ARAUDIAN SARTUTAKO
BERDINTASUN-NEURRIETAN
DUTEN ERAGINA**

Araudian sartutako neurrien azterketa egin ondoren, ikus daiteke GEEaren eragina-ri buruzko emaitzak positiboak direla. Egiaztatu da berdintasunaren alorrean jardunak txertatu direla orokorrean, eta txertatze horrek edozein arau motari eragiten diola, garrantzi handiena eta eragin potentzial handiena dutenak barne. Gainera, azterketa longitudinalari esker ikus daiteke denboran zehar hobekuntza izan dela, berriro ere ikusten baita erakunde-ikaskuntza dagoela eta genero-ikuspegia gero eta gehiago sartzen dela.

Neurri mota espezifikoki dagokionez, ikus daiteke ohikoena zera dela, Berdintasunerako Legean aurreikusitako arauak sartzea araudian. Zehazkiago, GEEa egiteko Gidalerroetan sartutako jardunak txertatzen direla nabarmentzen da, hala nola gizonen eta emakumeen ordezkartza orekatua izateari buruzko neurriak edo debeku-neurriak edo zehapen-neurriak. Sartze hori hobetu egin da denboran zehar, eta horrenbestez, egiaztatu da GEEak gaitasun handia duela Berdintasunerako Legea ezartzen eta garatzen laguntzeko. Alabaina, loteslea denez, logikoena izango litzateke Lege horretan aurreikusitako neurri guztiak (% 100) sartzea, baina ez dira guztiak sartzen eta horren ondorioz galdetu beharko litzateke egokia ote den GEEaren prozesua ezartzen eta hobetzen jarraitzea.

Berdintasunari buruzko aipamen esplizitu gutxiago edo berdintasunarekin lotutako helburu gutxiago sartu dira, ordea. Beraz, zuzenean aplikatzen diren eta aplikatzeko osagai erretoriko gutxi dituzten neurriak sartzen dira batez ere araudian. Osagai erretorikoari dagokionez, *mainstreamingaren* aplikazio praktikoan ez da azaltzen osagai hori. Alabaina, genero-berdintasunaren aipamen esplizituak administrazio publikoen funtsezko helburu gisa tresna garrantzitsuak dira jarduteko zeharkako eta lehentasunezko eremu gisa duten garrantzia indartzeko eta komenigarria izango litzateke haiek sartzea. Era berean, egingdako azterketatik antzeman daiteke araudian neurri kopuru handia sartu bada ere, neurri horiek eraldatzeko duten gaitasuna mugatua dela oraindik. Izan ere, genero-harremanak hobetzeko gaitasun garrantzitsua duten neurrien presentzia urria da oraindik.

Egiaztatu ahal izan da GEEak berdintasun-neurriak sartzeko hobetzeko duen eragin zehatza garrantzitsua dela, nahiz eta garrantzia galdu duen denboran. Ildo horretan, ikusten da IX. legegintzaldian onartutako arauak iragazkorragoak zirela izapidetze-prozesuan, al-daketa gehiago pairatzen zituztelako, eta, beraz, GEEaren eragin handiagoa zuten. Horri buruzko irakurketa positiboa egin behar da; izan ere, erakunde-ikaskuntza izan dela esan nahi du, eta ikaskuntza horren ondorioz, araudiaren gero eta zirriborro gehiagotan sartzen da genero-ikuspegia, eta, beraz, GEEaren prozesuak eragin txikiagoa du. Dena den, aurrerapen hori dela medio erronka berriak sortu dira tresna hori ezartzeari dagokionez. Tresna hori gehiago bideratu behar da neurri eraldatzaileak sartzera, Berdintasunerako Legean aintzat hartzen diren neurriak gainditzen dituzten eta onartutako araudiaren edukia eta helburuak zalantzan jartzea ekarriko duten neurriak, alegia. Horri esker, saihestu ahal izango litzateke GEEaren ezarpena ohiko bihurtzea eta ebaluazio horrek aldatzeko duen gaitasuna mugatzea. Gaitasun hori da, zalantzarik gabe, datozen urteetako erronka nagusietako bat.

• INPLIKATUTAKO ERAGILEENGAN ERAGITEA

GEEak erakutsi du administrazio-ohiturak aldatzeko gaitasun handia duela. Ildo horretan, azterketan ikus daiteke tresna sistematikoki aplikatzen dela eta egiteko prozesuaren arrazoizko sendotzea dagoela, nahiz eta tresna desberdina izan sailetan.

Halaber, ikusi da gobernu-arloetako langileen artean ikaskuntza eta sentsibilizazioa sortzeko gaitasuna duela. Izan ere, ahalbidetu du berdintasun-politikak ezartzeko prozesuan lehen politika horietatik kanpo zeuden eragileak sartzea. Bereziki, badirudi zerbitzu juridikoak osatzen dituzten langileen zeregina oso garrantzitsua dela. Funtsezkoak dira egiteko prozesuari dagokionez –arauei buruzko memoria, GETa idaztea/berrikustea eta abar– eta, gainera, kasu batzuetan azkenean araudian sartuko diren berdintasun-neurriak erabaki ditzakete.

GEEa garrantzitsua da, halaber, berdintasun-eragileek zeharkakotasuna lortzeko lanetan betetzen duten zereginari dagokionez. Sail bakoitzak sortzen dituen arauetako buruzko ezagutza emateaz gain, araudian berdintasun-neurriak sartzeari dagokionez aholkuak eta laguntza emateko zeregina hobetzen lagundu dute. Bestalde, eragile horiek araudiari buruzko ezagutza emateak ahalbidetzen die zeregin proaktiboagoa izatea.

• GEE-AREN ERAGINARI BURUZKO ERRONKA ETA TENTSIO NAGUSIAK

Prozedurari buruzko ikaskuntza eta 4/2005 Legea ezartzea vs. Politikak genero-ikuspegiaren arabera berritzea eta berrikustea

Badirudi eraginari buruzko txostena egitea eraginkorra dela prozedura gauzatzeko moduari buruzko ikaskuntza sortzeko helburuari dagokionez (noiz, nork, nola, eta abar), baina ez da aurkitu garatutako araudiaren edukia txostenak erabat zalantzan jartzen duela eta araudia hasieratik berriz pentsatzera behartzen duela sistematikoki erakusten duen adierazle sendorik.

Ildo horretan, iradokitako eta sartutako neurriek Berdintasunerako euskal Legean aintzat hartzen diren neurriei buruzko aipamena egiten du batez ere. Badirudi legea eraginari buruzko txostenen eragin-maila handiagoa izatea ahalbidetzen duen tresna nagusia izateaz gain, eraginari muga jartzen diona ere badela. Izan ere, badirudi eraginari buruzko txostenak tresna eraginkorrek direla arau honen bitartez ezarritako planteamenduak praktikan jartzeko modu sistematikoan. Arau horrek, bestalde, askoz ere ezarpen-maila mugatuagoa izango zuen GEEak emandako bultzadarik izango ez balu.

Hortaz, Berdintasunerako Legea ezartzen eta garatzen laguntzeko GEEak duen gaitasun garrantzitsua nabarmendu behar da. Alabaina, loteslea denez, logikoena izango litzateke Lege horretan aurreikusitako neurri guztiak (% 100) sartzea, baina oraindik ez dira guztiak sartzen.

Era berean, ez da ikusten sartutako neurriak Berdintasunerako Legetik haratago eramaten dituen berrikuntza-prozesurik dagoenik, hau da, ez dago politika publikoak irismen handiagoko genero-ikuspegitik berrikusteko ohiturak sortzen dituen berrikuntza-prozesurik. Beste era batera esanda, GEEaren prozesuak berdintasunaren alorrean hobekuntzak sartzea ahalbidetzeko arriskua dago askotan, baina, aldi berean, funtsezkoagoak diren alderdiak, hala nola jarduteko lehentasunak, zalantzan jarri gabe uzteko arriskua dago.

GEEak araudi espezifikoaren edukian arreta jartzeak –eduki tekniko garrantzitsu batekin askotan– zaildu egiten du prozesua baliagarria izatea sektore- edo gai-eremu jakin batean

genero-desberdintasunaosatzen duten oinarrizko kasuak eta elementuak berriz pentsatzea. Eraginaren ebaluazioa arauaren zirriborroa aurreratuta dagoenean hasteko joera hori ere ildo berean doa.

Era berean, legean eta haren arau-garapenean gutxien zehazten diren alderdiak dira gutxien aplikatzen direnak. Adibide bat zera izango litzateke, legean eta gidalerroetan aurreikusitako neurriak asko sartzearen eta berdintasun-helburuak gutxi sartzearen artean dagoen alde handia, neurri horiek sartzeko sektore-eremu bakoitzean gai garrantzitsuen geroagoko azterketa egin eta identifikatu behar baitira.

Horrenbestez, berdintasun-neurri berriak sartzeak arrakasta handia izan du, baina emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko agenda politikoari lehentasuna ematea oraindik finkatzeko dagoen helburu bat dela esan behar da.

Muga mota hori bat dator aurreko azterlanetan detektatu diren *mainstreamingaren* ahu-lezia orokorrekin; izan ere, arestian adierazi dugunez, azterlan horietan aipatzen da estrategiak zailtasunak dituela politika sektorialetan oinarrizko aldaketak sortzeko edo agenda politikoa modu zabalean birbideratzeko.

Prozedura juridikoa vs. Prozedura politikoa

Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak araudia egiteko prozesuaren barneko beste tresna bat balira bezala finkatu dira. Horren ondorioz, osagai juridiko handia du prozesuari eta egiturari dagokionez. Horrek txostenen sistematikotasunari laguntzen dio, baina araudian eragiteko gaitasunari dagokionez mugak sortzen ditu. Gauzak horrela, ikus dezakegu tresna eraginkorra dela Berdintasunerako Legea ezartzen laguntzeko, baina zailtasun gehiago ditu sektore-arlo bakoitzean genero-desberdintasunei buruzko eztabaida zabala sortzeko eta helburuak nahiz jarduteko ikuspegiak aldatzeko premia du. Horrek teknokratizaziorako duen betiko joera erakusten du, aztertu diren beste kasuetan ere aipatu den joera, alegia.

39. TAULA. GEEa Eusko Jaurlaritzan ezartzeko identifikatutako indarren eta hobetu behar diren eremuen laburpena

INDARRAK	HOBETU BEHAR DIREN EREMUAK
Sistematikotasuna	Hasieran diseinatutako ezarpen-eredua aplikatzea
Txostenak egiteko prozesuari eta araudian genero-ikuspegia sartzeari buruzko erakunde-ikaskuntza	Inplikaturako eragile guztien prestakuntza
Eragile berrien inplikazioa berdintasun-politiken ezarpenean	Araua egiten duten eragileen inplikazioa
Berdintasun-eragileen zeregina hedatzea	Eraginari buruzko txostena arau-prozesuaren hasieratik egitea eta GETaren zeregina argitzea (neurri berriak proposatzea vs. arauaren zirriborroan dauden neurriak erregistratzea)
Berdintasunerako Legean aurreikusitako neurriak ezartzea	Eraginari buruzko txostenen kalitatea hobetzea
Sartutako neurri kopurua hobetzea eta eraginpean hartutako arauari garrantzi handiagoa ematea	Ikaskuntzari dagokionez eta araudiaren funtsezko berrikuspenari dagokionez egiaztapen-txostenek duten zeregina argitzea
	Berdintasunerako Legea gainditzen duten eta agenda politikoa birbideratzea ahalbidetzen duten neurriak sartzea

3

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA FORU-ALDUNDIETAN ETA TOKI-EREMUAN

Araugintzaren generoaren arabera eraginari buruzko ebaluazio bat egiteko betebeharrak foru-erakundeetara eta toki-erakundeetara hedatzen da; izan ere, Berdintasunerako Legean aipatzen denez, erakunde horiek beren eskumenak betetzeko, beren antolamendu- eta funtzio-premietara eta haien arauen ezaugarri diren berezitasun formal eta materialak egokitu beharko dute prozedura.

Eremu horretan egin dadin sustatzeko, lantalde espezifiko bat sortu da Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeko teknikari taldearen esparruan. Talde horretan hiru Aldundiek, Emakundek, Eudelek eta esleitutako udalerrri batzuek hartzen dute parte.

Foru Aldundiei dagokienez, GEEa egiteko agindua 3/87 Foru Araua aldatzea izan da Bizkaian, GEEak gehitu baitzituen foru-arauak izapidetzeko garaian eta bere gidalerro propioak egin zituen (141/2013 Foru Dekretua). Gipuzkoan duela gutxi emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua onetsi da. Foru-arau horrek arlo hori arautzen du (27. artikulua). Arabak, aldiz, oraindik ez du gidalerro zehatzik ezarri. GEEak aldundi bakoitzean izan duen garapena zehatzago garatuko da ondorengo ataletan.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

3.1

IKUSPEGIA ETA GARAPENA

3.1.1

Arabako Foru Aldundian ez dago generoaren arabera eraginaren aurretiko ebaluazioa araututa oraindik. Hala ere, ondoren zehaztuko denez, aurrerapen garrantzitsuak lortu dira. Aldundiak lan-prozesu bat jarri zuen abian generoaren arabera eraginaren Ebaluazio Txostena aplikatzea eta orokortzea ahalbidetuko zuten baldintzak sortzeko, eta txosten horren esparruan egin dira txosten pilotu batzuk, gida espezifiko bat egin da eta aldundiko langileei prestakuntza eta aholkularitza eman zaie.

Aurreko legegintzaldian honako helburu hauek jarri ziren: berdintasuna kontratuetan, hitzarmenetan eta diru-laguntzetan sartzeko eta GEEa egitea, baina ez zen arautu. GEEari dagokionez, Berdintasunerako III. Planean (2010-2014) honako helburu hau jasota zegoen: “foru-araua Berdintasunerako Legea eta genero-ikuspegira egokitzea” jardun gisa honako hau proposatuz: “Generoaren arabera eraginaren azterketari buruzko esperientzia pilotu bat diseinatu eta garatzea araudian” (AFA, 2010: 63).

Praktikan, ordea, genero-ikuspegia kontratazio-dokumentuetan eta diru-laguntzetan sartzeko prozesuari ekin zitzaion. Sailarteko lantalde baten bitartez, lau urtetik gorako epe batean, prozesu bat garatu da eta prozesu horrek oso emaitza onak izan ditu partaide kopuruari dagokionez, lortutako trebakuntzari dagokionez, berdintasun-klausulak sartu diren dokumentuen kopuruari dagokionez, klausula horien kalitateari dagokionez (bat datoz sektorearen errealitatearekin eta eraldatzeko bokazioa dute) eta tresna espezifikoak sortzei dagokionez (kontratazio-dokumentuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan).

berdintasun-klausulak sartzeko gida bat eta sartzeko prozesuari jarraipena egiteko tresna bat). Prozesu hori garatu da aldiaren zati handienera haren aplikazioa arautzen zuen dekreturik edo agindurik izan gabe. Azkenik, 2014. urtean, foru-arloko sektore publikoaren obra-kontratueta klausula sozialak sartzeari arautu zen otsailaren 12ko 1/2014 Foru Araua aplikatuz. Halaber, 2015ean 5/2015 Foru Araua, otsailaren 11koa, foru-sektore publikoaren kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak txertatzekoa, onartu zen.

Kontratuei buruzko dokumentuetan eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak sartzeari dagokionez egin den lan-prozesuak generoaren arabera eraginaren ebaluazioa garatzeko balio izan du, ebaluazio horrek erreplikatu egin duelako neurri handi batean.

EZARPENA, EMAITZAK ETA ERAGINAK

3.1.2

Hasieran adierazi dugunez, Arabako Foru Aldundiak lan-prozesu bat jarri zuen abian GEEa arau batekin arautzen zen unean GEEa berehala aplikatzeko aukera emango zuten baldintzak sortzeko. Prozesu hori bi urtetan garatu zen: 2011. urtean eta 2013. urtean.

2011n hainbat sailetan arauak egiteko edo gainbegiratzeko ardura zuten langileek osatutako sailarteko talde bat eratu zen. Talde horretan 17 pertsona hartu zuten parte 2011n eta 10 pertsona 2013an.

Nagusiki praktikoa zen esperientziako metodologiaren bitartez, generoaren arabera eraginari buruzko txostenak egiteko trebatu zen talde hori, aurrez aurreko saioak eta elkarlana nahasten zituen prozesu baten bitartez lineako plataforma bat erabiliz. Horri esker, araudian berdintasuna sartzeari buruzko prestakuntza teorikoa gauzatu zen, baita GEEaren prozesuari eta faseei buruzko prestakuntza praktikoa ere. Esparru horretan, GEEa egiteko erabili ziren benetako arauak ere landu ziren.

Lan horren ondorioz, 2015ean Gida bat egin zen generoaren arabera eraginaren ebaluazioa egiteko araudian –eskuragarri dago Intraneten–. Era berean, laguntzeko hainbat material jarri dira langileen eskura Intraneten, hala nola, protokoloak, txostenak edo Emakundek egindako diagnostiko sektorialak. Material horiek baliagarriak dira, baina egokia izango litzateke material horien hedapena eta erabilerraztasuna hobetzea.

GEEari buruz emandako prestakuntza eta aholkularitza espezifiko horrez gain, nabarmendu behar da, halaber, aldundiak oinarritzko prestakuntza eskaintzen diela aldundiko langile guztiei.

Bestalde, GEEaren etorkizuneko arau horien aurretik egindako lanetan ere aurreratu zen, GEEa sartzeari egokia izango zen foru-arauak eta -dekretuak zein izan zitezkeen identifikatu baitzen, eraginaren ebaluazioaren derrigortasunaren irismena definitu ahal izateko.

Ebaluazio honen landa-lana egin zenean, oraindik zehaztu gabe zegoen lan-ildo horren jarraitutasuna; legegintzaldi berri baten hasierak –haren ondoriozko organigrama-alaketarekin eta zuzendaritza politikoaren alaketarekin– eta berdintasun-plana

ebaluatzeko prozesuak eta agintaldi berrirako plan berria egiteko prozesuak zer al-daketa sortuko zituzten ikusteko zain zeuden.

Adierazi behar da Arabako lurralde historikoko sektore publikoko gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernamentu onari buruzko Foru Arauaren egungo proiektuak generoaren arabeko eraginaren ebaluazioari buruzko Txostena sartu duela espedientean. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailarekin batera lan-prozesu bati ekin zaio genero-ikuspegia aurrekontuetan sartzeko. Generoaren arabeko eraginari buruzko ebaluazioa beste tresna batzuetan ere sartu da, esate baterako hiri-antolamenduko planetan, udalei aholkuak emateko eta laguntzeko aldundiak betetzen duen zereginaren bitartez.

Emakundek sustatutako sailarteko lantalde teknikoetan ere parte hartzen du Arabako Foru Aldundiak.

BALANTZEA

3.1.3

Elementu positibo gisa orain arte gauzatutako prozesuak duen ahalmena nabarmendu behar da. Adibide praktikoak eta benetakoak oinarri hartuta eta hurbileko eta eguneroko aholkularitzaren bitartez lan egiteko metodologiak erakutsi du oso baliagarria dela. Berdintasuneko Zerbitzuaren ustez oso positiboak dira kontratuei, hitzarmenei eta diru-laguntzei dagokionez lortutako aurrerapenak. Laguntzeko erabili zen metodologia motak lan jarraitua egiten lagundu zuen, lan hori funtsezkoa izan baitzen agertu ziren erresistentziak, ez-jakiteak eta eragozpenak desblokeatzeko. Aipatutako metodologian zerbitzuko zuzendaritza eta buruzagitza guztiekin informazioa emateko bilerak ere sartu ziren. Horrek ekarri du prozesuan parte hartu zuten pertsonak arauaren alde egotea eta mota horretako klausulak sartzeko premia dagoela ikustea gaur egun.

Egindako prozesuak administrazio-prozedurei dagokienez erakunde-kultura aldatzeko oinarriak ezarri ditu, eta horrek ahalbidetuko du GEEa ezartzea, GEEa eraldaketa-tresna eraginkortzat eta arauen edukian eragiteko gaitasun handia duen tresnatzat hartzen baita.

Berdintasun-klausulak hiru prozedurak dituzten dokumentu askotan sartzeari lortu da eta nabarmendu behar da 2014ko urtarriletik 2015eko ekainera bitarteko aldian 132 dokumentutan sartu direla⁴¹. Orobat, kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren printzipioa modu autonomoan sartzeko behar adinako trebakuntza duten funtzionario talde bat dago. Era berean, generoaren arabeko eraginaren ebaluazioari buruzko txostenak eta berdintasunean eragin positiboa duten arauak egiteko behar adinako trebakuntza duen talde bat dago aldundian.

Bi prozesu horiei laguntzeko –berdintasun-klausulak sartzeari eta GEEa– bi oinarritzko tresna garatu dira eta beste erakunde batzuek garatutako beste tresna batzuk hedatu dira. Garatu diren bi oinarritzko tresnak honako hauek dira: “Genero-ikuspegia

41 Honako tipologia hauei erantzuten dieten era askotako klausula ugari txertatu dira: Kultura-aldaketan eragina duten klausulak, erakundeei berdintasunarekiko konpromisoa dutela egiaztatzea eskatzen dietenak; Pertsonengan zuzeneko eragina duten klausulak, hala nola kontratuaren xede den eremuan emakumeen presentzia handiagoa izaten edo kide anitzeko organoen osaketa sexuaren arabera orekatua izaten laguntzera bideratutako ekintza positiboak; Berdintasuna lortzea eragozten duten egiturazko oztopoetan eragiteko klausulak; eta berdintasuna lortzeko klausulak, prozedurazkoak eta instrumentalak, hala nola datuak bereiztea edo hizkuntza ez-sexista erabiltzea.

kontratuetan, hitzarmenetan eta diru-laguntzetan sartzeko protokoloa” eta “Araudiaren generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egiteko gida”.

Gauzak horrela, erakundearen kultura aldatzen hasi da berdintasun-printzipioak administrazio-jardueran sartzeak duen esanahiari eta dituen inplikazioei dagokienez. Administrazio-prozeduren gezurrezko neutraltasunean oinarritutako jarrera pasiboa izatetik prozedura horiek emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearekin parekatu behar direla ulertzea igarotzen ari dira.

Azkenik, garrantzitsua da elementu positibo gisa honako hauek aipatzea: alde batetik, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasuna Zerbitzuak aldundiaren egituran gaur egun duen kokapena, zerbitzu hori diputatu nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren mende baitago gaur egun; eta bestetik, foru-gobernu berriak berdintasunerako politikari eman dion bultzada.

Aurkitutako zailtasunei dagokienez, hainbat motatako elementuak nabarmentzen dira. Alde batetik, adierazi dute litekeena dela erakundearen lan egiteko moduei buruzko tentsioan inertziari ematea lehentasuna eta ohiko bihurtzea berdintasun-printzipioa administrazio-prozeduretan sartzea. GEEa aldundian arautzen denean eta GEEa ezartzeko prozesuak finkatzen direnean kontuan hartu beharko den funtsezko elementua izango da hori.

Bestetik, jarraipena egiteko sistemarik ez dagoenez, ezin da behar den informazioa lortu klausulak sartzearen bilakaera zein den eta egokitzapenak egitea beharrezkotzat jotzen ote den jakiteko. Erronka hori funtsezkoa izango da GEEa ezartzeko.

Hortaz, termino orokorretan, garrantzitsua da aipatzea Araban GEEaren erregulazio formalik ez izateak mugatu egin duela GEEa ezartzea. Horri gehitu behar zaio ez dagoela behar adinako baliabiderik eta egiturarik *mainstreaming* estrategia osorik foru-erakundean zabaltzeko. Horren ondorioz, GEEaren garapenak beste foru aldundi batzuetan baino erritmo geldoagoak izan ditu.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

3.2

IKUSPEGIA ETA GARAPENA

3.2.1

Aldundi horretan generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren zehaztea bizkortu egin zen Batzar Nagusien ekimen bidez. 2011ko martxoan, Batzar Nagusien Erakunde Batzordeak Talde Mistoak egindako Ez-arauzko proposamena –generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioa arau-prozeduran sartzeari buruzkoa– onartu zuen.

Ondoren, 3/1987 Foru Araua –Batzar Nagusietan aurkeztutako Foru Arauek bete behar dituzten baldintzak ezartzen dituen– aldatu zen⁴² 3/1987 Foru Araua aldatzeko ekainaren

42 55. artikuluari hirugarren paragrafoa gehitu zitzaion: «3. Halaber, aurkezturiko arauotan ezarritako neurriek izango duten generoaren araberako eragina neurtuko duen txostena erantsiko zaie».

12ko 7/2013 Foru Araua onartu zelako, generoaren arabera eraginaren ebaluazioari buruzko txostena arau-prozeduretan sartzeko⁴³.

2013ko azaroan, GEEa sustatuko duen organoa definitzen duen eta txostenak nolakoa izan behar duen ezartzen duen –eranskinean– erregulazio-dekretua onartu zen⁴⁴. Dekretu horrekin GEEaren helburua Foru Arauetako Proiektuetara eta Batzar Orokorretan aurkeztutako Legeen arau-garapenari buruzko Dekretuetara hedatzen da –arestian aipatutako Foru Arauan aurreikusten zenaren arabera– eta premiazko arrazoiak direla medio zerga-arloko Foru Dekretu Arauemaileak edo zerga-arauak ezartzen dituztenak ere sartzeko dira⁴⁵, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuak⁴⁶, eta ahaldu nagusiaren Foru Dekretuak –hautaketa-prozesuak eta lanpostuak emateko deialdiak egiten dituztenak– ere.

Aurretik GEE batzuk egin ziren eta ebaluazioaren alorreko prestakuntza eman zen, baina arau hori indarrean jarri zenez geroztik, hots, 2014az geroztik hasi ziren GEEak sistematikoki egiten, eta prozedura jakin batzuk eta azterketa-eredu espezifiko bat definitzen.

Eusko Jaurlaritzak garatutako eredu hartu zuen erreferentziazat GEEak, baina batez ere eskema analitikoaren alderdi batzuk zehaztu ziren eta eredu Bizkaiko berezitasunetara egokitu zen. Kontuan hartu zen berdintasunaren gobernantza-egitura gutxiago dagoela Foru Aldundian. Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiak Berdintasun Unitate bat dauka, 5 pertsonak osatzen dutena eta Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sailean kokatuta dagoena; horrez gain, Batzorde Politiko bat du, sail bakoitzeko ordezkariak dituena; Batzorde Tekniko bat, sail bakoitzeko teknikariekin; eta Sailarteko Batzordeak, horiek ere teknikariekin⁴⁷. Oraingoan, sailetan ez dago berdintasun-eragilerik, ezta berdintasunari buruzko arau espezifikorik ere, baina iragarri dute agintaldi honetan Foru Arauaren proiektu bat egingo dela.

Berdintasuneko Zuzendaritzak tresna-eredu bat egin zuen eta Gizarte Ekintza Sailean test bidez aztertu zen gainerako sailak eraman ahal izateko ondoren. Prozesu hori egiten ari zirenean Eusko Jaurlaritzak gidalerro berriak onartu zituen 2012an; horren ondorioz, aurretik egindako lana esparru berri horretara egokitu behar izan zen. Foru Aldundiak berak egindako gogoeta-prozesutik eta Eusko Jaurlaritzaren gidalerro berrietatik sortu zen eredu Bizkaiko Foru Aldundiko Sailarteko Batzordearekin, sailekin eta Idazkaritza Nagusiarekin eratu zen. Horrekin guztiarekin, Foru Aldundiaren eredu propioa diseinatu zen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretu bidez arautu zen.

Horrela, erabaki zen txostena arau-xedapena proposatzen duen organoaren erantzukizuna dela. Emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez duela irizten bada, garrantzirik ez izatea justifikatzen duen txosten bat egiteko aukera dago. Aurreikusten da etorkizuneko xedapenaren funtsezko alderdiak zehaztuta daudenean egiten hasiko dela, baina testua ez dagoenez oraindik osorik idatzita, txostena arauaren zirriborroa zehaztearekin batera egingo da. Txostena bukatzen denean, Idazkaritza Nagusia eta

43 <http://www.siiis.net/documentos/legislativa/25912.pdf>

44 Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren arabera eraginaren aurretiko ebaluazioa –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aurreikusitakoa– egiteko jarraibideak biltzen dituzten Gidalerroak ezartzen dituena, 2014ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean.

45 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikularen 2. atala.

46 Goi-kargudunak kargutik kentzeaz eta izendatzeaz eta egitura organiko eta funtzionalaz arduratzen direnak edo Bereizketak eta Ohoreak eta haiek ematea arautzen dutenak izan ezik.

47 Elkarrizketak egin zirenean (2015eko abendua) oraindik ez zeuden eratuta oraingo agintaldiari dagozkion sailarteko Batzordeak.

Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusira bidali beharko da arau-xedapenaren kopia batekin.

Txostenean hiru zati daude: arau-xedapenaren deskribapena, generoaren arabera eraginareneko aurretiko ebaluazioa (emakumeen eta gizonen egoerari buruzko informazioa, desberdintasunen identifikazioa eta xedapenaren ebaluazioa barne), eta berdintasuna sustatzera bideratutako neurriak. Berdintasun-neurri horien azken zati hori Eusko Jaurlaritzaren gidalerroetatik hartu da zuzenean, baina eraginaren aurretiko ebaluazioaren zatian aldaketa batzuk egin dira (adibidez, xehetasun gehiago sartu dira arau-xedapenen deskribapenean eta eraginaren ebaluazioari buruzko galde-sortan).

Erabaki zen Berdintasunerako Zuzendaritzak Egiatzapen Txosten bat egitea aldundi honen GEEaren ereduaren ez sartzeari. Funtsezko tresna dela uste bada ere, Bizkaian berdintasunaren gobernantzan orain arte egindako aurrerapenak kontuan hartuta, lehentasuna eman zitzaion eraginari buruzko txostena sailek egin zezaten indartzeari eta kalitateko txostenak egiteko gaitasuna pixkanaka hobetzen jarraitzei. Horregatik, aurreikusi zen GETa eta dekretuari buruzko proiektua aldi berean egitea, eta egiatzapenik egin ez zenez, *checklist* bat gehitu zen ebaluazio-prozesuari buruz sortu ziren gogoetak eta egindako aldaketak txertatzeko bertan.

GEEa abian jartzeko **ezarpen- eta laguntza-mekanismo** gisa laguntzeko *gida/eskuliburu* bat dago sail guztietan.

Berdintasunerako Zuzendaritzak (zerbitzuko eta ataleko Buruzagitzei eta teknikariei⁴⁸), gobernantzari buruz ematen dien *prestakuntza* gain, GEEaren prozesua betetzen laguntzeko prozesu espezifikoak diseinatu dira. Prestakuntza horretan lege-esparruari buruzko eta zeharka jokatzeak gaur egun dauden tresnei buruzko informazioa ematen da.

2013az geroztik, hainbat sailetako buruzagitzekin eta teknikariekin batera ebaluazioak egin zitzaizkien pertsonak identifikatu ziren. Era berean, GEEaren erabilerrari buruzko prestakuntza-bilerak egin ziren. Bilera horiek zati teoriko bat zuten eta beste bat praktikoa, eta jende askori bideratuta zeuden: zerbitzuko eta ataleko buruzagitza, aholkularitza juridikoa eta prozesuan sartuta egon zitezkeen beste profil batzuk.

Laguntza handiagoa emateko asmoz, bigarren fase bat pentsatu zen sailei *tutoretzak* eginez. 2 edo 3 orduko iraupena zuten tutoretza horietan sailaren berezko xedapen bat –egiteko prozesuan zegoena eta garatzeko zaila zena– identifikatzen zen, eta xedapen horrekin modu kolektiboan egiten zen, azterketa egiteko tresna praktikan jarri eta galderak argituz eta laguntzeko iturriak emanez. 2014. urtearen hasieran sail guztietan egin ziren tutoretzak, baita zerbitzu batzuetan ere. 2015ean, berriro eskaini ziren tutoretzak, eta 2016an dagoeneko badaude eskaera batzuk. Sailek eskatuta, prestakuntza espezifikoak ere eman zen.

Berdintasunerako Zuzendaritzak txostenen *jarraipena* egiten du urtero eta txostenei buruzko azterketa egiten du, eta horri esker, hobetu behar diren funtsezko gaiak identifikatu daitezke. Lehenengo urtean, adibidez, detektatu ahal izan zen alderdi batzuetan ez zela GEEaren berezko lan-dinamika ulertu. Horregatik, zalantza argitzeko bilera batzuk egin ziren txostenak sinatu zituzten edo txostenak egiten zituzten pertsonekin.

48 Aurreikusten da prestakuntza hori zerbitzu orokorretako langileei eta politikariei ere ematea.

2014ko urtarrilean GEEa sistematikoki egiten hasi ziren eta harrezkero, oso garapen garrantzitsua izan du.

40. TAULA. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioak. Bizkaiko Foru Aldundia

	2014	2015	GUZTIRA
Aurreko legegintzaldia	147	130	277
Oraingo legegintzaldia	-	84	84
GUZTIRA	147	214	361

Iturria: Guk geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuetan oinarrituta.

Berdintasunerako Zuzendaritzaren ustez, GEEaren ezarpen-maila eta prozesua derrigorrez betetzearen maila oso positiboak izan dira. Genero-berdintasunerako garrantzirik ez izateari buruzko txostena aukeratu izana ere egokitzen hartzen da orokorrean.

Ezarrita dagoenaren arabera, generoaren arabera eraginari buruzko txostena, praktikan, arauaz arduratzen diren langileek egiten dute. Berdintasunerako Zuzendaritzak kanpoko aholkularitza bat jarri du sailen eskura. Aholkularitza horrek hertsiki lan egiten du sailekin berdintasunari zeharka ekiteko prozesuari laguntzeko lan globalaren esparruan⁴⁹.

Nahiz eta aurreikusi araua eta eraginari buruzko txostena aldi berean egin behar direla, beti ez da lortzen biak aldi berean egitea. Batzuetan, prozeduraren amaieran sortzen da premia, zerbitzu orokorrek antzematen dutenean GEErik ez dagoela, eta organo sustatzaileari gogoratzen diotenean GEErik gabe Idazkaritzak ez duela izapidetuko. Era berean, ez da lortu kasu guztietan sistematizatzea txostena egin ondoren Berdintasunerako Zuzendaritzara bidaltzea.

41. TAULA. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioak, xedapen motaren arabera. Bizkaiko Foru Aldundia

	2014	2015	GUZTIRA
Foru-araua	11	3	14
Foru-dekretua	115	134	249
Foru-dekretu arauemailea	8	5	13
Foru-agindua	6	2	8
Plana	2	2	4
Bestelakoak ⁵⁰	5	68	73
GUZTIRA	147	214	361

Iturria: Guk geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuetan oinarrituta.

49 Lan horretan, berdintasun-planaren jarraipena egiten da, teknikarien bilerak koordinatzen dira, GEEen jarraipena eta ezarpena egiten da, eta tutoretzak egiten dira sailekin eta aholkuak ematen zaizkie.

50 Gehienak diru-laguntzen deialdi publikoen ebazpenari buruzko iragarkiak edo adostasun-proposamenak, hitzarmenak, eta zuzeneko diru-laguntzak eta diru-laguntza izendunak dira.

Datuetan ikus daiteke, halaber, zerbitzu batzuek eskatuta, gidalerroetan hertsiki aurrei-kusten denetik haratago egin direla GEEak. Diru-laguntzak eskuratzeko deialdiarekin eta esleipenarekin eta hitzarmenekin lotutako Foru Dekretuen eta administrazio-egintzen garrantzia nabarmentzen da, eta horrek ikasteko dinamika espezifiko bat sortzen du. Diru-laguntza asko urte baterako izaten direnez, generoari buruzko azterketa hasieran egin daiteke, aurreko dekretua ebaluatuz, eta, aldi berean, kontuan hartzen da aurreko urteko diru-laguntzen onuradunen eta emaitzen azterketa-prozesuan. Horrela, programen emaitzei eta eraginei buruzko gogoeta indartzen da potentzialki. Horri esker, txostena zirriborroa idatzi bitartean egin daitekeenez, zirriborroa eta azken xedapena oso gutxi desberdinduko dira edo ez dira desberdinduko. Horri kontrajarririk, denborari dagokionez, urtearen azken hiruhilekoan biltzen diren xedapenetako bat da, eta onartzeko nolabaiteko premia izaten duenez, GEEaren erritmoak mugatuak izaten dira.

Tresnak proposatzen duen azterketa-ereduari dagokionez, ikusi da arazoak daudela gene-roaren araberrako eraginari buruzko azterketa egiteko, desberdintasunak identifikatzeari eta xedapenaren eragina aztertzeari dagokionez –bereziki arau eta balio sozialei eta ba-liabideak eskuratzeari dagokienez–.

Aztertutako GETaren laginak ere gauza bera erakusten du, egindako diagnostikoak indartu behar direla adierazten baitu, diagnostiko horiek sendagoak eta garrantzi handiagokoak izan daitezen. Ikusten da, orokorrean, datuak aurkezten direla (batez ere emakumeen eta gizonen presentziari buruzkoak eta baliabideak eskuratzeari buruzkoak, gutxiagotan arau sozialei eta erabakiak hartzeari buruzkoak), baina datu horiek ez dira beti behar be-zala eta sistematikoki interpretatzen eta testuinguruan kokatzen, eta horren ondorioz, eraginari buruzko gogoeta eta ebaluazio ahula egiten da. Halaber, ikusi da kontzeptuaren alorreko nahasketaren bat edo desberdintasunari buruzko ideia guztiz kuantitatiboa da-goela, eta horrek zaildu egiten du dagoen dinamikaren ulermen integrala. Alderdi positibo gisa, txosten batzuk aztertzeko garaian egin den ahalegina eta ebaluazioaren zabalta-suna nabarmendu behar dira, baita gehienetan berdintasunari buruzko araudiari eta planei erreferentzia egiten zaiela ere. Aitzitik, aztertutako GETen erdietan baino gutxiagotan identifikatzen dira genero-helburuak.

Elkarrizketa kualitatiboetan bildutako informazioaren arabera, esan daiteke genero-des-berdintasunei buruzko ezagutza ez ezik, politika publikoen azterketan eta datuen erabile-ran gutxieneko praktika izatea ere eskatzen duen esparru analitikoa dela. Horrek askotan sortzen du GEEak egiten dituzten pertsonen zailtasunak izatea GEEen funtsezko kon-zeptu batzuei aurre egiteko.

Zailtasun hori hainbat alderdirekin lotzen da: ebaluazio hori egiteko denborarik ez izatea, eta datuak lortzeko ez ezik, planteamendu orokorrak eremu sektorial eta tekniko oso espezifiko batera egokitzeko ere zailtasuna izatea.

EMAITZAK ETA ERAGINAK

3.2.3

GEEetan parte hartu duten eragileen ikuspegiaren arabera, prozesu horri esker aldaketak sartu dira azken araudian, baina, orokorrean, uste dute berrikuspena hobetu daitekeela: uste dute oso desberdintasun gutxi daudela arauaren zirriborroaren eta txostenaren ar-tean biak aldi berean egin direlako. Hobekuntzak sartzen dira dagoeneko zirriborroan, eta GETetan erregistratu egiten dira, izatekotan. Dena den, kasu batzuetan sartu dira neurri osagarriak ezarpenean (adibidez, berdintasun-planen proposamena) arauaren zirriborroan aurreikusitakotik haratago.

Sartutako berdintasun-neurriei dagokionez, honako hauek dira gehien sartzen direnak: enpresak sexuagatiko diskriminazioa dela medio kanpo uztearekin lotutakoak eta bereizitako datuekin eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistarekin lotutakoak.

Orokorrean, adierazi dute ereduari alde aurretik ezarritako neurriak sartzen direla, baina gutxi berritzen eta arriskutzen dela. Egoera hori neurri hori ezartzeko dauden aukerak ez ezagutzearekin, aipatutako azterketa ahula izatearekin, eta GEEaz arduratzen diren langile askoren profil teknikoarekin lotzen da, profil horrek izaera politikoko erabaki bat hartzea eska lezaketan anbizio handiagoko neurriak hartzea eragozten baitu.

Eraginari buruzko ebaluazio-espedienteen laginak adierazten du kasu guztietan proposatzen direla genero-ikuspegia sartzeko neurriak. Neurri horien artean honako hauek nabarmentzen dira: hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren sustapena (kasu guztietan sartu da), emakumeen eta gizonen egoera desberdina hobeto ezagutzea (kasu guztietatik 6tan) eta emakumeen eta gizonen berdintasuna printzipio, helburu edo adierazpen edo azalpen gisa hartzea hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan edo prestakuntza-jardueretan (bi kasuetan espediente hauetako 5etan sartu da). Behin bakarrik proposatzen da genero-gaietan prestakuntza duten pertsonak edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeek parte hartzeko aukera sustatzea. Era berean, proposatu da hautaketa-epaimahaietan parte-hartze orekatua izatea (3 kasutan) eta diskriminazioaren ondoriozko debeku- edo zehapen-neurriak ere proposatu dira (2 kasutan). Kasu batean proposatu dira gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko eta genero-indarkeriaren biktimentzako neurriak; emakumeen arteko desberdintasunei buruzko aipamena egiten da behin, adinaren eta desgaitasunaren gaiei helduz.

Azken araudiari dagokionez, ikus dezakegu GETetan proposatzen diren berdintasun-neurri baino neurri gutxiago azaltzen direla, berdintasuna hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan edo prestakuntza-jardueretan eduki edo irizpide gisa hartzea izanik gehien azaltzen den neurria. Honako neurri hauek azaltzen dira, adibidez: % 50 aintzat hartzea ustiapenean parte hartzen duten senar-emazteen titulartasun partekatua kasuan, paritatea hartzea hautaketa-epaimahaietan edo sexua dela medio diskrimina dadin debekatzea.

BALANTZEA

3.2.4

Datuek erakusten dute GEEa ezarri den lehenengo bi urteak positibotzat hartu behar direla. Txostenen idazkuntza normalizatu da eta tresna hori arauak sortzeko errutinari txertatu denez, pertsona askoren lan-ohituretan izan du eragina.

Puntu horri dagokionez, beharrezkotzat hartzen da txostenen kalitatea eta garapen analitikoak hobetzen jarraitzea, GEEaren ahalmenak eta eraginkortasunak epe ertainerako eta luzerako lana behar duela uste baita.

Berdintasunerako Zuzendaritzak, beraz, adierazi du prozesuari buruzko ikuspegi bat hartu dela: lortu nahi da sailetan erreferente diren pertsonak berak izatea GEEan sartuko direnak, pertsona horiek hobeto ezagutzen dutelako jardun-eremua. Pertsona horiek berdintasunari buruzko ezagutzak izan ditzakete ala ez. Horregatik, helburu nagusia sailak tresnaren jabe egitea da, eta, ondoren, azterketa nahiz gogoeten sakontasuna sendotzea eta hobetzea. Aurrerapen horiek desberdinak izan dira eskumen-arloaren arabera.

Illo horretan, ikusten da eraginaren ebaluazioari buruzko txostenak hobetu egin direla denboran zehar, bereziki aholkularitza indibidualetan parte hartu denean eta GEEaz arduratu diren pertsonak egonkorrak izan direnean, egonkortasun horri esker ikaskuntza

finkatu ahal izan delako. Izan ere, aipatu den ezarpen-arazo nagusietako bat Bizkaiko Foru Aldundiko berezko langileen txandakatzea handia izatea da, txandakatze horrek zaildu egiten baitu prozesua finkatzea.

Oraingoz, langileek ez dute ikusten tresna horren baliagarritasuna araudiari buruzko azterketa, gogoeta eta hobekuntza egiteari dagokionez, nahiz eta aholkularitza-prozesuan helarazten zaien GEEak zentzu horretan eduki dezakeen eragina.

Tartean sartutako pertsonen borondatea –eta bereziki zerbitzuko zuzendariena eta burue-na– alderdi garrantzitsu gisa azaltzen da GEEaren kalitatean eta hobekuntzan: askotan, sektore-arloko ezaugarriak baino garrantzitsuagoa da eta generoan duen sentsibiltatea edo ibilbidea handiagoa edo txikiagoa izatea. Azken urte hauetan egindako ibilbidea aintzat hartzen badugu, esan dezakegu teknikariak –eta politikariak ere bai– hasi direla tresnaren ahalmena identifikatzen; horregatik, tresna hori prozesuan inplika dadin bultzatzen jarraitu behar da. Horretarako, prestakuntza eta baliabideez arduratzea funtsezkoak dira.

GEEaren prozesua sendotzea aurreikusten da; horretarako, jarraipena egiteko sistema indartu behar da eta modu zehatzagoan egituratu behar da. Ildo horretan, aurreikusten da gobernantza-egitura handiagoa daukan foru-arau bat onartzen bada eta sail bakoitzean berdintasunaz arduratuko diren giza baliabideak eta mekanismoak argitzen badira, GEEaren eragina indartu egingo dela.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

3.3

IKUSPEGIA ETA GARAPENA

3.3.1

Gipuzkoako Foru Aldundian hainbat arau, dekretu eta dokumentu daude GEEaren esparrua definitzen dutenak lurralde horretan. Generoaren araberako eraginaren aurretiko txostena egiteko derrigortasuna jasota dago 6/2005 Foru Arauan (70. artikulua). Artikulu horretan ezartzen da Foru Arauaren aurreproiektuak eta xedapen-proiektu orokorrak egiteko prozeduran generoari buruzko txostena erantsi behar dela. Baina ez du formari eta prozesuari buruzko errekerimendurik aipatzen. Esparru horretan, beraz, ikusten da GEEa egiteko premiari buruzko arauak daudela, baina ez dela izapidetzearen jarraipenik eta langileen trebakuntzarik ezartzen.

Horregatik, Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foru Arauaren esparruan (2008-2011) berdintasun-klausulak sartzeari eta generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egiteari ekin zitzaion. Departamentuarterko Talde Teknikoak (STT) –departamentu guztietako idazkariak eta teknikariak eratzen dutenak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak koordinatzen duenak–, kanpoko aholkularitza teknikoaren laguntzarekin, GEEari buruzko barneko gidalerro batzuk egin zituen. Gidalerro horiek Foru Gobernuaren Kontseiluak hartutako erabaki bidez onartu ziren 2011ko ekainean. Gidalerro horietan GEEaren xede diren arautzat ezartzen ditu xedapen orokorrak, funtsean foru-arauek, foruko dekretu-arauek eta arautzeko diren eta denboran jarraitu nahi duten foru-dekretuek sartzen dituztenak. Gipuzkoako Foru Aldundiak bere xedapen orokorren generoaren araberako eraginari buruzko ebaluazio-txostenak egiteko Gidalerroak argita-

ratu zituen.⁵¹ Gidalerro horietan txostenen ezaugarriak ematen dira eta arauaren eragina egiaztatzeko eta ebaluatzeko prozedurak definitzen dira. Generoarekiko egokia ez den araudiaren kasuetan, ebaluazioari buruzko txostenean zer justifikatu beharko den, zergatik ez den egokia eta arauaren idazkuntzan erabilitako hizkuntza berrikusi beharko dela ezartzen da.

Hasieran, Emakunderen 2007ko Gidalerroak egokitze prozesua egin zen. Dena den, eredu bakarra erabili zen eta garai hartan indarrean zegoen bide bikoitza saihestu zen –GET sinplifikatua eta arrunta–.

GEEa berriro arautu zen irailaren 17ko 33/2013 Foru Dekretuan, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoan. Dekretu horretan hainbat egin-kizun esleitzen zaizkie Berdintasunerako Zuzendaritzari eta Berdintasun Zerbitzuari, genero-ikuspegia foru-legerian sar dadin bultzatzearekin eta GEEa egitearekin zuzenean lotutako zereginak, hain zuzen ere.

Ondoren, 2015eko martxoaren 9an emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Araua onartu zen. Arau hori aurrerapauso garrantzitsua da zeharka jokatzeko egiturak eta mekanismoak finkatzeko; esate baterako, berdintasunerako departamentu-unitateak ezarri baitira⁵² eta berdintasunerako foru-politikak bultzatzeko, koordinatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko lana indartu baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako Organo bat, Zuzendaritza Nagusiaren maila duena, sortuz. Foru-arau horren 27. artikulua honela dio: “Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru-arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita”.

Egungo azterketa-ereduak, Berdintasunerako Foru Arau horretan berriro definitu denak, hiru zati dituen txosten bat hartzen du aintzat: 1) arauaren deskribapena eta genero-egokitasunaren identifikazioa; 2) genero-desberdintasunen azterketa eta berdintasunean duen eragina balioestea; eta 3) ondorioak eta hobetzeko gomendioak. Azken bi puntuetan, eredu Eusko Jaurlaritzaren ereduaren antzekoa da, baina banakapen-maila txikiagoa da eta sinpleagoa da, eta horrek eragiten du ulergarriagoa izatea. Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren generoaren araberako eraginari buruzko txostenen egitura aztertutako gainerrako kasuen egitura baino sinpleagoa da. Ez dute txantiloirik sartzen berdintasun-neurri jakin batzuen presentziari buruzko egiaztapen-zerrenda gisa eta atal gutxiago dituzte. Egiaztapen-txostenari dagokionez, Emakunderen Egiaztapen Txostenaren antzekoa da, eta ondorengo jardunetan kontuan hartu beharko diren gomendioak biltzen ditu.

Txostenak egiteko erantzukizuna arau-xedapena sustatzen duen departamentuarena da. GEEaren xedea ez dira Foru Arauaren proiektuak eta xedapen-proiektu orokorrak soilik, sektore-arloko foru-plan estrategikoak ere badira.

Arau horrek Foru Aldundi honetako berdintasunaren gobernantza-egiturak eta -mekanismoak finkatu dituenez, ahalbidetu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren GEEaren eredu Eusko Jaurlaritzaren ereduaren ahalik eta antzekoena izatea: prozesuan aholkuak eman-gotuzten berdintasunerako departamentu-unitateak daude eta nahitaezko egiaztapen-txostena sartu da.

51 <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/73649/Directrices+Impacto+de+ge%CC%81nero-definitivo.pdf/d8df1380-6b9a-4e26-935c-ace751037a73>

52 Arauan aurreikusten da ebaluazioa egitea, baina landa-lana egin zenean unitateak ez zeuden ezarrita oraindik.

Ezartzeko eta laguntzeko mekanismo gisa, garrantzitsua da adieraztea gidalerroak egiteko prozesuari –Departamentuartereko Talde Teknikoa buruzagi zela– trebakuntza-prozesu bat erantsi zitzaiola. Ondoren, GEEari buruzko ikastaroak eskaini zitzaizkien teknikariei prestakuntza-plan orokorrean.

2015ean, departamentuei *laguntzeko orientabide* batzuk egin dira (3 orri inguruko dokumentua), Departamentuartereko Talde Teknikoaren bitartez zabaldu direnak, txostenen egiturari eta berdintasun-zerbitzuak lantzea garrantzitsutzat hartzen dituen eremuei buruzko gomendioei ekiten dietenak; horrez gain, tresnak eta datu orokorrei nahiz sektore arloko datuei buruzko tresnak eman dira txostenak egiteko.

Orobat, 2015ean, ebaluazioak egiten laguntzeko, zerbitzuko eta ataleko buruzagitzei (buruzagitzen arabera txostenak egiteko prozesuan sartuta egon behar zuten pertsonak) bideratutako *prestakuntza* gauzatu da. Prestakuntza horrek bi saio zituen: lehenengo saioan tresnaren ikuspegi orokorragoa eman zen, eta bigarrenean praktika egin zen. Era berean, bertaratu gabeko fase bat zegoen, lan praktikoa eginez, eta bateratze-lana egiteko azken fase bat. Prestakuntzaren aurrez aurreko zatiak 15 orduko iraupena izan zuen, bertaratu gabeko zatiak iraupen handiagoa izan zuen. Hori guztia gaian aditua den pertsona baten aholkularitza teknikoarekin, aholkularitzarekin eta tutorizazioarekin osatu zen. Prestakuntza mota horren 2 edizio egin dira, eta edizio horietan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen-arlo guztiek hartu dute parte.

Prestakuntza-prozesu horren esparruan 4 *departamentuartereko lantalde* sortu ziren eztabaida edo zalantza sortu zuten edo sor zezaketen arau jakin batzuk sakon aztertzeko –bai aurrez aurreko fasean bai bertaratu gabeko fasean–, eta prozesuan aurkitutako erresistentziei buruzko esperientziak partekatzeko. Egindako gogoetak eta sortutako kezkak beste sail batzuetara eraman ziren, eta horri esker, GEEtan inplikaturako teknikariak indartzea eta prozesuari buruzko ikuskera globala finkatzea lortu zen.

Zuzenean inplikaturata dauden pertsonak gehiago kontuan hartzen dituen prestakuntza-eredu horrekin lortu da beren ekimenez prestakuntza egingo ez zuten pertsonak parte hartzea (esate baterako, taldeko buruzagitza) eta horrek ondorio biderkatzailea ekar dezake etorkizunean. Era berean, eztabaidatzeko eta trebatzeko gune bat izateko bide eman du, sinergiak sortzeko eta sailerako langileek berdintasun-zerbitzuarekin duten harremana indartzeko. 2016. urterako eskaini da GEEa prestakuntza-plan orokorrean. Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak *aholkularitza*-lana egiten jarraitzen du erakundearen barnean.

Ogasun Departamentua nabarmentzen da urtero egiten dituen GEEen kopurua dela medio (esate baterako, GEEen % 72 2015ean). Horregatik, lantalde misto bat ere sortu da Ogasun Departamentuaren eta Berdintasunerako Organoaren artean, irizpide erkideak finkatzeko, eztabaidarako guneak irekitzeko eta ad-hoc lan-esparruak sortzeko. Talde hori 5 edo 6 aldiz bildu da 2015ean. Beste departamentu batzuen araugintza txikiagoa denez, departamentu horiekin ez da mota horretako hurbilketarik egin oraindik, baina GEEaren prozesuaren egunerokotasunean ematen dira aholkuak.

Termino orokorretan, esan daiteke erantzuna ona izan dela eta departamentuetako ataleko eta zerbitzuko buruzagitzen lotura nabarmena izan dela, nahiz eta arloen artean desberdina den. Adierazi da profil garrantzitsuak dituzten eta beren zerbitzuen barnean ospe handia duten teknikarien partaidetza izan dela, eta teknikari horiek txostenak egiteko prozesuan duten inplikazio-maila handia dela.

Azkenik, GEEaren txostenak eta egiaztapen-txostenei dagozkien txostenak biltzen hasi dira GEEaren datu-base batean, eta, gainera, ondoren, jarraipena egin da zer proposamen sartu diren ikusteko.

EZARPENA

3.3.2

Gipuzkoako Foru Aldundian 2010az geroztik egiten dira GEEak. Dagoeneko deskribatu denaren arabera, prozesua gero eta gehiago finkatu eta egituratu da denboran, baina Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Araua onartu zenetik lortutako jauzi kualitatiboa nabarmendu behar da.

42. TAULA. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak. Gipuzkoako Foru Aldundia

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	GUZTIRA
Foru Dekretua	2	3	2	-	2	11	20
Foru Dekretua-Araua	1	1	3	1	2	1	9
Foru-araua	4	4	7	9	11	6	44
Plana	-	-	-	-	-	1	1
GUZTIRA	7	8	12	10	15	19	71

Iturria: Guk geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuetan oinarrituta.

GEEa araua egin bitartean edo araua bukatzean egin da. Egungo prozedurak oso denbora gutxi daramanez abian, kasu batzuetan oraindik ez da behar bezala aplikatu eredua. Esate baterako, txostenak egiaztatzekeo hilabete bat lehenago bidaltzea gomendatzen bada ere, batzuetan aurrerapen gutxiagoz jasotzen dira txostenak izapidetzeko premia dagoelako. Hori bereziki problematikoa da konplexutasun handia duten xedapenen kasuan; esate baterako aurrekontuen edo plan estrategikoen kasuan.

Bestalde, aztertutako laginean, generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren egitura txostenaren edukiaren arabera egokitu da, eta kasu guztietan ez dira atal guztiak sartu. Dena den, beti dago testuinguruan kokatzeko testu bat, generoaren egokitasunari buruzko azterketa bat eta eraginaren ebaluazio bat. Kasu askotan, honako hauek ere biltzen dira: egoerari buruzko diagnostiko bat, arauari buruzko azterketa bat (arauaren atal nagusiei buruzkoa edo testu osoari buruzkoa) eta eraginari buruzko balioespen orokor bat. Azkenik, kasu guztietan aipatu da hizkuntzaren erabilera.

Aldundi honen prozedurak berekin dakar GETa itzultzea –beharrezkoa bada– Egiaztapen Txostenak ebaluatzen badu GETak ez duela zuzen aplikatu GEEari buruzko arauan ezarritakoa. Aztertutako laginean, egoera hori 2 kasutan gertatu da. Kasu batean generoaren egokitasuna identifikatu ez delako, eta beste batean eraginaren ebaluazioa oker egin delako.

Eredu analitikoa errazagoa eta malguagoa izateak laguntzen du eredu hori betetzea, askotan, koherenteagoa izaten, baina litekeena da gabezia gehiago izatea azterketari eta

proposamenei dagokienez. Izan ere, aztertutako espedienteetan kasu bakar batean soilik egiten dira hasierako testua aldatzeko proposamenak.

Txosten horien edukiari dagokionez, kontuan hartu behar den lehenengo elementua, arestian adierazi dugunez, generoaren egokitasuna da. Gidalerroen arabera, GETak honako hau hartuko du generoarekiko egokitzat: “pertsonengan [gizonak eta emakumeak] zuzeneko edo zeharkako ondorioak dituen eta baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko garaian eragiten duen esku-hartze oro”, eta araua sustatzen duen organoak bi irizpide horiek betetzen ote diren aztertzen du beti. Egokitasuna identifikatzera bideratutako atal bat egoteak asko indartzen du foru-aldundi honen txosten-eredua, eta, horrenbestez, sendotasun handiagoa dago arauaren eraginpeko eremuko egoerari buruzko diagnosiaren eta arauaren eraginaren artean. Gorago aipatu dugunez, aztertu diren egiaztapen-txosten gehienetan (8tik 7tan) GETa eta ETa bat datoz egokitasunari buruzko ebaluazioan.

Eraginaren ebaluazioari dagokionez, GETen hasierako zeregina aztertutako eremuan diagnostikoa egitea da, edo GETetako hitz berak erabiliz “hasierako egoeraren azterketa egitea ” edo “dauden desberdintasunen deskribapena egitea”. Eusko Jaurlaritzaren kasuan ez bezala, hemen ez dira derrigorrez bete behar diren azpiatalak sartzen, baina aztertutako desberdintasunak eta desorekak azaldu behar dituzte. Aztertu diren 6 espedienteetan, Egiaztapen Txostenean adierazten denaren arabera, diagnostikoa egokia da 3 kasutan, eta ez da behar adinakoa edo okerra da beste 3 kasutan.

Azkenik, araua balioetsi da, eta, horren ondoriozko eraginaren ebaluazio globala egin da. Balioespen hori neutroa da 4 kasutan, positiboa da batean eta ez da oso argia beste batean. Balioespen positiboa eta “eragin neutroa” duten bi kasu zalantzan jarri ditu Egiaztapen Txostenak. Aztertutako sei kasuetatik, soilik kasu batean errepikatu behar izan da txostena, nahiz eta beste 3 kasutan kritikak edo gomendioak egin diren; hortaz, GETa eta ETa 2 kasutan soilik datoz bat erabat. Nolanahi ere, generoarekiko egokiak diren arauen espedientei dagokienez, aztertu diren 13 espedientei (ETarekin eta ETrik gabe) buruz balioetsi da argudiaketa eta azterketa, orokorrean, handia dela 4 kasutan, ertaina 5 kasutan eta txikia beste 4 kasutan.

Txosten horren azterketa osorik hartzen badugu, esan dezakegu txostenaren azterketa-eta argudiaketa-maila ona dela.

ETan bildutako iritzien arabera, badirudi aztertutako arauen mailak baldintzatu egiten duela GETen kalitatea. Zehazki, kasu batean ETak gomendatzen du aztertutako dekretuaren erreferentziatzko legea aldatzea, eta 3 kasutan zehazten da maskulino generikoa Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak aldi baterako, eta segurtasun juridikoa dela medio, adostutako zerrenda bat osatzen duten terminoetan erabili dela. Erabaki hori hartu da hizkuntza aldatzeak goragoko mailako aurreko arauari buruzko erreferentziak oso argiak ez izatea eragin lezakeelako.

EMAITZAK ETA ERAGINAK

3.3.3

Sartutako berdintasun-neurriei dagokienez, egiaztatu ahal izan da, oro har, proposamenak egin direla: araudiaren zirriborroan azaltzen diren neurriak biltzen dira txostenetan, baina ez da neurri gehigarririk proposatzen orokorrean. Berdintasunerako Organoak adierazi duenez, departamentu jakin batzuetako profil tekniko batzuek proposatu dute, orain dela gutxi, neurri berriak sartzea. Ebaluazio honetan ez dago informazio sistematiko zabalago-

rik, baina lortutako datuek erakusten dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izateari buruzko gero eta neurri gehiago daudela.

Dagoeneko adierazi dugunez, aztertutako espediente batean soilik egin dira jatorrizko testua aldatzeko proposamenak, eta ET bakar batean proposatu da arauan sartu behar den berdintasun-neurri zehatz bat. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan egoeraren diagnostikoa hedatzeko aukerari buruzko gogoetak sartu dira, arauaren eragina zenbaterainokoa den edo artikuluetan egin daitezkeen aldaketak identifikatzeko gai izateko aurretiko urrats logiko gisa.

Era berean, ikusi da GEEaren prozesuak barne-eztabaida interesgarriak sortu dituela langileen artean, eta horren ondorioz, ikuspegi eta gogoeta berriak sortu dira araua aldatzeko eta neurriak sartzeko premiarik ote dagoen galderari buruz. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren ustez, GEEak behin betiko araudian eragiteko duen gaitasuna borondate politikoaren arabera da batez ere.

BALANTZEA

3.3.4

Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako metodologiak, gure ustez, hiru alderdi sendo garrantzitsu ditu: GTEa itzultzeko aukera, egokitasunari buruzko atal bat izatea eta generoaren arabera eraginari buruzko balioespen global argudiatu bat egiteko atal bat izatea.

Aztertutako espedienteen lagin laburrak erakusten digu bi puntu ahul egon litezkeela; puntu horiek erkatu egin beharko lirатеke berrikuspen zabalago eta sistematikoago bat eginez. Alde batetik, egiaztatu da GETetan eta ETetan ez dela artikuluei buruzko azterketa sakonik egiten (hori GETaren egiturarengatik eta GETaren edukia teknikoegia delako izan daiteke). Bestalde, bi txostenetako bakar batean ere ez da artikulua aldatzeko proposamen zehatzik egiten. Ez-agertze hori ez da oso hautemangarria txostenen egitura gidalerroetara egokitu ordez txostenen edukira egokitzen delako, eta egiaztapen-zerrenda zehatzagorik ez dagoelako. Hori gorabehera, testuen malgutasuna eta sendotasun logikoa nabarmendu behar den elementu positiboa da.

Egin den araudiaren genero-egokitasuna identifikatzea zalantzak sortzen dituen eta sail batzuetan oraindik behar bezala onartu ez den gaitzat hartzen da, eta, horren ondorioz, ez da beharrezkotzat hartzen GEEa egitea. Era berean, aipatu da teknikariek zailtasunak dituztela beren departamentuak sustatutako araudietan generoaren arabera eragin negatiboa identifikatzeko. Praktikan, araua sustatzen duen organoan GEEaren txostena egiteko ardura duten langileak oso profil desberdinetakoak dira (idazkaritza teknikoak, zerbitzu juridikoak, teknikariak, eta abar).

Nolanahi ere, esan daiteke GEEaren prozesua pixkanaka finkatu dela Gipuzkoako Foru Aldundian. Hasiera batean eragin-txostenak egiten ziren, departamentuek eskatzen zutenaren arabera ematen zen aholkularitza eta proposamenak egiten ziren sistematikoki ez bazen ere. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arau berriak egiaztapen-prozesu arautua ezartzen duenez, GEEak legezkotasun handiagoa hartu du. Egoera berri horretan ibilbidea laburra den arren, lan-ildoak lineala eta argia izan da. Identifikatu da berdintasun-erakundeak erakunde-arloan pisu handiagoa izateak eta araudia egiteko prozesuan parte hartzeko aukera izateak ekarri duela onarpen eta aginpide gehiago izatea, eta departamentuen jarrera proaktiboa sortu du, baita laguntza emateko lantaldeak sortzeko premia nabarmena ere. GEEa beste txosten batzuen maila berean jarri denez,

berdintasun-politikei beste foru-politika batzuen onarpenarekin eta estatusarekin pareka daitekeen onarpena eta estatusa eman zaie.

Hala eta guztiz ere, GEEa emakumeei eta gizonei eta berdintasunari buruzko esku-hartze politikoek duten eraginari buruzko gogoeta egiteko mekanismo gisa erabiltzeko erronka proposatu da. Hori bereziki garrantzitsutzat hartzen da urtero onartzen den araudiari dagokionez –adibidez, zerga jakin batzuen erregulazioa–, epe ertainerako eta epe luzerako lan bat garatzea ahalbidetuko lukeelako, eta lan horrek politiken edukietan pixkanaka eragitea ahalbidetu lezakeelako, bereziki GEEaz arduratzen diren pertsonen jarraitutasuna dagoenean.

Azkenik, adierazi da, halaber, GEEa administrazio-izapide huts bat izateko eta dago-kion araudiaren edo planean benetan eraginik ez izateko arriskua dagoela. Horregatik, egiaztapen-txostenen garrantzia eta Berdintasunerako Organoak egindako jarraipen-egin-kizunaren garrantzia nabarmendu dira. Zuzenean aztertutako xedapenetan eta etorkizune-ko araudian GEEaren prozesuak duen eragina indartu dezake egiaztapen-eginkizun berri horrek.

FORU-EREMURAKO ONDORIOAK

3.4

Berdintasunerako Legeak ezarritako parametroen barruan, aldundi bakoitzak bere ibilbi-dea garatu du genero-zeharkakotasuna sartzeko eta berdintasunerako gobernantzako era askotako tresnak abian jartzeko. Tresna horiek hainbat modutara eta hainbat erritmotan garatu dira aldundi bakoitzaren lehentasunen eta ezaugarrien arabera. Ezin da ahaztu GEEaren garapena desberdina izatea askoz ere tresna gehiago biltzen dituen zeharkako-tasun-estrategia multzoarekin lotuta dagoela. Era berean, litekeena da foru-mailan izan den berdintasun-egituren garapen-mailak –bereziki organigraman berdintasun-zerbitzuak eta zerbitzu horiek dituzten baliabideak kokatzea ez ezik, berdintasunerako saileko uni-tateak edo erreferenteak ezartzea ere– neurri handi batean ezarri izana gobernantza-mekanismoak foru-lurraldeetan praktikan jartzeko erritmoa.

Eusko Jaurlaritzak zehaztasunari, sakontasunari eta deszentralizazioari buruz duen ikus-pegia hartu dute aldundi guztiek gaingiroki; hau da, araudia sustatzen duten unitateen aldeko apustua egin dute, esate baterako, GEEa egiten duten eragileen aldeko apus-tua, berdintasuneko zuzendaritzen eta zerbitzuen aholkularitzarekin eta laguntzarekin, eta azterketen kalitatea eta eragina pixkanaka hobetzeko nahiaren aldekoa. Lurraldeen arteko aldeak sortzen dira aholkularitza hori zehazteari dagokionez eta Eusko Jaurlari-tzan ezarritako ereduaren garapen-mailari dagokionez. Ikuspegi orokor horretatik abiatuta, egokitzapenak egin zaizkie foru aldundi bakoitzaren espezifikotasunei –berdintasunerako gobernantzaren garapen-mailari dagokionez bereziki– baita beharrezkotzat hartu diren hobekuntzei eta berrikuntzei ere.

Aldundi guztiek eredu analitikoa sinplifikatzea erabaki dute, Eusko Jaurlaritzaren gidale-rrorak zehatzegiak (adibidez, eginkizunen, balioen, baliabideen eta abarren arteko berei-zketari dagokionez) eta berdintasunari buruzko ezagutzarik ez duen edonork ulertzeko zailegiak direla uste dutelako. Berdintasunerako gobernantza-egitura txikiago bat izateak ekarri du, halaber, kanpoko aholkularitzak gehiago erabiltzea. Hori oso estrategia baliaga-

ria izan daiteke ezagutzak eta barne-trebakuntza sortzeko, baina Generoaren arabera eraginaren ebaluazio-prozesuari legezkotasun eta ikasteko gaitasun txikiagoa emateko arriskua du.

Ogasunari dagokionez, foru-aldundien eskumen espezifikoek gure ustez nabarmendu behar den aukera bat eskaintzen dute: datu kopuru handia erabiltzeko aukera eman-go lukete –datu horietako asko sexuaren arabera banakatuta– GEEa ez ezik, generoari buruzko azterketa ere, zentzu zabalean hartuta, aberasteko eta sendotzeko. Ildo horretan, foru-aldundiak kokapen abantailatsuan daude aberastasun handiko datuak dituzten azterketa horietan sakontzeko eta, era berean, gastu publikoaren egituraren ez ezik, diru-sarrera publikoaren egituraren ere eragiteko, eta horrek guztiak ahalmen handia izan dezake berdintasunaren sustapenean.

Ildo horretan, komenigarria izango litzateke hiru foru-aldundiak elkarrekin komunikatzeko eta trukatzeko sare espezifiko bat izatea GEEari dagokionez, erakundearteko guneetan presentzia izatetik haratago. Horretarako, foru-aldundi bakoitzak egitura, ibilbide eta estrategia aniztasunari dagokionez dituen erronkak gainditu beharko lirateke. Dena den, foru-mailaren espezifikotasunak, bereziki Ogasunari dagokionez, eragin lezake, behar bada, Ogasuna lan-ildo interesgarria izatea etorkizunean.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA TOKI-EREMUAN

3.5

Toki-eremuan, oro har, generoaren arabera eraginaren ebaluazioa garatzeko dago oraindik, Bilboko Udalean bakarrik egin baita GEEak egiteko adierazleen gida sakon bat. Orokorrean esaten da GEEa berdintasun-politiken toki-eremuko zeharkakotasuna lortzeko ahalmen handia duen tresna dela, baina egun dauden baliabideek zaildu egiten dute GEEa praktikan jartzea.

Gaur egun, Emakunde eta Erakundearteko Batzordea prozesu espezifiko bat egiten ari dira hiriburuen eta udal txiki eta ertainen partaidetzarekin GEEa toki-eremuan modu sinplifikatuan nola ezar litekeen eta hura ezartzeko tresna egokiak zein izango liratekeen balioesteko. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioak egiteko eta aplikatzeko Lantalde tekniko bat sortu da toki-eremuan Berdinsarearen esparruan.

Estatu osoan dauden esperientziak eta prozedurak berrikusi dira eta udalerriek arauetara buruz egiten dituzten beste txosten mota batzuk –ingurumen-arloan, esaterako– aztertu dira egon litezkeen aukerak balioesteko. Horri esker, hainbat udalekin parte hartuz metodologia zehatz bat –azterketa egiteko tresnekin eta izapidetze-ibilbide zehatzekin– adostea lortu da. Metodologia hori EAEko esperientzietan oinarrituta dago eta udalerrira batzuetan probatzen hasi dira toki-eremura egoki daitekeen GEEaren prototipoa izan dadin lortzeko.

Nolanahi ere, GEEa euskal udalerrietan ezartzeko, funtsezkoa izango da hainbat erakundek, hala nola Eudelek, Emakundek edo aldundiek laguntza, prestakuntza eta aholkularitza emateko garaian izan dezaketen zeregina.

4

ONDORIO OROKORRAK

Hiru gobernu-maila desberdinen ondorioak alderatzeko zailtasunak badaude ere, garrantzitsua da guztientzat garrantzitsuak izan daitezkeen ondorio orokor batzuk proposatzea:

- EAEn generoaren araberako Eraginaren aurretiko Ebaluazioa ezartzeko eta finkatzeko prozesuan dago. Bere ahalmen guztiak garatu ez badira ere, araugintza-prozesuan sistematikoki sartzea lortu da eta, beraz, eragile desberdin askoren lan-ohituretako zati bihurtu da. Berdintasunerako Legea ezar dadin bultzatzeko potentzialtasun handia duen tresna da.
- Oro har, GEEa arrakastatsua izateko funtsezko hainbat elementu aipatu dira bildutako informazio kualitatiboan:
 - GEEa derrigorrezkoa izatea ekarriko duten, GEEaren helburua eta prozedurak definituko dituen eta tresnari legezkotasuna eta garrantzi politikoa emango dion Berdintasunerako Lege bat edo beste arau batzuk izatea.
 - Azterketa egiteko tresna zehatz bat izatea.
 - Aholkularitza, laguntza eta prestakuntza izatea.
 - GEEa generoari buruzko *mainstreaming* estrategia global batean txertatzea.
 - Inplikaturako eragileek berdintasunaren alorreko borondate politikoa eta sentsibilitatea izatea.
- GEEaren prozesua politikaren edukiei buruzko azterketa eta gogoeta egiteko tresna garrantzitsu bat da. Generoaren araberako eraginaren diagnostikoa eta ebaluazioa, ordea, lantzeko zailtasun handiena duen prozesuaren zatia da, neurri batean, administrazio publikoak oso tradizio analitiko txikia duelako gure ingurunean. Trebatzeko eta laguntzeko prozesu jarraitu bat behar da bere ahalmena hedatzeko eta eraldatzeko gaitasunik ez duen izapide ez bihurtzeko. Horregatik, ezinbestekoa da aztertzeko eta ikasteko dimentsio hori epe ertainera eta luzera sendotzen jarraitzea, politiken edukien berrikuspen integralak emateko ondorio gisa.
- GETetan arauaren zirriborroan bilduta dagoena erregistratzen den neurrian, ez dago argi zenbateraino den berrikuspen kritikoa; hau da, zenbateraino den arauaren diseinuaren *ex ante* ebaluazioa (txostenak biltzen duen aurretiko ebaluazio hori zenbateraino egin den eta kasu guztietan egin den edo ebaluazio horrek dagoeneko arauan sartuta dagoena erregistratu besterik egiten ez duen, alegia). Hortaz, nolabaiteko adostasunik eza dago eraginaren ebaluazioaren logikaren eta euskal ereduaren artean. Beraz, egokia izango litzateke eraginaren ebaluazioaren hasierako une hori argitzea eta ikasteko eta berrikuspen kritikoa egiteko elementuak indartzea.
- Kontuan hartu diren kasuetan, Egiaztapen Txostenek arauaren *ex ante* ebaluazio kritikoa egiteko eginkizuna indartzen dute, eta, gainera, GETen edukiak egiaztatzen dituzte. Baina arau-prozesuaren beranduko une batean izaten direnez, arauan proposatutako aldaketak sartzea zaildu egiten du.
- Gehien sartzen diren berdintasun-neurriak dagoeneko araudian jasota daude-nak dira. Desberdintasunaren alderdi egiturazkoenak lantzen dituzten jardun berriak sektore-eremu bakoitzean sartzea oraindik indartu behar den eta generoari buruzko azterketa egoki bat behar duen zeregin bat da.

- Oro har, ikusten da departamentuen eta sektore-eremuen artean desberdintasunak daudela inplikazio-mailari, sentsibilitateari edo ezartzeko erakunde-egiturei dagokionez, besteak beste.
- GEEan detektatu den erronka nagusietako bat prozesuaren finkatzea bere teknokratizazioaren eta errutinizazioaren bitartez gauza dadin saihestea da: ez da izapide huts bat balitz bezala egin behar, baizik eta politiketako edukiak eraldatzeko eta eduki horien kalitatea hobetzeko modu gisa. Prozesu horretan, funtsezkoa da GEEaren tresnak zertarako balio duen ulertzea. GEEari buruzko prestakuntza espezifikoak kontzientzia hori sortzeko funtsezko elementu gisa sortu da.

Ondorengo taulan GEEaren ezaugarri nagusiak biltzen dira labur-labur eta erkatuta hainbat administrazio aintzat hartuta.

43. TAULA GEEa Eusko Jaurlaritzan ezartzeko ereduaren laburpena

	EJ	AFA	BFA	GFA
Nork	Araua sustatzen/egiten duen eragileak gauzatzeko GETa. Emakundek egindako Egiaztapen Txostena.	Eredua definitzeko prozesuan dago	Araua sustatzen/egiten duen eragileak gauzatzeko GETa. Egiaztapen-txostenik gabe.	Araua sustatzen/egiten duen eragileak gauzatzeko GETa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egindako Egiaztapen Txostena
Zer	Arauen sakontasuna salbuespen batzuekin	Eredua definitzeko prozesuan dago	Eusko Jaurlaritzaren ereduari jarraitu zaio.	Eusko Jaurlaritzaren ereduari jarraitu zaio. Sektore-arloko foru-plan estrategikoak sartu dira.
Noiz	GETa eta araua aldi berean egin dira.	Eredua definitzeko prozesuan dago	GETa eta araua aldi berean egin dira.	GETa eta araua aldi berean egin dira.
Nola	Azterketa zehatz baten eredua zehazten duten Gidalerroak.	Eredua eta gidalerroak definitzeko prozesuan daude	Azterketa zehatz baten eredua zehazten duten Gidalerroak.	Azterketa zehatz baten eredua zehazten duten Gidalerroak.
Berdintasuneko unitateen zeregina	Aholkuak eta laguntza ematea	Eredua definitzeko prozesuan dago	-	Aholkuak eta laguntza emateko zeregina izango duten saileko unitateak sortzea aurreikusten da
Tresna osagarriak	Emakundek aholkuak eta laguntza emateko duen zeregina Prestakuntza Laguntzeko material sektorialak Informazioa emateko, artxibatze eta jarraipena egiteko sistema	Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak aholkularitza eta laguntza emateko duen zeregina Prestakuntza Tutoretzak kanpoko aholkularitza bidez	Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak aholkularitza eta laguntza emateko nahiz jarraipena egiteko duen zeregina Prestakuntza Tutoretzak kanpoko aholkularitza bidez Jarraipena	Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak aholkularitza eta laguntza emateko nahiz jarraipena egiteko duen zeregina Prestakuntza Laguntzeko orientabideak Sailarteko lantaldeak Batzorde Mistoa Jarraipena

5

GOMENDIOAK

Atal honetan zenbait gomendio emango dira GEEaren egungo prozesua sendotzeko, de-
tektatutako erronkei ekiteko, bere ahalmenak indartzeko eta EAEko GEEaren ereduaren
muga espezifikoetara aurre egiteko estrategia alternatiboen bitartez.

EZARPEN- PROZESUARI BURUZ

5.1

- a) *Inplikaturako eragileek **informazioa eskuratzeko aukera hobetzea** prozedura hobe-
tzeko, erakunde-ikaskuntza indartzeko eta generoaren arabera eraginaren ebalua-
zioaren kalitatea eta eragina areagotzeko.*

Zehazki:

- Saileko berdintasun-unitateek eta berdintasun-zerbitzuek (Emakunde eta Foru Aldundietako berdintasun-zuzendaritzek) GET eta ET (Eusko Jaurlaritzaren eta Gi-
puzkoako Foru Aldundiaren kasuan) guztiak eskuratzeko aukera dutela bermatuz.
- Inplikaturako agente guztiek ezarpenenean laguntzeko dauden mekanismo guz-
tiak ezagutzen dituztela eta eskuratzeko aukera dutela bermatuz.

- b) *Eusko Jaurlaritzaren kasu espezifikoan, **berdintasunerako saileko unitateen zeregin
proaktiboa indartzea** beren sailetako langileen aholkularitzari dagokionez, GETen kali-
tatea hobetzei dagokionez eta inplikaturako eragileek ikaskuntzari dagokionez;*

Zehazki, berdintasun-unitateei honako hau bermatzea dakar berekin:

- Arau-xedapen bat egiten noiz hasiko diren garaiz jakiteko aukera izatea, zerbitzu
juridikoekin arau-alerta motaren bat edo komunikatzeko mekanismo sistemati-
koen bat sortuz ahal bada.
- Sailek egindako GET guztien berri izatea eta haiek eskuratzeko aukera izatea.
- Saileko arauetara buruz egindako EET guztien berri izatea eta haiek eskuratzeko auke-
ra izatea.
- Araudia izapidetzeki buruzko memoriaren berri izatea eta hura eskuratzeko auke-
ra izatea. Memoria horretan argudiatuko da EETak egindako proposamenak sartu
diren edo baztertu diren.

Era horretan, unitateek beren abilezia eskaini lezakete araugintzaren hasiera-hasieran,
eta, era berean, behar den informazioa izango lukete GEEaren kalitateari buruzko
gogoeta eta ebaluazioa egiteko prozesuak gauzatzeko epe luzeago batean, egindako
proposamenak eta aurkitutako zailtasunak eta erresistentziak identifikatuz eta siste-
matizatuz ahal den neurrian.

- c) ***Ezartzen lagunduko duten mekanismoetara jarraipena ematea, eta mekanismo horiek
dibertsifikatzea eta finkatzea.***

Zehazki:

- GEEarako garrantzitsuak diren datu bereizitako eremu tekniko eta sektorial zeha-
ztetan sor daitezkeen indartuz. Bereizitako, ezarpenari lotutako erregistro-datu-
en siste-

matizazioa, sarbidea eta erabilera sendotuz eraginaren egoerari buruzko diagnostikoa eta ebaluazioa egiteko.

- GEEan inplikaturako eragile guztien prestakuntzari jarraitutasuna emanez, har-tzaileen profilak sailetan inplikaturako langile guztiei hedatuz pixkanaka eta politika publikoak hobetzeari dagokionez prozesu honen justifikazioa eta onurak ulertzea aintzat har dadin sendotuz. Era berean, garrantzitsua izango litzateke:
 - zuzendaritzako langileen eta politikarien prestakuntza garrantzitsua dela errepikatzen jarraitzea,
 - prestakuntza diseinatzeko eta ezartzeko garaian araudia sustatzen inplika-tuta dauden pertsonak izan ditzaketen profilen aniztasuna kontuan hartzea (idazkaritza teknikoak, zerbitzuetako buruzagitzak eta zuzendaritzak, sekto-re-arloko teknikariak, zerbitzu juridikoak, esku hartzeko eta kontrolatzeko zerbitzuak, eta abar),
 - prestakuntzako edo sentsibilizazioko ekintza espezifikoak gauzatzea. Ekin-tza horiek aholkularitza juridikoko zerbitzuetako langileentzat izango dira prozesu osoan betetzen duten funtsezko zeregina dela medio.
- Sektore-arloko, eskumen-arloko eta teknika-arloko eremu zehatzei egindako diag-nostikoa eta neurri-proposamenak zehaztuko dituzten material espezifikoak gara-zen eta hedatzen jarraituz.
- Gai jakin batzuk lantzeko, laguntzarako metodologia berri malguak eta *ad hoc* aztertze aukera emanez (adibidez, sailarteko lantalde espezifikoak edo foru al-dundietan sortutako batzorde mistoak, beste aukera batzuen artean).
- GEEari dagokionez sailen eta administrazioen artean komunikatzeko eta truka-tzeko guneak eta sareak indartzen jarraitzea.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOARI BURUZ

5.2

*d) Generoari buruzko azterketaren kalitatea eta sakontasuna ez ezik, diagnostikoaren, eraginari buruzko ebaluazioaren eta proposatutako neurrien arteko **trinkotasuna ere indartzea.***

GETei buruzko azterketak erakusten du, oro har, egoerari buruzko diagnostikoa ia denek betetzen dutela, eta, askotan ez duela oinarri logikorik izaten eraginaren au-rreikuspenarekin edo hartutako neurriekin. Lehenetasuna ematen zaio datuak eratzeari datu horiek arauak egun dagoen desberdintasun-egoeran eragingo duen moduari buruzko gogoeta eta azterketa egitea ahalbidetzearen aurretik. Positiboa izango li-tzateke, beraz, arau-xedapenen sartze-mailari buruzko funtsezko azterketa egiteko prozesuak eta gaitasunak sendotzea. Zehazki:

- Diagnostikoaren kalitatea hobetzeko hainbat estrategia garatuz, adibidez:
 - Gehiago sustatuz ezarpenean datuen bereizte sistematikoa egitea, monitorizatzeko eta ebaluazioa, arau-xedapenen helburuekin bereziki lotutako datuak eduki ahal izateko.
 - Estrategia metodologiko eta trebakuntza-estrategia berriak aztertuz, politika publikoen genero-osagai estrukturalenei buruzko trebetasun horiek (azterketa eta gogoeta egitekoak) indartzeko.
 - Zailtasun handiena dagoela ikusi den gai jakin batzuei buruzko ezagutza eta gogoeta indartuz (esate baterako, gizarte-arau eta -balioei buruzko gogoeta, emakumeen aniztasunari eta desberdintasun anizkoitzari buruzko gogoeta edo berdintasun-helburuak araudian identifikatzeari buruzko gogoeta).
- Eraginaren egokitasunaren eta eraginaren ebaluazioaren arteko bereizketa eta identifikazioa nabarmenduz bereziki. Aztertutako arauen genero-egokitasuna ez dago GETaren azterketan sartuta (egokia ez dela esaten den kasuetan izan ezik). Nolanahi ere, kontzeptuei dagokienez, egokitasunari buruzko diagnostikoak ahalbidetzen du jarraitutasun logikoa ematea egoerari buruzko diagnostikoaren eta arauaren eragin positiboaren edo negatiboaren artean; aitzitik, diagnostikoaren eta ebaluazioaren artean loturarik ez izatea da, hain zuzen ere, ikerketa honetan ikusi den arazoetako bat. Horregatik, komenigarria izango litzateke araua ematen duen organoak arauaren genero-egokitasuna erabakitzea generoaren arabera eragina ebaluatu aurretik. Hori aukera egokia izango litzateke hasierako gogoeta egiteko, eta horrek eraginaren ebaluazioa egiteko lana erraztuko luke, beharbada. Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren txantiloia egokitasuna GETetan sartzearen adibide bat izango litzateke.

e) ***Generoaren arabera eraginaren ebaluazioan sakontzea, arauaren ebaluazio globala eta berdintasun-neurriak sartzeari buruzko balioespena bereiziz.***

Ebaluazio honetan egiaztatu da GETek generoaren arabera eraginari buruzko balioespen unibokoa eta positiboa –berdintasuna sustatzen duten neurriak sartzetik datorrena zuzenean– egiteko joera dutela; horrek zaildu egin dezake arau jarraitzen duten joera estrukturalenak identifikatzea. Gauzak horrela, eragina berdintasun-neurriak sartzea balitz bezala ulertzen da, arauaren eragina osorik hartuta balioetsi ordez⁵³.

Etengabeko aldaketa metagarriaren ikuspegitik begiratuta, joera horiek aukera eman beharko lukete, halaber, politika publikoen funtsezko eraldaketa-prozesuak sortzeko erabiltzeko, nahiz eta askotan arau-xedapenen esku-hartze esparrua gainditzen duten.

Bestalde, nekez erabaki daiteke GETak idatzi aurretik egindako generoaren arabera eraginaren *ex ante* ebaluazioaren benetako lan baten ondorio diren edo arauaren zirriborroan zeuden neurriak erregistratu besterik egiten ez duten –egindako elkarriketetan hainbat motatako esperientziak daudela ikus daiteke–.

Beraz, arau-xedapenen eragin globalaren ebaluazioaren kalitatea eta sakontasuna indartu beharko lirateke. Zehazki:

53 Arestian adierazi dugunez, hori gertatzen da izaera politikoko eta teknikoko egiturazko zailtasunak daudelako eraginari buruzko balioespen zehaztuagoa egiteko. Zailtasun horiek GEEaren ereduaren definitu den moduarengatik sortu dira neurri handi batean.

- Gai hori prestakuntzako eta laguntza emateko prozesuetan landuz espezifikoki; generoaren arabera eraginaren ebaluazioa eta sartu behar diren berdintasun-neurriak argiago elkartzuz. Txantiloia edo galde-sortak bi dimentsio horiek bi ataletan bereizten dituen arren (eraginaren ebaluazioa/eragina zuzentzeko neurriak sartzea), praktikan, ordea, ematen du langileek askotan ez dakitela detektatutako eragina proposatu behar diren neurriekin elkartzeko.
- GEEaren prozesuari arau-xedapena egiten ari den unearen hasieran (zenbat eta lehenago hobeto) ekitea ahalbidetzen duten alerta goiztiarreko sistemak ezarri, ekarpen garrantzitsuagoak sartu ahal izateko. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, adibidez, hori Tramitaguneraren bitartez ezar liteke; sistema horrek, alde batetik, GEEaren prozesua hasi dela jakinaraz liezaieke organo sustatzaileei, eta beste alde batetik, arau berri bat idazten hasi dela jakinaraz liezaieke berdintasuneko unitateei. Horrela, GETak aurreko ebaluazio- eta hobekuntza-prozesua erregistratu besterik ez luke egingo (dagoeneko horrela gertatzen da, baina aurreko prozesua benetan izan dela bermatu gabe).

f) *Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eragina ebaluatzeke gaur egun indarrean dagoen galde-sorta edo txantiloia sinplifikatzea eta egokitzea.*

Zehazki:

- Galdera batzuk aldatuz. Egindako azterketaren arabera egiaztatu da hainbat galdera aplikatzeko garaian nahasketa eragiten dutela edo errepikatu egiten direla; horrenbestez, galdera horiek aldatu egin beharko dira.

Ondorengo tauletan, proiektuaren deskribapenari eta eraginaren ebaluazioari buruzko galde-sortetarako egindako gomendio zehatz batzuk aurkeztuko dira.

44. TAULA. 1. galde-sortari buruzko gomendioak (Proiektuaren deskribapen orokorra)

GOMENDIO OROKORRAK	
Gomendio orokorrak: Arauaren alderdi formalen eta prozedurazkoen deskribapenari dagokionez, generoari buruzko azterketa sartu nahi bada, komenigarria da erabakiak hartzeko prozesua ez ezik, berdintasunari buruz dagoen araua betetzen dela ere eranstea. Alderdi horiek azaltzen dira 2. galde-sortan, baina nahasgarria da hor kokatuta egotea, eduki edo neurri zehatzei buruzko alderdiak ez direlako. Aitzitik, proposatzen da helburuei buruzko aipamena kentzea atal honetatik, 3. galde-sortan azaltzen delako.	
GIDOIA	ALDAKETA JAKIN BATZUK EGITEKO GOMENDIOAK
1. Izena	-
2. Sustatzen duen saila eta zuzendaritza	-
3. Proiektuarekin lotura duten beste arau eta plan batzuk	-
4. Proiektuaren helburu orokorrak	-
5. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuak	Kendu (Ondorengo galderetan ere azaltzen da)
-	Araua egiteari buruzko erabakiak hartzeari buruzko atal bat gehitzea
-	Gaur egun ondoren egiten den galdera eranstea: "Diskriminaziorik ez egiteko eta berdintasuna sustatzeko arauak eta beste tresna juridiko batzuk beteko direla bermatzen da?"

45. TAULA. 2. galde-sortari buruzko gomendioak (Generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioa)

GOMENDIO OROKORRAK	
Egokitasunaren deskribapena nabarmentzea gomendatzen da, galde-sorta honek honako alderdi hauek aipatzeko: • Gizarte-egoeraren diagnosia arauaren eremuan • Aurreko arauen eraginaren ebaluazioa • Arauaren egokitasuna berdintasun-egoerak aipatutako eremuan hobera edo okerrera egiteari dago-kionez • Eraginaren aurreikuspen zehatza Egokitasuna nabarmendu ez denez, askotan ematen du neurrien proposamena eta eraginaren aurrei-kuspene diagnostikotik kanpo daudela eremuan, askotan diagnostiko orokor samarra egiten baita.	
GIDOIA	ALDAKETA JAKIN BATZUK EGITEKO GOMENDIOAK
-	Gehitu galdera bat: "Arau honek lagundu al de-zake arauak eragina duen eremuan emakumeen eta gizonen berdintasun-egoera hobetzen, irauna-razten edo okertzen? Nola?" [egokitasuna]
1. Aurreikusten al da arauak edo administrazio-egintzak emakumeei eta gizonei ekarriko dizkien onurek edo haien emaitzek lagundu egingo duela sektoreko desberdintasunak murrizten?	Bi atal horiek batzea edo bi atal horien arteko desberdintasunak zehaztea: onurak edo emaitzak izaten dira erantzuna askotan errepikakorra izateko baliabideak.
2. Aurreikusten al da arauak edo administrazio-egintzak desagerrarazi edo, gutxienez, murriztu egingo dituela baliabideetarako sarbidean dauden desberdintasunak?	
3. Erabakiak hartzeko garaian, gizonen eta emakumeen ordezkapen orekatua edo, gutxienez, esparruan duten ordezkapenaren antzeko ordezkapena aurreikusten al du ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak?	Argitu egin behar da, askotan nahasgarria delako (araua ezartzeko garaian ordezkapen orekatua aurreikusten diren neurriak identifikatu dira, baita araua egiteko garaian hori sartu den kasuak ere).
4. Aurreikusten al da arau edo administrazio-egintzak proposatutako helburu eta neurriak baliagarri izango direla emakumeei eta gizonei lotutako arau sozialak eta balioak gaingitu edo aldatzeko?	-
5. Bermatzen al da diskriminazioa galarazteko eta berdintasuna sustatzeko arauak bete eta beste tresna juridikoak erabiliko direla? Eta aurreikusten al da haiek hobetzea?	Kendu (1. galde-sortan gehitzea proposatu da). Araua hobetzeko aurreikuspena oso galdera konplexu eta abstraktua da. Kentzea proposatu da.

- g) *Proposatutako eta sartutako **berdintasun-neurrien aniztasuna, espezifikotasuna eta zehaztasuna hobetzea**, baita neurri horien eraldatze-maila indartzea ere.*

Adierazi da GEEaren prozesua oso eraginkorra dela 4/2005 Legearen ezarpena bultzatzeko. Hortaz, arau horretan azaltzen diren neurriak dira arau-xedapen berrietan normalean proposatu eta sartzen direnak. Alabaina, Legean esplizituki aintzat hartzen ez direnak askoz ere gutxiagotan sartzen dira. Gai estrukturalagoei genero-ikuspegitik heltzea eta esku hartzeko oinarriak eta ikuspegiak ere genero-ikuspegitik berrikustea, beraz, GETaren prozesuaren irismenetik kanpo geratzen dira.

Komenigarria izango litzateke elementu horiek indartu ahal izatea. Zehazki:

- Legean esplizituki ezarrita dauden neurrietatik haratago doazen eta araudiaren alderdi garrantzitsuak aldatzea eskatzen duten neurriak sektore-eremu desberdinetan definitzeko eta sartzeko estrategiak aztertuz. Puntu honetan, GEEan inplikata dauden pertsonen generoari buruzko azterketan duten trebakuntza funtsezko elementua izango litzateke testuinguru bakoitzean aplikatzen diren eta desberdintasun espezifikoei erantzuten dieten neurriak garatu ahal izateko.
- Erresistentzia handienak sortzen dituzten neurriak espezifikoki identifikatuz eta balioetsiz, esate baterako ekintza positiboak eta gastuaren berrantolamendua.
- Zehazten diren berdintasun-neurrien eraldaketa-mailari arreta esplizitua eskainiz, GEEaren prozesua gehiegizko ohitura ez bihurtzeko eta, GEEaren ahalmena ez mugatzeko.

- h) *Eusko Jaurlaritzaren kasuan, berdintasun-neurriak identifikatzeko gaur egun indarrean dagoen galde-sorta edo **txantiloia sinplifikatzea eta egokitzea**.*

Zehazki:

- Galdera batzuk aldatuz. Egindako azterketaren arabera egiaztatu da hainbat galdera aplikatzeko garaian nahasketa eragiten dutela edo errepikatu egiten direla; horrenbestez, galdera horiek aldatu egin beharko dira.

Ondorengo taulan gai horri buruzko gomendio zehatzak emango dira.

46. TAULA. 3. galde-sortari buruzko gomendioak (Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak)

GIDOIA	ALDAKETA JAKIN BATZUK EGITEKO GOMENDIOAK
«Arauaren edo egintzaren proiektuaren testuan jaso da neurriren bat...»	
Genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko	
Emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetuz	Item hori zaila da interpretatzen testuinguruan neurririk ote dagoen jakiteko. Beharbada hobetu liteke honako hau esanez: "emakumeen eta gizonen egoera desberdina esplizitua eta agerikoa eginez beren jardun-eremuan"
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio, helburu gisa edo adierazpen nahiz azalpen moduan sartuz	-
Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin edo sustatuta	Hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren sustapenari buruzko aipamena kentzea, hau berdintasun-neurri bat delako. Proposatzen da hemen jasotzea araudian bertan hizkuntzaren erabilera ez-sexistatik egiten ote den eta beste galdera bat gehitzea araudiak hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzen duen jakiteko. Araudian bertan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten ote den galdera eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko neurria bereiztea. Lehenengo kasuan ez da neurri bat berez, ez duelako inolako ekintzarik sortzen.
Genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte-hartzea sustatuz	-
Berdintasuna eduki edo irizpide gisa hartuta (sartzeko, baloratzeko edo zeregina betetzeko) hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan, prestakuntza-jardueretan eta abarretan	Guk uste dugu neurri hori funtsezkoa dela genero-ikuspegia ekintza publikoan sistematikoki sartzeko garaian duen ahalmenarengatik; izan ere, praktika baztertzailak berrikusi ondoren proposamen asko egin daitezke. Alabaina, praktikan, neurria adierazita dagoen moduaren arabera, abstraktuegia izan daiteke eta zaila izan daiteke ulertzeko eta aplikatzeko. Alde batetik, errepikakorra izan daiteke (eta beste kategoriatan ere aintzat hartzen diren berdintasun-neurri zehatzak erregistratzea) edo garrantzitsuak diren baina hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan edo prestakuntza-jardueretan aplikatzen ez diren beste proposamen batzuk kanpo utz ditzake. Iradokitzen da bereziki gai hori indartzea prestakuntzan eta GEEaren aplikazioaren jarraipena egiten denean, bere ahalmen guztia garatu ahal izateko.

../..

GIDOIA	ALDAKETA JAKIN BATZUK EGITEKO GOMENDIOAK
Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko: • Hautatzeko epaimahaietan • Sariak emateko epaimahaietan • Kontsulta-organoetan • Zuzendaritza-organoetan • Bestelakoak	-
Ekintza positibokoak: • Emakumeentzat • Gizonak berdintasunaren alde inplikatze • Bestelakoak	Kendu "bestelakoak," beste kasu guztiak gainerako galderetan jasota egon daitezkeelako, edo, nolanahi ere, alferrikako samarra da, zeren hartzen den ikuspegiaren arabera, politika publiko asko ekintza positiboak izan baitaitezke.
Itxuraz neutroa den, baina aurreikus daitekeen genero-inpaktu positiboa duena: • Indarkeriaren biktimenentzat • Guraso bakarrek familientzat • Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenentzat • Bestelakoak, zehaztu	Galdera hau berriro egin azpieremuak sartzeko: • Batez ere emakumeek egiten dituzten jarduerak gauzatzeko baldintzei laguntzeko (inoren laguntza behar duten pertsonen zaintza, garbiketa, pertsonak artatzeko zerbitzuak...). • Generoa dela medio bereziki kalteberak diren kolektiboak laguntzeko (indarkeriaren biktimak, guraso bakarrek familiak, eta abar).
Askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeen desberdintasunak murrizteko: • Adinaren arabera • Gizarte-mailaren arabera • Sexu-aukeraren arabera • Desgaitasunaren arabera • Etnia edo arrazaren arabera • Nazio-jatorriaren arabera • Bestelakoak, zehaztu	Gizarte-mailaren ordez errenta-maila jarri, gizarte-maila eremu juridikoan aplikatu ezin den kategoria bat delako. Landa-eremuari buruzko aipamena sartu. Galdera horri ia inoiz ez zaio baietz erantzun. Arauaren azterketan interseksionalitatea sartzeko moduari buruzko gogoeta egin behar da. Adibidez, litekeena da etnia jakin bateko pertsonen bideratutako arauak generoaren arabera eragin positiboa izatea, nahiz eta diskriminazio antzeko egoeran dauden emakumeentzat izan ez.
Debekatzailea edo zehatzailea • Sexua dela eta diskriminatzeagatik • Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik • Bestelakoak, zehaztu	Gehitu "Diskriminazioaren zehatzailea"

../..

GIDOIA	ALDAKETA JAKIN BATZUK EGITEKO GOMENDIOAK
-	Okupazio publikoko lehiaketei eta zerbitzuak enpresetara esternalizatzeko lehiaketei edo horiekin pareka daitezkeen beste prozesu batzuei buruzko galdera espezifiko bat gehitu, baldin eta lehiaketa eta prozesu horietan merezimenduak eta proben datak egokitzea ez ezik, berdintasunaren alorrean proaktiboak diren enpresetarako puntuazioa ere aipatzen bada.
-	Balio-aldaketa komunikazio ez-sexistaren sustapenaren bitartez sustatzeari eta emakumeak gizartean ikusgai izateko sustapenari edo historikoki emakumeei esleitu zaizkien zereginen sustapenari buruzko galdera gehitu.
Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzaren edukitik haratago, aurreikusten da berdintasunerako helburuen eta neurrian eraginkortasuna osatzera edo areagotzera bideratutako neurriren bat hartuko dela	Jarraipena eta ebaluazioa egiteko Jardunen eta Estatistika egokitzea eta azterlanak egitearen artean dauden aldeak argitzea, askotan errepikakorrak direlako. Bestalde, galdera hori ezin da monitorizatu; interesgarria izango litzateke gai horren jarraipena egitea.
• Hedapena indartzeko ekintzak • Jarraipena eta ebaluazioa egiteko jardunak • Estatistikak egokitzea eta azterlan espezifikoak egitea • Informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak • Arauak, planak edo programak egokitzea edo hartzea • Berdintasunerako planak egitea • Egiturak edo zerbitzuak sortzea • Bestelakoak, zehaztu...	

- i) *GEEko prozesuari buruzko **gogoeta egiteko, ikasteko eta hobetzeko mekanismo sistematikoak** ezartzea txosten berriak aurreko esperientzietan gehiago oinarri daitezen eta hobetzeko irizpideak edo estrategiak ezar daitezen sustatzeko.*

Komenigarria izango litzateke GEEaren eragina indartzea ahalbidetzen duten estrategia guztiak indartzea arau bakoitza eraginaren aurretiko ebaluazio-prozesuari dago-kionez hobetzeko ez ezik, ondorengo arauak ere hobetzeko erakunde-ikaskuntzako prozesu baten bitartez, testuak eta GEEak egiteko zereginean sartutako teknikariek aztertutako araudiaren metaketarekin egonkortu den prozesuaren bitartez, alegia.

Zehazki:

- Egiaztapen-txostenen ekarpenak gehiago erabiliz (Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan), txosten horietan GETa hobetzeko gomendioak eta berdintasun-neurri berriak biltzen direlako. Ebaluazioan ikusi ahal izan da ET horiek hedatzeko zirkuituak, Eusko Jaurlaritzaren kasuan behintzat, nahasgarriak direla eta ez daudela behar adina egituratuta. Inplikaturako agente guztiek ez dituzte jasotzen eta beti ez dira sistematizatzen edo ez da txosten horietan egin-

dako lana aprobetxatzen ikaskuntzari dagokionez. Hortaz, iradokitzen da GEEaren ondorengo prozesuetan ETei irteera eta jarraitutasuna emateko mekanismoak aztertzea hainbat gai-arlotan, beste mota bateko araudiaren generoaren arabera eraginaren ebaluazioaren inguruko ezagutza izateko mailaz mailako eraikitze-prozesuak finkatzeko.

- Araudiaren izapidetze-memoriak erabiliz⁵⁴. Memoria horiek izapidetze-prozesu osoan egindako txostenek proposatutako aldaketak zergatik sartu diren edo baztertu diren azaltzen dituzten arrazoiak biltzen eta argudiatzen dituzten dokumentuak dira. Zerbitzu sektorialen edo juridikoen zuzendaritzen irizpidea argi eta garbi adierazten dute, beraz. A priori, memoria horiek aztertuko balira, GEEan egindako proposamenak sartzeari buruzko erabaki politikoen unea eta arrazoiak argiago ikusiko lirateke; izan ere, ebaluazioan egiaztatu da berdintasun-erakundeek eta -unitateek ez ezik, sailetatik GEEetan inplikaturik dauden eragileek ere ez dakitela proposamen horiek noiz eta zergatik sartu behar diren (eragile horiek, askotan, teknikariak edo langile juridikoak dira, baina oso gutxitan zerbitzuko zuzendaritzak). Zehazki, haxe proposatzen da:
 - Izapidetze-memoriak GEEarekin lotutako dokumentazioaren corpusean sartzea, hau da, funtsezko eragileek –Emakundek, foru aldundietako berdintasun-zerbitzuek edo berdintasunerako saileko unitateek– memoria horien jarraipena egiteko, artxibatzeko eta aldizkako azterketa egiteko.
 - Beste elementu batzuen artean, eragileen artean dauden erresistentziak, kontzeptu-nahasketak edo GEEaren ikuspegiari eta irismenari buruzko desadostasunak identifikatzeko garaian memoria horiek duten ahalmena aztertzea, eta, era horretan, hobetzeko elementu horiek lantzeko estrategia jakin batzuk ezarri ahal izatea.
- Txostenen edukiaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak indartzen jarraitzea, berrikusitako arauak, sartutako neurriak edo diagnostikoaren alorrean egindako hobekuntzei buruzko argazki orokorra eduki ahal izateko. Era berean, interesgarria izango litzateke araudien aldaketak gizartean duen eragina aztertzea; horretarako, hobekuntza horiek emakumeen eta gizonen benetako egoeran nola eragin duten ebaluatu beharko da, GEEaren prozesua ebaluatzeaz gain prozesu horrek duen benetako eragina ebaluatuz.

j) ***GEEaren prozesua hedatzea eta finkatzea egoera aniztasunari eta dauden konplexutasun-maila desberdinei erantzuteko gaur egun formalki ezarrita dauden prozeduretatik haratago.***

Zehazki:

- Estrategia osagarriak aztertuz, arau-xedapenetan eta azterketan dauden konplexutasun-maila desberdinei erantzuteko. Hori honela gauza liteke, adibidez: eragin handiena duten arau-xedapenak (eragin handieneko legeak eta araudiak, esparru-izaera dutelako, arautzen duten xedearengatik, biztanle kopuru handi bategan eragiten dutelako edo baliabide kopuru nabarmen bat mobilizatzen dutelako) egiteko prozesuak zehazki identifikatuz, laguntza hasieratik emateko prozedura espezifikoak ezartzeko asmoz, azterketa konplexuagoa eta zailagoa delako.

54 4/2005 Legearen 22. artikuluan ezartzen da ezinbestekoa dela GEEaren izapideak azaltzen dituen memoria bat egitea. Alabaina, hirugarren gidalerroan ezartzen da memoria horren edukiak izapidetzeari buruzko memoria generikoan sartuta egongo direla.

- Arau-prozedura txikiagoa duten sailen egoera espezifikoki aztertuz; izan ere, sail horiek GEEaren prozesuetan protagonismo txikiagoa dutenez, arau-xedapenen joerei eta edukiei buruzko gogoeta horretan duten parte-hartzea txikiagoa da, eta, beraz, GEEaren tresnak modu mugatuagoan laguntzen du berdintasunaren alorrean abilezia eta sentsibilizazioa sortzen. Egokia izango litzateke identifikatzea berdintasuna sartzeko garaian zailtasun espezifikokoak izaten dituzten ala ez eta errendimendu txikiagoa duten⁵⁵; eta erantzuna baiezkoa bada, laguntzeko mekanismo zehatzak ezarri beharko lirateke –baina ez dute nahitaez GEEarekin lotuta egon behar–.
- Genero-azterketari eta generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioari buruzko estrategia osagarriak aztertuz, politika publikoen kalitateari eta politika publikoak gaur egun formalki ezarrita dauden mekanismoetatik haratago sartzeari buruzko gogoeta-prozesu horiek hedatu eta finkatu ahal izateko estrategiak, alegia. Bereziki, araudietan zehaztuta ez dauden politika publikoak egiteko prozesuez ari gara. Prozesu horiek beste tresna batzuen bitartez bideratzen dira, hala nola programen eta planen definizioa. Beharbada, GEEaren egungo eredu ezin zaie beste tresna hauei aplikatu, eredu hori arau-xedapenetara oso bideratuta dagoelako eta 4/2005 Legea betetzen ote den aztertzea duelako helburu nagusitzat. Alabaina, ematen du egokia dela eragina *ex ante* aztertze eta ebaluatze eredu eta prozedura zabalagoak eta beste errealitate hauei aplika dakizkiekeenak gartztea, bereziki eragin-maila handia duten ekimenei dagokienez. Esate baterako, susta liteke kasu hauetarako ETak eskatzea, aztertu behar diren beste aukera batzuen artean.

Horrek guztiak ahalbidetuko luke genero-ikuspegia duten politika publikoak egiteko beste mekanismo eta prozesu batzuetarako GEetik sortutako esperientzia eta ikaskuntza aprobetxatzea.

55 Hemen, adibidez, sail horien errendimenduari buruzko informazioa beste gobernantza-tresna batzuk aplikatzearekin gurutzatu liteke, esate baterako, hitzarmenetan, kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak sartztea.



BIBLIOGRAFIA

- Alfama, E., eta Alonso, A. (2015). "Las políticas de género en la administración pública. Una introducción." In *"Pertsonen eta Erakunde Publikoen Kudeaketari buruzko Euskal Aldizkaria"*, 8. zk.
- Alfama, Eva eta Cruells, Marta (2013). How can evaluation contribute to the Gender Mainstreaming strategy? *3rd European Conference on Politics and Gender* (ECPG) Konferentzian aurkeztutako ponentzia. Bartzelona.
- Alonso, Alba (2015). *El mainstreaming de género en España*, Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Alonso, Alba, Diz, Isabel, eta Lois, Marta (2010). "La influencia de las políticas públicas de igualdad en la toma de decisiones: un análisis de los informes de impacto de género," *Revista Española de Ciencia Política*, 24. zk., 107-136.
- Bacchi, Carol eta Eveline, Joan (2003). Mainstreaming and neoliberalism: a contested relationship. *Policy and Society*, 2003; 22 (2), 98-118.
- Benschop, Yvonne eta Verloo, Mieke. (2006). "Sisyphus' Sisters: Can Gender Mainstreaming Escape the Genderedness of Organizations?," *Journal of Gender Studies*, 15:1, 19-33.
- Calás, Marta B., Linda Smircich eta Evangelina Holvino (2013). "Theorizing Gender-and-Organization: Changing Times... Changing Theories?," in Savita Kumra, Ruth Simpson, eta Ronald J. Burke (arg.), *The Oxford Handbook of Gender in Organizations*. London: Oxford University Press.
- Connell, Raewyn (2005). "Advancing Gender Reform in Large-Scale Organisations: A New Approach for Practitioners and Researchers," *Policy and Society*, 24(4): 5-24.
- Chappell, Louise eta Georgina Waylen (2013). "Gender and the Hidden Life of Institutions," *Public Administration*, 91(3): 599-615.
- Daly, Mary. (2005). Gender Mainstreaming in Theory and Practice. *Social Politics*, 12(3), 433-450.
- Elizondo, Arantxa; Novo, Ainhoa; eta Silvestre, María (2003). Logros y retos en las políticas de igualdad: el mainstreaming en Euskadi, in: Eva Aguado et al. (arg.) *Roles de xénero en tempos de crise*. Santiago de Compostelako Unibertsitatea, A Coruña Unibertsitatea eta Vigoko Unibertsitatea.
- EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA (2011). 4/2005 Legearen ebaluazioa 2005-2010. "Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen betetze-, garatze- eta ezartze-mailaren jarraipena".
- EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA (2013). EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planaren ebaluazioa. 2012. urtea. Ikertalde.
- GIL, Juana M^a. (2012). Las nuevas técnicas legislativas en España. Los informes de evaluación de impacto de género, Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Jahan, Rounaq (1995). *The Elusive Agenda: Mainstreaming Women in Development*, London: Zed Books.
- Lombardo, Emanuela eta Lut Mergaert (2013). "Gender Mainstreaming and Resistance to Gender Training: A Framework for Studying Implementation," *NORA - Nordic Journal of Feminist and Gender Research*, 21(4): 296-311.

- McGauran, Anne-Marie (2009). "Gender Mainstreaming and the Public Policy Implementation Process: Round Pegs in Square Holes?", *Policy & Politics*, 37(2): 215-233.
- Meier, Petra eta Karen Celis (2011). "Sowing the Seeds of Its Own Failure: Implementing the Concept of Gender Mainstreaming", *Social Politics: International Studies in Gender, State and Society*, 18 (4): 469-489.
- Schofield, Toni eta Susan Goodwin (2005). "Gender Politics and Public Policy Making: Prospects for Advancing Gender Equality", *Policy and Society*, 24: 25-44.
- Silvestre, María eta Elizondo, Arantxa (2013). EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken ebaluazioa. INGURUAK aldizkaria, 55.-56. zk. Ald. 1953-1960.
- Silvestre, María, Elizondo, Arantza, eta González, Lía (2014). "Análisis de la evaluación de impacto de género en Euskadi (2005-2014)". *Igualdad y no discriminación en España: evolución, problemas, perspectivas*, Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Verloo, Mieke (2005): Displacement and empowerment: Reflections on the Concept and Practice of the Council of Europe approach to Gender Mainstreaming and Gender Equality. *Social Politics*, Fall 2005, 344-365.
- Squires, Judith (2005). "Is Mainstreaming transformative? Theorizing Mainstreaming in the context of Diversity and Deliberation." *Social Politics*, 12(3): 366-388.
- Squires, Judith (2007). *The new politics of gender equality*. New York: Palgrave Macmillan.
- Stratigaki, Maria. (2005). "Gender Mainstreaming vs Positive Action: An Ongoing Conflict in EU Gender Equality Policy." *European Journal of Women's Studies*, 12(2): 165-186.
- Walby, Sylvia (2005). "Gender Mainstreaming: Productive Tensions in Theory and Practice." *Social Politics*, 12(3): 321-343.

E

ERANSKINAK

Edukia aldatzeari dagokionez, araua sustatzen duten politikarien zeregina funtsezkoa da, erreferente politikoek jarduten baitute iragazki gisa eta eraginari buruzko txostenean eta egiaztapen-txostenean egin diren proposamenen artetik azkenean zeintzuk sartuko diren erabakitzen baitute. Kasu horretan, Berdintasunerako Legearen babesa erabakigarria da. Puntu honetan, elkarrizketa batzuetan aipatu da araudia izapidetzeko memoria⁵⁶ GETek eta EETek egindako proposamenak sartu edo baztertuko diren argudiatzeko dokumentua dela, eta argi eta garbi adierazi da zerbitzu sektorialetako edo juridikoetako zuzendaritzen irizpidea⁵⁷.

METODOLOGIA

1.E

DISEINU METODOLOGIKO ZEHAZTUA

1.1.E

Ebaluazioaren helburuei eta ebaluazioari buruzko galderei erantzuteko, hainbat estrategia metodologiko garatu dira euskal administrazio guztientzat. Hona hemen estrategia horiek:

a) Ezarpenaren ebaluazioa

GEEaren ezarpen-prozesuak nola garatu diren ebaluatzeko eta sortu diren eragozpenak, erakunde-ikaskuntza nagusiak eta tresna hau araugintza-prozesuetan, erakunde-kulturan eta generoaren trebakuntzan eta sentsibiltatean ezartzeak dakartzan ondorioak identifikatzeko, bi teknika erabili dira: edukiaren azterketa eta funtsezko pertsonen elkarrizketa erdiegituratuak egitea.

Edukiaren azterketak honako honetan jarri du arreta: GEEaren prozesua arautzen duen araudiaren azterketan eta dauden azterketa-tresnen diseinua eta aplikazioa sistematikoki aztertzean (bereziki generoaren arabera eraginari buruzko txostenak eta egiaztapen-txostenak Eusko Jaurlaritzaren kasuan) baita prozesuarekin lotutako beste edozein dokumentazioaren azterketan ere⁵⁸.

Elkarrizketei dagokienez, 19 pertsona elkarrizketatu dira:

- Eusko Jaurlaritzako berdintasunerako saileko unitateetako 10 teknikari.
- Foru aldundietako berdintasuneko 5 zuzendari eta teknikari.
- Emakundeko 2 arduradun.

56 4/2005 Legearen 22. artikuluan ezartzen da ezinbestekoa dela GEEaren izapideak azaltzen dituen memoria bat egitea. Alabaina, hirugarren gidalerroan ezartzen da memoria horren edukiak izapidetzeari buruzko memoria generikoan sartuta egongo direla.

57 Aipamen horrekin bat etorriz, 14 izapidetze-memoria berrikusi dira memoria horietako edukiak balioesteko eta GEEa egiteko prozesua hobetzeko duten ahalmena erkatzeko. Memoria horiei buruzko azterketa xehatua ebaluazio-prozesu honetatik kanpo geratzen bazen ere, gomendioei buruzko kapituluaren (5. atala) memoria horiei buruzko gai interesgarri batzuk aipatu dira.

58 Esate baterako, 2015ean egindako xedapen orokorrak (legeak eta dekretuak) izapidetzeko memoria batzuk.

- Berdintasunaren alorrean espezializatuta ez dauden baina araugintzan eta GEEan inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako sailtako 2 langile.

Elkarrizketen helburuak honako hauek dira:

- Araudiaren ebaluazioa ezartzen laguntzeko garatutako estrategiak ezagutzea.
- Inplikaturik dauden eragileek dauden eragozpenei, eragin handiagoko edo txikiagoko azalpen-alderdiei eta sartu behar diren hobekuntzei buruz dituzten pertzepzioak ez ezik, politika publikoak egiteko prozesu eta erakunde-kultura inklusiboagoak eta berdintasunezkoagoak sustatzeko tresna horren egokitasunari eta baliagarritasunari buruzko balioespen orokorra ere modu kualitatiboan biltzea.

Ebaluazioaren ikuspegia eta aurreikusitako lan-plana –dokumentu-azterketak eta azterketa kuantitatiboak garrantzi handia izanik– kontuan hartuta, erabaki da batez ere Emakundeko, sailtako edo foru aldundietako berdintasun-alorreko langileei egitea elkarrizketak. Ondoren, eta erkatzeko soilik, GETak egiteko ardura duten eta berdintasunaren alorrean espezializatuta ez dauden teknikariei egin zaizkie elkarrizketak. Aukera horri esker, egutegira egokitzeak aukera izan da, baita Eusko Jaurlaritzan dagoen egoerari buruzko mapa orokor bat egiteko ere. Mapa horretan EAEko generoaren *mainstreaming* estrategia osoarekin elkartu ahal izan da.

b) GEEaren emaitzen ebaluazioa

2010. eta 2015. urteei dagozkien GEEaren lagin bat hautatu da urte horiei buruzko azterketa sakon bat egin ahal izateko.

Emakunderen GEEaren jarraipenari buruzko datu-baseak eta foru aldundien laguntza oinarritzat hartuta, hautatutako GEEekin lotutako dokumentazio guztia bildu da; hau da: arau-proposamena⁵⁹, GEEari buruzko txostenak, berdintasun-organo egiaztatzailearen txostenak, baldin baleude, eta azkenean onartutako araudia. Horrekin, zehatz-mehatz aztertu dira txostenen ezaugarriak eta txosten horiek araudian eragiteko duten gaitasuna.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eraginari buruzko ebaluazioak gauzatzeko ekintza sendotuago dagoenez, anbizio handiagoko azterketa sistematikoagoa garatu ahal izan zen. Horretarako, azterketa egiteko tresna bat eta informazioa husten laguntzeko lineako datu-base bat egin ziren, dokumentuei buruzko azterketa arinago eta sistematikoago gauzatzeko⁶⁰. Eredu analitikoa eraginaren ebaluazioaren gidalerroetan oinarritu zen. Lehendik zeuden gidalerro horiek ebaluazioaren helburuen eta ebaluazioari buruzko galderen araberatik berrikusi eta osatu ziren.

Datu-base horren ustiaketak espedientei buruzko azterketa sakon bat egitea ahalbidetu du; izan ere, araudiaren zirriborroa azkenean onartutako araudiarekin alderatu da eta eragileek egindako eraginaren ebaluazioari buruzko txostena Emakunderen egiaztapen-txostenarekin alderatu da. Era horretan, aurrerapen eta joera nagusiak identifikatu dira.

Aztertu behar diren espedienteak hautatzerakoan, onartutako araudiaren GEEak 2010. eta 2015. urteetako bigarren hiruhilekoan sartzea aurreikusi zen, aurreko ebaluazioetan ezarritako azterketaldiarekin bat etorritik. Alabaina, ikusi zen irizpide hori murriztailegia zela, ez zegoelako behar adina espediente azterketa egiteko. Horrenbestez, aipatutako bigarren hiruhilekotik aurrera, aldi bakoitzean –IX. legegintzaldia eta X. legegintzaldia– 50 espediente hautatzea erabaki zen, eta behar ziren espedienteen kopurua lortu arte behar

⁵⁹ Foru aldundietan ezin izan zen arau-zirriborroa eskuratu; horregatik, azterketak azken araudia hartu du aintzat.

⁶⁰ Tresnaren lagin bat atxiki zaio eranskinari.

zen guztia egin zen atzera denboran. Horren ondorioz, 2010eko aldirako, 2009/09/15etik (2009_003 espediente) 2010/06/29ra bitarteko espedienteak (2010_041 espediente) ditugu, eta 2015eko aldirako, 2014/04/07tik (2012_048 espediente) 2015/06/25era bitartekoak (2015_027 espediente). Horren ondorioz, 400 dokumentu inguru berrikusi behar izan dira, espediente bakoitzean arau-proposamena, GETa, Emakunderen egiaztapen-txostena eta onartutako araua biltzen direlako.

Puntu honetan garrantzitsua da aipatzea azterketaldia luzatu zela ezin zirelako identifika-tutako espediente guztiak aztertu. 2009-2010 aldiari dagokionez, adibidez, espediente asko osatu gabe zeuden, hau da, batzuek ez zituzten derrigorrezko txosten batzuk,⁶¹ edo GEEa egitetik salbuetsita zeuden⁶². Horrek ekarri zuen 2010ean gorabeherarik gabeko 35 espediente soilik identifikatzea; horren ondorioz, 2009ko hirugarren eta laugarren hiruhi-lekoetara jo behar izan genuen gainerako 15 espedienteak sartu ahal izateko.

2015eko aldiari dagokionez, ez zen osatu gabeko espedienterik identifikatu –horrek esan nahi du ezarpen-prozesuetan hobekuntza izan dela–, baina salbuetsitako 10 espediente zeudela ikusi genuen, baita araugintza txikiagoa izan zela ere; horregatik, inolako gorabeherarik ez zuten 2015eko 15 espediente sartu ahal izan ziren azterketan. 50 espedienteko lagina beste 35 espedienterekin osatu zen. Espediente horiek 2014ko bigarren, hiruga-rren eta laugarren hiruhilekoetakoak dira⁶³.

Horrela hautatutako espedienteek honako ezaugarri hauek dituzte:

Araua ematen duten **sailei** dagokienez, egiaztatu dugu sailen artean alde handia dagoela araugintzari dagokionez; izan ere, sail batzuek oso presentzia garrantzitsua dute laginean, baina beste batzuk, ordea, ez dira azaltzen. 2009-2010 eta 2014-2015 aldietarako aztertutako 100 espedienteetatik, esate baterako, espediente horien % 51 Hezkuntza, Uniber-tsitate eta Ikerketa/Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagozkio –gehienek lanbide-prestakuntzei buruzko curriculumak arautzen dituzte (14 2010ean eta 23 2015ean)–.

Osorik hartuta, Hezkuntza Sailak, Industria Sailak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak (legegintzaldiaren arabera izen eta osaera desberdin samarrak dituzte Sail horiek) onartu dituzte arau gehien azterketaldian, eta, beraz, ebaluatu behar diren espedien-te-lagin gehien daude Sail horietan. GEEen hautaketa-joera hori konpentsatzeko, erabaki zen sail guztiei egitea elkarriketak, sail guztiei buruzko informazio kualitatiboa gutxienez eduki ahal izateko.

61 Batez ere, lehenengo aldian, Emakunderen egiaztapen-txostenik gabe (osatu gabe zeuden 16 kasuetatik 13).


62 Guztira 12 espediente.

63 2014an, salbuetsitako 25 arau-espediente daude, azterketaldi guztietako kopuru handiena, eta osatu gabeko espe-diente kopuru oso handia dago; izan ere, 8 espedientetan ikusi da 2010-2009 aldian, hots, aurreko aldian, ikusi ziren gorabeherekin zerikusirik ez zuten beste gorabehera batzuk daudela (adibidez: argitalpen-data okerrak, aurkitu ez diren aginduen zirriborroak edo argitaratu gabeko araudia).

1.E. GRAFIKOA. Aztertutako espedienteak, Eusko Jaurlaritzako sailaren arabera, 2009-2010



2.E. GRAFIKOA. Aztertutako espedienteak, Eusko Jaurlaritzako sailaren arabera, 2014-2015



Araudi motari dagokionez, batez ere dekretuak eta aginduak nagusitzen dira beste mota batzuen gainetik, esate baterako legeen eta ebazpenen gainetik.

1.E. TAULA. Espedienteen laginaren ezaugarriak⁶⁴

MOTA	2010	2015	GUZTIRA
Legea	0	1	1
Dekretua	32	36	68
Agindua	18	12	30
Ebazpena	0	1	1
ORO HAR, GUZTIRA	50	50	100

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa duten arau-xedapen gehienek garrantzi ertaina (46) edo txikia (35) dute, eta 19 espediente hartu dira garrantzi handikotzat. Arau-proposamenen garrantzia hiru irizpideren arabera ezarri da:

1. Dagokion arauak ezartzen duen erregulazioaren eraginpean dagoen biztanleria: desberdina izan daiteke, batzuek kolektibo espezifiko bat hartzen dutelako eraginpean, eta beste batzuek, ordea, biztanleria orokorrean. Zenbat eta biztanle gehiago inplikaturik egon, orduan eta garrantzi handiagoa dute.
2. Arauaren izaera: Arauaren erregulazioaren xedea; xede hori politikoa izan daiteke, eskubideak arautzekoa, edo teknikoa, egiturak arautzekoa. Arauak zenbat eta izaera politiko handiagoa izan, orduan eta garrantzi handiagoa izango du.
3. Inplikaturik aurrekontua: dagokion sailak arauaren xede den erregulaziora bideratutako aurrekontuaren zenbatekoari egiten zion erreferentzia. Zenbat eta aurrekontua handiagoa izan, orduan eta garrantzi handiagoa.

Bestalde, argitu behar da irizpide orokor hauek erabili direla arauaren garrantzi-maila zehazteko, baina Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa/Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak espedienteetan, hots, curriculumen edukia arautzen zen espedienteetan, erregulazioaren xede diren azterlanetan presentzia paritarioa ezarri dugula irizpidez, eta Garrantzi-mailarekiko kontrako harremana ezarri da; hau da, zenbat eta paritate txikiagoa izan, orduan eta Garrantzi-maila handiagoa du arauak.

Foru-aldundiei dagokienez, GEEen tresna ondoren garatu zenez, azterketa egiteko espediente garrantzitsu batzuk hautatu ziren berdintasuneko zuzendaritzekin hitz egin ondoren, Arabako Foru Aldundiaren kasuan izan ezik, Aldundi horretan oraindik ez dituztelako tresna hori ezartzeko gidalerroak eta eredu sistematikoa definitu.

Bizkaiko Foru Aldundirako 8 espediente hautatu ziren. Espediente horien barnean generoaren araberako eraginari buruzko txostenak eta azkenean onartutako araudia bildu ziren. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, 17 espediente aztertu ziren: 8 GTEk eta Egiaztapen Txostenek osatzen zituzten, eta beste 9k GTEa soilik zuten. 8 espediente osoen kasuan, 2 espediente aurretik aztertu diren eta egiaztapen-txosten negatiboa izan dutelako berri-errepikatu behar izan diren arauak buruzkoak dira. Bi aldundietan berdintasuneko zerbi-

64 Taula honetan, ondorengo taula guztietan bezalaxe, datuen irakurketa errazteko, 2010. urtea adierazi da IX. legegintzaldiari dagozkion espedienteen lagina aipatzeko, eta 2015. urtea X. legegintzaldiari dagozkionak aipatzeko, nahiz eta 2009ko eta 2014ko espedienteak ere biltzen diren, hurrenez hurren.


tzuek hautatu zituzten espedienteak, ikertzaile taldeak espedienteen lagin askotarikoa eta garrantzitsua emateko egindako eskaerari erantzunez.

c) Berdintasuna araudian sartzeari buruzko ebaluazioa

GEEaren tresna aplikatzeak duen eragina balioetsi ahal izateko onartutako araudian –2005. urteari eta VIII. legegintzaldiari dagokiona– Berdintasunerako Legea benetan garatu aurretik zeuden berdintasun-neurriei buruzko azterketa ere egin da ondoren (arau batzuk garai berekoak edo ondorengoak dira, lege hori 2005eko otsailaren 18an onartu zelako).

Azterketa sistematikoki egin ahal izateko, Eusko Jaurlaritzan egindako azterketa hartu da oinarritzat, Emakunderen laguntzarekin hautatu da eta Aldizkari ofizialetan aldi baliokide bateko (2004ko azaroaren 23tik 2005eko ekainaren 27ra bitartekoak) 50 araudi berrikusi dira. Araudi horien ezaugarriak direla medio eta legea eta gidalerroak une horretan indarrean egon izan balira eraginaren ebaluazioaren xede izango ziren araudiak aztertu dira.

3.E. GRAFIKOA. Aztertutako espedienteak, Eusko Jaurlaritzako sailaren arabera, 2004-2005



2.E. TAULA. Espedienteen laginaren ezaugarriak⁶⁵

MOTA	2005	2010	2015	GUZTIRA
Legea	3	0	1	4
Dekretua	25	32	36	93
Agindua	20	18	12	50
Ebazpena	2	0	1	3
ORO HAR, GUZTIRA	50	50	50	150

2005eko, 2010eko eta 2015eko araudian dauden berdintasun-neurriak alderatzen baditugu, ikusiko dugu tresnaren eragina oso adierazgarria dela, baina ezin dugu esan hobekuntza tresna hori ezarri delako soilik –edo batez ere– gertatu dela. Berdintasunerako Legeak proposatzen duen genero-zeharkakotasunaren bultzadaren ikuspegi globala kontuan izan behar da, laguntza emateko eta prestakuntzarako egiturak eta berdintasun-planak sortu baitira eragile guztietan, beste hainbat tresnaren artean. Seguruenik, tresna horiek guztiak hedatzeak ekarri du eragina izatea, baina ezin da jakin espezifikoki zer eragin esleidiakiokeen GEEa egin izanari.

Berdintasun-neurriak arestian deskribatutako emaitzen ebaluazioan erabili den eredu eta prozesu analitiko bera erabiliz aztertu dira, eta informazioa lineako datu-base baten fitxa sistematizatueta hustu da.

ADIERAZLEAK ERAGINKOR BIHURTZEA

1.2.E

Eraldaketa-maila

Arau jakin batean sartutako (edo txosten jakin batean iradokitako) neurrien generoaren eraldaketa-maila ebaluatzeke bost kategoria sortu dira:

1. Gutxieneko eraldaketa edo eraldaketarik ez
2. Neurrizko eraldaketa
3. Eraldaketa ertaina
4. Eraldaketa nabarmena
5. Eraldaketa esanguratsua

Kategoria horiek lau irizpide kontuan hartuta lortu dira: bi irizpide arauan sartutako neurriei buruzkoak dira, eta beste biak neurri horiek eragiten duten eremuari buruzkoak.

⁶⁵ Taula honetan, ondorengo taula guztietan bezalaxe, datuen irakurketa errazteko, 2005. urtea adierazi da VIII. legegintzaldiari dagozkion espedienteen lagina aipatzeko, eta 2010. urtea IX. legegintzaldiari dagozkionak aipatzeko eta 2015. urtea X. legegintzaldiari dagozkionak aipatzeko, nahiz eta 2004ko, 2009ko eta 2014ko espedienteak ere biltzen diren, hurrenez hurren.

- a) Neurrien ezaugarriei dagokienez, neurrien *indar- edo gogortasun-maila* balioesten da: uste da gomendioek funtzionamendu edo emaitza jakin bat derrigorrez aldatzen duten neurriek baino eraldatzeko izaera txikiagoa dutela.
- b) Kontzeptu-esparruari dagokionez, sartutako neurrien *genero-egituren eraldaketa-maila* balioesten da: uste da neurri batzuek ikuspegi egokitzaileak edo eraldaketa gutxi dakartzaten ikuspegiak hartzen dituztela (esate baterako, lan-kargak dituzten emakumeei inplizituki bideratutako uztartze-neurriak), baina beste neurri batzuek dagoeneko aurkeztu ditugun genero-egituretan esku hartu nahi dute (esate baterako, gizonak zaintzan sartzeko politikak). Judith Squires-ek dioenari jarraikiz, guk uste dugu tresnak aplikatzen diren eremutik, tresnaren gogortasunetik edo inplikaturako erakundearen erresistentzia zehatzetatik haratago, politika-esparrua eraldatzaileagoa edo ez hain eraldatzailea izan daitekeela genero-egituren funtsa lantzen badu. Politika horiek honako hauek izango lirateke, besteak beste: emakumeek beren ugalketa-gaitasunaren gaineko erabateko kontrola izatera bideratutako politikak, errentak edo zerbitzuak bermatzeko politikak loturarik ez izatea familiaburuak etxeko unitateetan duen kokapenarekin eta gizonak ordaindu gabeko lanean sartzearekin.
- c) Politika horien aplikazio-eremuari dagokionez, *garrantzi soziala hartzen da aintzat*: bereziki garrantzitsutzat hartzen dira bereziki garrantzitsuak diren gai-arloetan aplikatzen diren araudiak; esate baterako, politika ekonomikoak, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzuak (adinekoak, haurrak, gaixoak), osasun-politikak, oinarritzko eskubideak bermatzen dituzten transferentziak edo zerbitzuak eta segurtasun-politikak.
- d) Politika horiek aplikatzen dituzten erakundeei dagokienez, *genero-aldaketarekiko erresistentzia-maila balioesten da*. Guztiok dakigunez, politika batzuek aurka egiten diote genero-berdintasunari –oso zehatza ez den zerrenda batean azpiegiturei edo mugikortasunari buruzko politikak, nazioarteko politika, finantza-ekonomiari buruzko politikak edo kirol profesionalari buruzko politika edo segurtasun-politikak sar litezke–. Eremu horiek (eta beste batzuk) oso maskulinizatuta egoten dira beren profesionalen osaerari dagokionez, eta, gainera, dokumentu askotan azaltzen da beren arau formalek eta informalek, eremu horien barruko harremanek eta ezarritako ohiturek gogo txarrez hartzen dutela emakumeak ez ezik, emakumeen premiak eta esperientziak ere sartzeko dakarren aldaketa. Horregatik, alderdi horiek guztiak aldatzera bideratutako politikek garrantzi eraldatzaile handia dute.

Lau irizpide horiei erantzuten dieten neurriak eraldaketa-maila garrantzitsua duten neurritzat hartu dira. Neurri horiek hiru irizpide sartzen dituztenean, esaten da generoaren eraldaketa-maila nabarmena duela; birekin eraldaketa-maila tartekoa da, eta batekin neurritzkoa. Neurriek lau irizpideetako bakar bat ere betetzen ez dutenean, esan daiteke eraldaketa-maila oso txikia dela edo ez dagoela eraldaketarik.

3.E. TAULA. “Generoaren eraldaketa-maila” adierazlea eraginkor bihurtzea

GENEROAREN ERALDAKETA-MAILA	DESKRIBAPENA	ADIBIDEAK
1 Gutxieneko eraldaketa edo eraldaketarik ez	Ez du lau irizpideetako bakar bat ere	• Testuko maskulino generikoak kendu ditu. • Azalpen-zatian genero-berdintasuna aipatu du.
2 Neurrizkoa	Irizpide bat betetzen du	• Paritatea ezartzen du dagoeneko feminizitatuta dagoen eremu bateko kontsulta-organoetan. • Sentsibilizazio-kanpaina sozialki garrantzitsuak diren eremuetan.
3 Tartekoa	Bi irizpide betetzen ditu	• Laguntza espezifikoak ezartzen ditu kalteberatasun berezia duten emakumeen kolektiboentzat. • Paritatea ezartzen du maskulinizatuta dagoen eremu bateko kontsulta-organoetan.
4 Nabarmena	Hiru irizpide betetzen ditu	• Sozialki garrantzitsuak diren erakundeen prozedurak, merezimenduak edo funtzionamendu-irizpideak aldatzen ditu genero-paritatea sartzeko. • Ezartzen du paritatea ezinbestekoa dela erabakiak hartzeko erakundeetan erresistentzia handia jartzen duten eta sozialki garrantzitsuak diren eremuetan (enpresa handiak, kirol profesionala, he-dabideak eta abar).
5 Garrantzitsua	Lau irizpideak betetzen ditu	• Neurri ekonomikoak / emakumeentzat eta gizonentzat eragin ekonomiko nabarmena duten neurriak proposatzen ditu. • Politika publikoen eremu gogorretan –genero-paritatearen aurka daudenetan– genero-paritatea sartzeko neurriak proposatzen ditu. • Ekintza positiboko neurriak edo zehapen-neurriak gizonak zaintzan sartzeko.

Gainera, **1etik 5erainoko eskala** sortu da aipatutako kategoriak erabiliz; eskala horretan 1ek gutxieneko eraldaketa dagoela edo eraldaketarik ez dagoela esan nahi du eta 5ek esan nahi du genero-harremanen eraldaketa garrantzitsua izan dela gizartean azterketaren xede den politikaren eremuan. Eskala horri esker berdintasun-neurriak dituzten arauen eraldaketa-mailaren batez besteko puntuazioa egin daiteke. Neurriak dituzten arauen kopurua berdintasun-neurriak dituzten guztizko arauak kontuan hartuta aipatutako eskalan lortutako puntuazioarekin biderkatuta lortzen da kalkulu hori.

4.E. TAULA. Elkarrizketatutako pertsonen profila, erakundea eta eguna

PROFILA	ERAKUNDEA	EGUNA
Berdintasun-unitatea	Lehendakaritza	2015/12/01
Berdintasun-unitatea	Herri Administrazio eta Justizia Saila	2015/12/01
Berdintasun-unitatea	Ekonomiaren Garapeneko eta Lehiakortasuneko Saila	2015/12/02
Berdintasun-unitatea	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	2015/12/01
Berdintasun-unitatea	Ogasun eta Finantza Saila	2015/12/03
Berdintasun-unitatea	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (Hezkuntza)	2015/12/03
Berdintasun-unitatea	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (Kultura)	2015/12/03
Berdintasun-unitatea	Segurtasun Saila	2015/12/01
Berdintasun-unitatea	Osasun Saila	2015/12/02
Berdintasun-unitatea	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	2015/12/03
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	2015/12/01
Aholkulari juridikoa	Segurtasun Saila	2015/12/01
Lankidetzar-erlota	Emakunde	2015/12/02
Lankidetzar-erlota	Emakunde	2015/11/30
Berdintasun Zerbitzuko teknikaria	Arabako Foru Aldundia	2015/12/03
Genero Politiken idazkari teknikoa	Bizkaiko Foru Aldundia	2015/11/30
GETaren Aholkularitza Teknikoa	Bizkaiko Foru Aldundia	2015/11/30
Berdintasuneko zerbitzuberua	Gipuzkoako Foru Aldundia	2015/12/02
Egiaztapen Txostenen arduraduna	Gipuzkoako Foru Aldundia	2015/12/02

2005

Legeak

1. 1/2005 LEGEA, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.
2. 2/2005 LEGEA, otsailaren 17koa, 2005-2008 aldirako Euskal Estatistika Planarena.
3. 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.

Dekretuak

1. 243/2004 DEKRETUA, azaroaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako ustategietarako, landa-eremuen garapen eta egokitzapenerako, eta basogintzarako laguntzak arautzen dituen.
2. 30/2005 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erlezaintzarako laguntzei buruzkoa.
3. 20/2005 DEKRETUA, urtarrilaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritzako Politika Erkidearen esparruan zuzeneko laguntzetarako baldintzak aplikatzeari buruzkoa.
4. 90/2005 DEKRETUA, apirilaren 12koa, animalien elikaduran kontrol ofizialak eta arriskuak prebenitzeko kontrolak antolatzeke dena.
5. 223/2004 DEKRETUA, azaroaren 23koa, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuaren figura sortu eta arautzen duena.
6. 234/2004 DEKRETUA, azaroaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko lurralde-eremuan, Diseinu Grafikoaren lanbide-arloaren barruan dagoen Ilustrazioko Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari-tituluari dagokion Goi Mailako Heziketa Zikloaren curriculum ezartzeko dena.
7. 39/2005 DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa (TKNIKA) sortu eta bere lanpostuen zerrenda onartzen dituen.
8. 40/2005 DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko Baliabidetegiak sortzen dituen.
9. 66/2005 DEKRETUA, apirilaren 5ekoa, Hezkuntza Bereziko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntza-eskakizunak sortu eta arautzen dituen.
10. 237/2004 DEKRETUA, azaroaren 30ekoa, Barnealdean Diseinua lanbide-arloan sartzen den arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako teknikaria Dekorazio-Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan Tituluari dagokion Goi-Mailako Heziketa-Zikloaren curriculum ezartzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremurako.
11. 67/2005 DEKRETUA, apirilaren 5ekoa, Euskal Eskola Publikoa eratzen duten ikastetxeen ekonomia- eta finantza-araubidea arautzen duen dekretua aldatzeko.

12. 79/2005 DEKRETUA, apirilaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gorderiko lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen.
13. 81/2005 DEKRETUA, apirilaren 12koa; honen bidez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu da eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak izango dituen eginkizunak ezarri.
14. 25/2005 DEKRETUA, otsailaren 8koa, Euskadiko Kontsumorako Koordinazio Batzordea arautzen duena.
15. 33/2005 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiari buruzkoa.
16. 96/2005 DEKRETUA, apirilaren 19koa; zeinaren bidez, neurri ekonomikoak ezartzen baitira, Ertzaintzako funtzionarioek zerbitzua ematean bete beharreko segurtasun-baldintzak indartzeari lotuta.
17. 95/2005 DEKRETUA, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Apustuen Erregelamendua onesten duena.
18. 58/2005 DEKRETUA, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duena.
19. 3/2005 DEKRETUA, urtarrilaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa sortzeko dena.
20. 16/2005 DEKRETUA, urtarrilaren 25ekoa, mediku ez diren langileek kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea arautzen duena.
21. 57/2005 DEKRETUA, martxoaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duena.
22. 121/2005 DEKRETUA, maiatzaren 24koa, Osasun Saileko Aholku Batzordeen araubideari buruzkoa.
23. 102/2005 DEKRETUA, apirilaren 26koa, behaketan oinarritutako eta baimena eman ondorengo sendagaien inguruko azterlanak burutzea arautzen duena.
24. 35/2005 DEKRETUA, otsailaren 22koa, administrazio-emakida baten edo zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu baten titular izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-portuetako instalazioetan eta ekipamenduan inbertitzen duten pertsona fisiko edo juridikoei diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.
25. 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duena.

Aginduak

1. AGINDUA, 2005eko maiatzaren 17koa, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, administrazio-prozedura antolatzen da EAEn ordainketa bakarreko araubideko laguntza-eskubideak behin-behineko ezartzeko eta eskubide horien onuradunak zein diren identifikatzeko.
2. AGINDUA, 2004ko abenduaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Bigarren hezkuntzako ikasketak erdi-mailako musika- eta dantza-irakaskuntza artistikoekin batera egin ahal izateko neurriak ezartzen dituena.
3. AGINDUA, 2005eko otsailaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle Kidegoan sartzeko hautaprobak deialdia ezartzen duena.
4. AGINDUA, 2005eko maiatzaren 18koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Gizarte Bermeko programak gauzatzearren, Lanbide Hastapeneko programen garapenerako diru-laguntzak arautzeko dena.
5. AGINDUA, 2005eko maiatzaren 23koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probak arautzen dituena.
6. AGINDUA, 2005eko urtarrilaren 18koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren 2005. urterako enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena.
7. AGINDUA, 2005eko apirilaren 11koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuarena; honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan ariko diren langile lan-kontratudun finko baten lanpostua (Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikia) betetzeko hautapen-prozesuetarako deialdia egin da.
8. AGINDUA, 2005eko maiatzaren 20koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langile lan-kontratudunentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia ezartzen duena.
9. AGINDUA, 2005eko maiatzaren 25ekoa, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuarena; honen bidez Interneterako banda zabaleko sarrera-zerbitzuak emateko laguntza-neurriak ezartzen dira, KonektaZaitetz@Banda zabala proiektuaren barruan.
10. AGINDUA, 2005eko martxoaren 9koa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen erakundeentzako diru-laguntzak emateko programa garatzen duena.
11. AGINDUA, 2005eko martxoaren 15ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, "Elkartzen programa" arautzen duena. Programa horren bidez laguntzak ematen zaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei kanpo sustapeneko jarduerak egin ditzaten.
12. AGINDUA, 2005eko apirilaren 7koa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, kontsumoaren alorreko prestakuntzarako eta ikerketarako beka-programa arautzen duena.

13. AGINDUA, 2005eko ekainaren 27koa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, produktu berriak garatzeko proiektuak egiten laguntzeko programa arautzen duena. Gaitek programa.
14. AGINDUA, 2005eko ekainaren 27koa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena; honen bitartez, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiteko laguntzen programa arautzen da. NETs programa.
15. AGINDUA, 2005eko ekainaren 27koa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, garapen teknologikoko eta berrikuntzako proiektuak egiten laguntzeko programa arautzen duena. Innotek programa.
16. AGINDUA, 2005eko apirilaren 26koa, Herrizaingo sailburuarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten Erakunde eta elkarreentzako laguntzak arautzen dituen.
17. AGINDUA, 2005eko otsailaren 11koa, Garraio eta Herri Laneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikorako gehienezko baimen-kopurua ezartzeko dena.
18. AGINDUA, 2005eko martxoaren 7koa, Garraio eta Herri Laneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko errepide bidezko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio-zerbitzu publiko erregularretan tarifak eta gutxieneko jasotzeak areagotzeko dena.
19. AGINDUA, 2005eko apirilaren 26koa, Kulturako sailburuarena, laguntzen deialdia egiten duena Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko sektorea nazioarteko ikus-entzunezko merkatuetan sustatu eta hedatzeko (Niniak).
20. AGINDUA, 2005eko apirilaren 26koa, Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egindako film labur zinematografikoak sustatzen eta hedatzen laguntzeko neurriak arautzen dituen (Kimuak).

Ebazpenak

1. EBAZPENA, 2005eko urtarrilaren 18koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente kategoriako karrerako funtzionarioei Eskolta Gaikuntzako ikastaroan sartzeko hautaketa-prozedurarako deia egiten diena.
2. EBAZPENA, 2005eko martxoaren 8koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroan sartzeko hautaketa-prozedura murrizturako deia egiten duena.

Dekretuak

1. 515/2009 DEKRETUA, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak.
2. 427/2009 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, instalazio termiko eta fluidodunak mantentzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
3. 462/2009 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, haur-hezkuntzako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
4. 536/2009 DEKRETUA, urriaren 6koa, mekanizazioko teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
5. 537/2009 DEKRETUA, urriaren 6koa, mahastizaintzako eta ardogintzako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
6. 64/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, fabrikazio mekanikoko produkzioa programatzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
7. 66/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, instalazio elektriko eta automatikoetako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
8. 67/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, mikroinformatika-sistemetak eta sareetako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
9. 68/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, energia-eraginkortasuneko eta eguzki-energia termikoko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
10. 69/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, osasun-larrialdietako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
11. 70/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, okintzako, gozogintzako eta konfiteriako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
12. 72/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, kimika industrialeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
13. 73/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, karrozeriako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
14. 74/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, analisisiko eta kalitate-kontrolako laborategiko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
15. 97/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarriko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena.
16. 138/2010 DEKRETUA, maiatzaren 18koa, jantzigintzako eta modako teknikariaren tituluari dagokion curriculumak ezartzen duena.
17. 121/2010 DEKRETUA, apirilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculumak sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko Dekretua aldatzen duena.

18. 122/2010 DEKRETUA, apirilaren 20koa, Batxilergoko curriculumak ezartzeko Dekretua aldatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza horiek ezartzeko.
19. 41/2010 DEKRETUA, otsailaren 9koa, enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa garatzen duena.
20. 125/2010 DEKRETUA, apirilaren 27koa, zeinaren bitartez tokiko zenbait programa eta jarduera egiteko diru-laguntzen deialdia egiten baita eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzak ekonomikoa arautzen.
